

# 20 URTE ZUEKIN. goiena



## MASKARAK, MINBIZIARI AURRE EGITEN LAGUNTZEKO

Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Antzuolako Movember taldeek maskara bereziak jarri dituzte salgai, eta elkarlanean dihardute hainbat ekimen prestatzen / 4

Eguaztenean, Elorregin, ezkerretik eskumara: Iban Arroiabe –Arrasate–, Mikel Larrañaga –Antzuola–, Unai Azkarate –Bergara– eta Aratz Losada –Oñati–. XABIER URZELAI

**Egoerak okerrera eginda, urrian COVID-19 positibo kasu bikoitza –863– Debagoiengan / 2**

**Medikua lanaldi osoan berriro ere jartzea eskatu du, aho batez, Aramaioko udalbatzak / 14**

**Internerako konexio ultralasterra ehun bat etxebizitza eta baserritara zabalduko dute Aretxabaletan / 17**

**Atama Eskoriatza taldeko Leire Ratok irabazi du Espainiako sambo txapelketa, Murtzian / 21**

### SINADURAK

 RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 6	 ASIER ELORTZA / 27
 IBON ANTERO / 8	 ION LIZARAZU / 31
 MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11	 AIZPEA URIBE BALANTZATEGI / 33
 MARIA IZAGA / 15	 MIKEL IRIZAR / 48



**'AUTOAK 2020' GEHIGARRIA ERDI-ERDIKO ORRIETAN / 22**



**Eneritz Zubizarreta informatikariari elkarrizketa**

Parekidetasunetik harago, sistema aldatzea helburu

**mō**  
BETAURREKOAK  
+  
LENTILLAK  
**99€**

2020/12/31n arte baliagarria. Ekin eta beste promozio batzuekin batera.


Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTI OPTICAS**  
movember babesten

[www.multipticas.com](http://www.multipticas.com)





# Okerragora jotzea saihestu guran

Urrian ia bikoiztu egin dira kasu positiboak –863– irailarekin alderatuta eta azken astean 410 kasu atzeman dituzte; eguazteneko probek orain arteko daturik okerrera zenbatu dute: 77 kutsatu berri. Neurri murriztaile berriak iragarri dituzte

**Maialen Santos** ARRASATE

GOIENAREN edizio hau ixterako, Jaurlearitzak oraindik neurri murriztailegoen berri eman ez bazuen ere, Bingen Zupiria Jaurlearitzako bozeramaileak Euskadi Irratian iragarri zuen, atzo goizean, hizketan ari zirela ostalaritza-establezimenduen itxiera eragingo duen neurrien inguruan, eta baita pertsonen bilerak debekatzearen inguruan ere. Birusaren "hedapen azkarra" eraginda hartuko ditu neurriak Jaurlearitzak.

Debagoienaren kasuan, azken astean 410 positibo hauteman dituzte; gehienak, Bergaran –149–. Arrasatek jarraitu dio, gertutik –122 kasurekin– eta 900 kutsatuen langa gairiditu zuen atzo. Eguaztenez egindako probek 77 positibo hauteman zituzten, gainera; martxotik erregistratu den daturik okerrera da hori. Bestalde, nabarmenezkoa da Debagoieneko 5.000 biztanletik gorako herri guztiak gorritz daudela dagoneko, Aretxabaleta ere asteburuan batu baita zerrendara. Oro har, positiboak goraka doaz bailaran, eta ia herri guztietan –Leintz Gatzagan ez– aurreko astean baino kasu gehiago zenbatu dituzte honetan.

Bestetik, irailarekin alderatuta, urrian bikoiztu egin dira bailarako kasuak: 863 izan dira.

**BERGARAKO BAHEKETA**

## EGINDAKO 2.233 PROBATIK 23 POSITIBO HAUTEMAN DITUZTE BERGARAN

Koronabirus kasu asintomati-koak atzematuko baheketa egin zuten Bergaran, asteburuan. 13 eta 40 urte arteko 4.000 herritar

zeuden deituta PCRa egitera, eta horietatik 2.789k hartu zuten hitzordua, Debagoieneko ESiko Luisa Diez zuzendari gerenteak azaldu duenez. Guztira, 2.233 PCR proba egin zituzten –500 lagundik gora ez ziren bertaratu– eta horietatik 23 positibo baieztatu zituzten.

Osasun Sailatik adierazi zuten 18 izan zirela zenbatutako kasuak. Diezek honela azaldu du desoreka hori: "Emaitzak pixkanaka jaso genituen. Osasun Sailak datuak eman eta gero izan genuen bost positibo gehiagoren berri".

Behaketatik ondorioztatutako emaitzak "esanguratsuak" dira, Diezen hitzetan; izan ere, "kutsatze asko" ekidin dituzte hala.

**DEBAGOIENENKO OSPITALEA**

## 16 KUTSATU DAUDE DEBAGOIENENKO OSPITALEAN INGRESATUTA

Atzora arte, hamasei lagun zeuden Debagoieneko Ospitalean ingresatuta, eta Ospitaleak adierazi dute "egonkor" daudela. Izan ere, larriago daudena beste ospitale batzuetara bideratzen dituzte –Txagorritxura, normalean–. Azken bi asteetan, hemezortzi gaixo bideratu dituzte beste ospitale batzuetara.

ESiko zuzendari gerenteak azaldu du ospitaleko langileek "tentsio handiarekin" dihardutela lanean, ez dutelako giza baliabide gehiago lortzeko aukerarik: "Profesional falta dugu, asko birusak jota edota konfinatuta daude, eta ezin ditugu mediku eta erizainak kontratatu, ez daudelako". Langileak "ordezkatzetik" ez dute, beraz.

**ARRASATEKO ISTILUAK**

## HAINBAT EDUKIONTZI ERRE ZITUZTEN ZAPATU GAUEAN ARRASATEN

Zapatu gauean, pertsona talde batek hainbat edukiontzi erre zituen Arrasate erdiguneko bost puntutan, eta hainbat kalte material eragin. Hiru pertsona atxilotu zituzten gertakarietan lotura izan zezaketelakoan, baina domeka goizean epaileak karguekin aske utzi zituen.

Arrasateko Udalak "irmoki salatu eta gaitzetsi" ditu egun hartako "delituzko ekintzak". Era berean, Udaltzaingoaren "lanari" eta "erantzun azkarrari" balioa eman eta haiek eskertu nahi izan ditu (Ikus 11.orria).

**AZKEN EGUNETAKO SALAKETAK**

## AZKEN BI ASTEETAN 20 SALAKETA JARRI DITU ERTZAINZAK DEBAGOIENEAN

Begarako ertzain-etxetik azaldu dutenez, 20 izan dira guztira etxeratze-agindua ezarri zenetik jarritako salaketak, "esku-hartze garrantzitsurik" izan ez badute ere. Horietatik zazpi salaketa 06:00ak eta 23:00ak bitartean jarri dituzte: maskara ez eramateagatik, udalerraren arabeko konfinamendua ez errespetatzeagatik eta bide publikoan droga kontsumitzeagatik. Gai nontzeko hamahiruak 23:00ak eta 06:00ak bitartean jarri dituzte: maskara ez eramateagatik, biltzeko pertsona kopurua gainditzeagatik, udalerraren arabeko konfinamendua ez errespetatzeagatik, etxeratze-agindua ez errespetatzeagatik eta taber-


## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNENKO TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



## Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	122	109	900	40,80
Bergara	149	103	577	38,46
Oñati	54	41	335	29,50
Aretxabaleta	29	18	206	29,02
Antzuola	25	17	117	53,16
Eskoriatza	20	13	91	22,39
Aramaio	7	2	26	17,26
Elgeta	4	3	26	22,83
Gatzaga	0	0	1	4,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>410</b>	<b>306</b>	<b>2.279</b>	<b>35,24</b>


OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Positibo kasuak hilabeteka

ITURRIA: OSAKIDETZA

	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA
Arrasate	69	154	23	3	60	54	170	283
Bergara	18	27	9	1	33	54	108	245
Oñati	20	25	3	2	19	41	53	150
Aretxabaleta	21	26	9	6	12	21	46	47
Eskoriatza	7	6	2	0	11	11	11	37
Antzuola	2	2	5	0	1	2	9	82
Aramaio	2	0	3	0	0	1	4	9
Elgeta	0	2	6	0	3	3	1	10
Leintz Gatzaga	0	0	0	0	0	0	1	0
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>137</b>	<b>242</b>	<b>60</b>	<b>12</b>	<b>139</b>	<b>187</b>	<b>403</b>	<b>863</b>



na batek itxiera ordutegia ez errespetatzeagatik.

Azken asteetan kaleko zainketa "areagotu" egin dutela adierazi dute, "gehienbat, ezarritako neurriak zaindu eta betearazteko". Herritarrak eta tabernariak, oro har, "ondo" ari dira, halere.

Debagoieneko herrietako udaltzainei galdetuta, Oñatikoez azaldu dute azken bi asteetan 20 salaketa inguru jarri dituztela, "guztiak egunean zehar, eta maskara jantzita ez eramateagatik". Arrasateko udaltzainek, ostera, lau salaketa jarri dituzte arrazoi berarengatik. Etxeratze-agindua ez errespetatzeagatik ere hiru pertsona salatu dituzte, gainera.


## OSAKIDETZAKO SINDIKATUEN GREBA DEBAGOIENENKO OSPITALEKO ZENBAIT LANGILE BATU ZIREN ATZOKO GREBARA

"Gehiago itxaron" ezin dezaketela iritzita, hiru greba-egun deitu dituzte Osakidetza bederatzi sindikatuak. Atzo egin zuten greba Gipuzkoan, eta De-

## "Lan-karga izugarri handia dugu"

LOLI AREVALO  
ERIZAINZAKO TEKNIKARIA

Debagoieneko Ospitalean erizaintzako teknikaria da Arevalo. Greba egin zuen atzo. **Zergatik greba?** Arrazoi asko ditugu. Besteak beste, profesional gehiago behar ditugula lanerako. **Zergatik?** Lan-karga izugarri handia dugu. Kontuan hartu behar da koronabirusa plusa dela; gainontzeko gaixoak ere hor daude.



L.A.

### Nola zabilzate baliabide aldetik?

Materialari dagokionez, oinarriko beharrak aseta daude, baina ez dugu sobera. **Non egin zenuen protesta?** Donostia Ospitalean egin zuten mobilizaziora batu nintzen, beste lankide batzuekin batera. **Herritarren zerbitzura zaudete...** Bai, eta ikusi dadila. Gure esku dagoena egiten ari gara.

bagoieneko Ospitaleko langileetako batzuk ere batu ziren protestara; Donostiako Ospitale aurrean manifestatu ziren.

Sindikatuetatik adierazi dute "inoiz baino beharrezkoagoa" dela eskubidedun eta kalitatez-

ko osasun-sistema publikoa defendatzea: "Eskaerak argiak dira: osasun publikorako aurrekontua handitzea eta murrizketak amaitzea, pribatizazioa amaitzea eta langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea".

### AKORDIO BERRIA

## WOLFRATEX-EK 1.000.000 MASKARA EKOITZIKO DITU EAE OSOKO BOTIKENTZAT

Wolfratex enpresa bergararrak eta Gipuzkoako Farmazialarien Banatzaileak akordioa sinatu dute –astelehenetik dago indarrean–, eta, hala, banatzaileak milioi bat maskara erosiko dizkio enpresari. Akordioaren helburua da EAEn maskaren hornikuntza bermatzea; izan ere, 350 botikarekin baino gehiagorekin egiten du lan banatzaileak. Iker Elizburu Wolfratexeko gerenteak adierazi du akordio "oso garrantzitsua" dela, horren bitartez IIR erako musukoak EAE osoko farmazien esku jartzten dituztelako, "zuzenean". Gehitu du era eskalonatuan egingo dituztela maskarak, eta dagoeneko hasiak direla lan horretan. Hain zuzen, egindakoak banatzen ere hasiak dira: martitzenean hasi ziren horretan, eta aste honetan zehar iritsiko dira farmazia guztietara. "Akordioa egin izanak bideak irekiko

dizkio Wolfratexi. EAEn bakarrik ez, estatu mailan ere bai", aitortu du gerenteak.

### MOBILIZAZIOAK

## INBERTSIO PUBLIKOA ALDARRIKATZEKO MOBILIZATZERA DEITU DU SORTUK

Arrasaten bihar egingo dute elkarretaraztea; 19:00etan, plazan. "Salatzen dugu eskuin muturrak krisi sanitario, ekonomiko eta sozial hau baliatu nahi izatea bere agenda erreakzionarioa indartzeko, diskurtso ustez antiautoritario eta inkonformistaz mozorrotuta", adierazi dute. Bergaran ere egingo dute protesta: bihar, 12:30ean, azokatik hasita. Diru publikoa "beharra dutenentzat" erabili dezaten eskatuko dute, hain zuzen ere.

SOS Ostalaritzak ere dei egin du asteburuan protesta egiteko. Hasiara baten ziren egitekoak hegoaldeko lau hiriburuetan, baina egoera zein den ikusita, herrietan hasi dira deialdiak egiten. Antzuolan, esaterako, 17:30ean egingo dute, bihar.

**ikusgaitzak**

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus  
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegiak onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzariaren  
Gipuzkoako Foru  
de Guberuko

ESTOIKAZUNA  
OHARRA  
Ez iruzten



Arrasateko, Bergarako, Antzuolako eta Oñatiko Movember taldeetako kideak, hurrenez hurrez, Elorregin. XABI URZELAI

# Nola edo hala, aurten ere biboteak azaleratuta

Azken urteetan egin bezala, Movember kanpainara batu dira bailarako zenbait herri. Arrasatek, Bergarako, Oñatik eta Antzuolak elkarlanean dihardute azaroan zehar egingo den ekimena prestatzen. Berrikuntza moduan, maskarak salduko dituzte

## Karmele Uribesalgo ARRASATE

Azaroan sartzearekin bat, Movember ekimena ere martxan da. Mugimendu horretan murgilduta dauden bailarako taldeek elkarlanean aritzeko erabakia hartu dute aurten. Nahiz eta bakoitzak bere jarduteko era duen eta plangintza independentea duten, era bateratuan ari dira lanean Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Antzuolako taldeak. Azken horiek duela gutxi hasi baziren ere, ari dira euren bidea egiten. Besteak beste, barrabiletako eta prostatako minbiziari aurre egiteko kanpaina bat da Movember. Azken urteetan oihartzun handia izan du, baita bailaran ere. Bi helburu dituzte: dirua biltzea eta sentsibilizazioan eragitea.

Koronabirusaren pandemiak mundu guztiaren egunerokotasuna baldintzatu duen neurrian, Movemberren ere eragina izan du. Bertan behera utzi behar izan dira urtero egin ohi dituzten bazkari zein afa-

riak, ekitaldiak eta bibote mozketak. Hain zuzen ere, bibotea da kanpaina horren ikurra, baina maskarek ezkutuan uzten dituzte. Dena den, ikusgai uzteko, maskara bibotedunak egin dituzte, eta salgai daude jada herrietako zenbait ile-apaindegitan, saltokitan eta tabernatan. Udalerri bakoitzak diseinu bateko maskarak ditu, baina horren bidez lortutako dirua ikerketa-ri bideratuko dute: Zamudioko

## "TABUAK IZATEN DIRA, ETA GUK GIZARTERATU EGIN NAHI DITUGU"

IBAN ARROIABE, MONDRAVEMBER

## "ERAKUSTEN DUGU EDONOR EGON DAITEKEELA EGOERA HORRETAN"

ARATZ LOSADA, MOVEMBER OÑATI

CiC Biogune zentrora bidaliko dute. Mondravemberko kide Iban Arroiabek azaldu duenez, 0 kilometroaren aldeko apustua egin nahi izan dute modu horretara: "Bestela, sarri, ez dugu jakiten nora doan dirua".

Oso harrera ona izan dute momentuz, maskarek. 10 euroko prezioa dute -Antzuolakoak merketxoagoak dira; 6 euro balio dute-, eta herrietako hainbat ile-apaindegi eta tabernatan dago

## "TERAPIA BAT ERE BADA BESTEEN ESPERIENTZIAK EZAGUTZEA"

UNAI AZKARATE, MOVEMBER GARA

## "HELBURUA DA GEROZ ETA JENDE GEHIAGORENGANA IRISTEA"

MIKEL LARRAÑAGA, ANTZUOLA

eskuratzeo aukera. Bergarako Movember Garako Unai Azkaratek azaldu du "azkar" saltzen direla, probatu beharrik ere ez baitago. Movember Oñatiko kide Aratz Losadak gaineratu du osagarri bat gehiago dela jada jendearentzat. Oñatin, maskara erosten dutenen artean otarre bat zozketatuko dute. Zenbait herritan bestelako produktu batzuk ere jarri dituzte salgai: kamisetak eta txapak, esaterako. Berrikuntza bezala, kirol-jertseak ere atera dituzte Mondravemberkoek. Bergarakoek bideoklip bat atera dute aurten, azken bi urteetan grabatutako irudiekin. Sarean dago jada abesti hori.

Nahiz eta orokorrean ezingo dituzten ohiko ekitaldiak egin, badabilta hitzaldiren bat eskaintzeko aukera ikertzen. CiC Bioguneko ikerlari Arkaitz Carracedorekin harremanetan daude. Oraindik zehazteke dago presentzialki egiteko modurik izango den, baina Internet bidez jarraitzeko aukera ematea ere bada plana.

## Gai tabua

Movemberrek barrabiletako eta prostatako minbizi hartu izan du ardatz, baina, Azkaratek azpimarratu duenez, bestelako gaixotasun batzuk ere barnebiltzen ditu. Sentsibilizazioan eragin nahi dute, eta ikusgarritasuna eman herritarrek izaten dituzten gaitzei. "Askotan, tabuak izaten dira horrelako gaixotasunak, eta guk gizarteratu egin nahi ditugu", adierazi du Arroiabek. Losadak gaineratu du batez ere gizonezkoen kasuan kosta egiten dela onartzea osasun arazoak dituztela. Horrelakoak naturaltasunez kontatzeko ari dira lanean bailarako Movember taldeak. "Azken finean, terapia bat ere bada besteen esperientziak ezagutzea", uste du Azkaratek. Hori ahalbidetzeko, Oñatin herritarren kasuak ezagutarazten aritu izan dira azken bospasei urteetan. "Modu horretara, gerturatu egiten duzu gaixotasuna jendearengana, eta erakusten dugu edonor egon daitekeela egoera horretan", nabarmendu du Losadak.

## Antzuola, indarra hartzen

Hasierako fasean dago Antzuolako Movember taldea. Duela pare bat urte ekin zioten kanpainari, eta herrian indarra hartu nahian dabilta. Bide

onetik doaz; joan den astean kalejira bat egin zuten eta 50 maskara saldu zituzten. Taldeko kide Mikel Larrañagak adierazi du helburua dela gutxienez 200 bibote ikustea Antzuolan. Herritarrek animatzeko, datorren asteko igandean, hilak 15, beste kalejira bat egingo dute. "Helburua da geroz eta jende gehiagorengana iristea", nabarmendu du Larrañagak.

Hainbat ekitaldi egiteko asmoa zuten Antzuolan ere; besteak beste, spinning eskola bat antolatu nahi zuten, baita Juan Pablo Sanz Donostia Ospitaleko urologoaren hitzaldi bat ere. Osasun egoera dela eta, atzeratu egin dituzte jarduera horiek. Bailarako beste herriren batek ekimenarekin bat egin nahi badu, Arrasatekoek, Bergarakoek, Oñatikoek eta Antzuolakoek adierazi dute atek zabalik ditzutela.

## Lehen harria

Urtetik urtera elkarren arteko harremanak sendotuz doaz Debagoieneko Movember taldeak. Gainera, aurrera begira elkarlanean jarraitzeko nahia azaldu dute. Ikusteko dagoen arren, Mondravemberko Arroiabek proposatu du jada festa bateratu bat egiteko ideia, betiere, datorren urtean egoera epidemiologikoak aukera ematen badu: "Aurtengoa lehenengo pausoa da bailara moduan ikusgarritasuna emateko mugimenduari".

## Maskarak salgai

### Arrasate

- Taupa taberna eta King's ile-apaindegia.
- 10 euro.

### Bergara

- Pepelu eta Diego Valor ile-apaindegiak.
- 10 euro.

### Oñati

- Jon, Igone, Sesiñena eta Bizipoz.
- 10 euro. Otarre zozketa.

### Antzuola

- Amaia, Xinkona eta Ogiberri.
- 6 euro.

**Karmele Uribesalgo** ARRASATE

Aste garrantzitsua ari da izaten Ameriketako Estatu Batuetan. Hauteskunde eguna izan zuten asteartean, eta mundu osoak hara begira pasa ditu azken orduak, Donald Trump errepublikanoak edo Joe Biden demokratik, nor irabaziko jakin nahian. Estatubatuarren bizitza baldintzatuko duten hauteskundeak dira, baina bertan bizi diren debagoiendarrean ere gorabeherak izan ditzakete.

Jaiotzaz bailarakoak diren baina gaur egun AEBetan bizi diren hiru lagunekin egon da GOIENA. Hauteskundeak nola bizi izan dituzten kontatu dute, baita kanpaina nolako izan den ere. Horrez gain, datorren legealdia nola ikusten duten azaldu dute Ane Kortabarria arrasatearrak, Naiara Akizu aretxabaletarrak eta Oihana Iriondo oñatiarrak.




**ANE KORTABARRIA** SEATTLEN BIZI DEN ARRASATEARRA

**"Herriarrek ez dute inoiz sentitu euren botoak hainbesteko balioa zuenik"**

Duela bi urte joan zen Seattlera Ane Kortabarria arrasatearra. Lehen Hezkuntzako gradua amaitu berrikan, lana bilatzeko asmoarekin erabaki zuen bizitokia aldatzea. Kortabarriak nabari du "egonezin handia eta tentsioa" izan dela azken asteetan AEBetan. "Aurtengo urte gogorra izan da herrialde guztientzat, baita AEBentzat ere, eta aldatetarako gogoia dauka jendeak", azaldu du. Hainbat mugari izan direla aipatu du arrasatearrak: COVID-19aren pandemia, *Black Lives Matters* mugimendua eta suteak, esaterako. "Gauza asko pasatu dira azken boladan, eta herriarrei ez zaie gustatu euren liderrak nola erantzun duen", nabarmendu du. Gorabehera horiek direla medio, Kortabarriak adierazi du herriarrek azken hilabeteetan zentratu direla hauteskundeetan, arrasatearren hitzetan, orain arte "beste kontu batzuekin" baitzeuden.

# Trump-Biden lehia, Debagoienetik AEBetara joandakoen ikuspuntutik

Ameriketako Estatu Batuetan izan berri diren hauteskundeek erabat baldintzatu dezakete estatubatuarren bizimodua, baita bertan bizi diren debagoiendarrena ere. Horien eta etorkizunaren inguruko gogoeta egin dute bailaran jaiotako hiru herritarrek



Donald J. Trump eta Joe Biden hautagaiak. EMMA KADEN



bizi izan dituen hirugarren hauteskundeak dira pasa berri direnak. Aurrekoekin alderatuta, giroa "krispatuago" dagoela sentitu du Akizuk. Aretxabaletarrak azaldu du AEBetako azken bi hauteskundeetan zaila izan dela jakitea zein alderdik irabaziko zituen: "Aurrekoetan argi neukan Trumpek ez zuela irabaziko, eta sorpresa handia izan zen; aurtengo hauteskundeak Bidenek erraz irabaziko zituela uste nuen".

Trumpen alde daudenean haren inguruko mezuak bakarrik jasotzen dituztela nabarmendu du, eta uste du ez dutela informazioa kontrastatzen. Akizuren iritziz, hori izan daiteke hautagai errepublikanoaren arrakastaren gakoetako bat. Dena den, aitortu du gauza bera gertatzen dela Bidenekin. Akizuren kasuan, Youtuben, esaterako, demokraten aldeko mezuak bakarrik jasotzen ditu, eta esanguratsua dela dio.

Akizuk azaldu duenez, oraingo hauteskundeetan hautagai errepublikanoa tematu egin da korreo bidezko botoari indarra kentzen: "Aspalditik zebilen bidea prestatzen, bazekielako erabakigarriak izango zirela boto horiek". Posta publikoari finantzaketa kendu diola azaldu du, eta, ondorioz, zerbitzuarekin lotutako arazoak areagotu.

Aretxabaletarren ustez, bereziak diren hainbat aldagai dituzte AEBetako hauteskundeek. Kontatu duenez, mezuak iristen zaizkie herriarrei hauteskundeek eragin diezaieketen estresari eta antsietateari aurre egiteko aholkuekin. Psikologoak ere badaude laguntzeko. "Ez dakit aurtengo kontua den edo ni orain arte ez naizen konturatu, baina asko harritu nau", aitortu du.



**NAIARA AKIZU** FILADELFIAN BIZI DEN ARETXABALETARRA

**"Aurtengo hauteskundeak Bidenek erraz irabaziko zituela uste nuen"**

Ia hamar urte daramatza Pennsylvanian Aretxabaletako Naiara Akizuk. Lanera joan zen, 2010eko abenduan, eta AEBetan

Dena den, Kortabarriak igarri du jendeak gero eta argiago daukala zer garrantzitsua den bozkatzea. Gainera, azpimarratu du estatubatuar askok uste dutela oraingoak inoizko hauteskunde garrantzitsuenetakoa izan direla: "Herriarrek ez dute inoiz sentitu euren botoak hainbesteko balioa zuenik".

Estatubatuar hiritartasuna dutenek bakarrik daukate hauteskundeetan bozkatzeko aukera, eta, beraz, Kortabarriak ezin izan du botorik eman. Hala ere, aitortu du asko gustatuko litzaiokeela bozkatzea. "Hauteskundeetako emaitzak eragin zuzena izango du nire bizitzan", azpimarratu du. Gauzak horrela, urduritasunez bizi izan ditu Kortabarriak.

Arrasatearraren nahia da datorren legealdian herriarren beharrak asetzela: "Beharrezkoa



**OIHANA IRIONDO** SANTA MONICAN BIZI DEN OÑATIARRA

**"Errepublikanoek ez dute kanpaina askorik aldatu, aterik ate ibili dira"**

Oihana Iriondo Kaliforniako Santa Monica hirian bizi da, eta Los Angelesen egiten du lan. Hauteskundeetarako kanpaina "oso luzea" izan dela azaldu du oñatiarrak. Izan ere, 2019 hasieran ekin zieten demokratek euren hautagaia aukeratzeko lanei. Ordutik, Iriondok adierazi duenez, hauteskunde giroak ez du etenik izan. Donald Trump presidente denetik propaganda saioak egiten aritu dela gaineratu du Oñatikoak.

Luzea izateaz gain, "arraroa" ere izan da kanpaina, Iriondoren ustetan. Izan ere, COVID-19ak bete-bete harrapatu du. "Errepublikanoek ez dute kanpaina askorik aldatu; aterik ate ibili dira boto emaileak konbentzitu nahian", azaldu du. Demokratek, aldiz, arriskuak gutxitu nahi izan dituztela adierazi du.

Hauteskunde giroari dagokionez, Iriondoren hitzetan, "oso ezberdina" da, zein estatuari erreparatu zaion: "Kalifornian aldaketarako gogo handia dago". Hala ere, aitortu du, orokorrean, estatubatuarrek Trumpek berriz irabazteko beldur direla. Kezka ere badago sortu daitezkeen protesta eta istiluengatik.

Oñatiarrak azaldu duenez, jakina zen lehia estua izango zela hauteskundeetan. Trumpek orain arte egindako biderei jarraituko diola uste du Iriondok. Bidenekin, berriz, aldaketak etor daitezkeela nabari du; besteak beste, koronabirusari eta krisi ekonomikoari aurre egiteko planak, *Obamacare* osasun sistema zabaltzea eta hobetzea, klima aldaketari aurre egiteko programak eta haur pobrezia gutxitzeko estrategiak. Dena den, badaki erabakigarria izango dela Senatuen gehiengo zein alderdik duen: "Hauteskundeak Joe Bidenek irabazita ere, demokratik Senatuan gailendu ezean ez da posible izango aldatetarik egotea".



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

## Euskaldun baten lekukotza

Euskararen prestigioa gainbehera doa, nahiz eta euskaldunok eutsi eta indartzen saiatu, Euskaraldia kasu. Euskaldun elebakarrak gehiengoa zirenetik gaurko egoerara heltzeko izandako pertsekuzioaren adibide modura neure lekukotza aurkeztu nahi nuke.

6 urterekin eskolara lehen aldiz heldu nintzenean ume guztiak euskaldun elebakarrak ginen. Halere, zigorren bidez espainieraz hitz egitera behartzen gintuzten bertan. Zigorretik libratzeko, euskaraz ari zen beste bati pasa behar zitzaion zigor medailoia. Horrek gure arteko elkartasuna apurtu eta barneko ezinegona eta korapiloa sortzen zuen.

Urte asko pasa ziren gazte mugimendu batean korapilo hori askatzen hasi arte. Begiak irekitzean ohartu nintzen eskolako lagunak ez zirela beste gabe elkar zelatatzen edo burla egiten zutenak, baizik eta sistemak horretara

### GURE ARTEKO ELKARTASUNA APURTU ETA BARNEKO EZINEGONA ETA KORAPILOA SORTZEN ZUEN

bultzatzen zituela. Mota guztietako instituzio politiko-juridiko, ekonomiko eta kulturek moldatzen dute sistema. Asko lasaitu nintzen euskalduna nintzela ohartzean, eta euskal komunitatearen kide

kontzientea bihurtu nintzen; jadanik ez nintzen Espainiako gizartearen bigarren mailako eranskin bat. Geroztik saiatu naiz eragotzitako hizkuntza, kultura eta historia ezagutzen, praktikatzen eta zabaltzen, beste batzuekin batera antolatuta.

Jende guztiak ez du izan egoera honetaz jabetzeko aukerarik, besteak beste 1936ko gerrako irabazleek ezarritako sistemak espainiaratasuna inposatzen jarraitzen duelako. Gertaera historikoak eta eguneroko politikaren arrazoia ezkututzen dituzte eta gaur egun euskaldunak gutxiengoa gabela esatera ausartzen dira, gainera.

Azken 60 urteetan aipatzeko moduko hainbat aurrerapen egin dira gizarte mugimenduei esker, baina benetan euskaraz bizi ahal izateko politika publikoak, borondatea eta baliabideak eskasak dira.

Ez al da euskaraz bizi ahal izateko politika burutzeko garaia?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Aubisqueoak

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Telebistako lehiakide konkistatzaile horien espantuak, algarak eta intziri puztuak ikusten ditudanean, edo ibilaldi ziklista gogor bat bukatu duen tipo batek bere argazkiak –ukabila zerura, oinaze keinu epikoa– sareetan argitaratzen dituenean, Frantziako Tourreko irudi oso zahar bat etortzen zait gogora. Firmin Lambot belgikarra ageri da, Aubisqueo hartxintzarrezko bidean oinez, bizikleta arrastaka daramala. Bost ume oso serio begira dauzka bazterretik: bi artzain-mutil eta hiru artzain-

neska dira, hamar-hamabost urte bitartekoak, agian txirrindulari bat lehenengo aldiz ikusten ari direnak. Argazkia 1913koa da, Tourrak Pirinioak laugarren aldiz zeharkatu zituenekoa. Ekaitzek, elurteek eta lur-jausiek astindutako goi-mendi haietan, otso eta hartzen artean, artaldeekin ogibidea ateratzeko beste modurik ez zuten gizakiak bakarrik barneratzen ziren ordura arte. [...]

Pirinioetako errepide garaiak ez zituzten eraiki artzain, egurketari eta mandazainen mesedetan. [...] Eugenia enperatrizarentzat eta bere gortearantzat zabaldu zituzten, udan Miarritzeko

palazioan gehiegi aspertzen zirenean Pirinioetako estazio termalak bisitatzea joan nahi izaten zutelako. Bide zabal, seguru eta erosoak egiteko agindua eman zuen Napoleon III.ak 1860an... [...]

Enperatrizaren ildotik gatz txirrindulariak, eskiatzaileak, txangozaleak. Aberaskumeen turismoaren birbilobak gara, mendia aisialdi eremu bezala erabiltzeko pribilegioa duen gizarte oparo batean jaiotakoak.

Benetako epika nahigabekoa izaten da, Aubisqueo elurretan ardiak biltzen zituzten ume haiena bezalakoa, eta ez genduke ahaztu behar: gu jolasean ari gara.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05

#### publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Arebaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Gailuetan eta sentsoreetan ekarriko du aldaketa 5G-k"

JESUS LIZARRAGA MU-KO TELEMATIKA SAILEKO KOORDINATZAILEA

**Oihana Elortza** ARRASATE

Orain arte ezinezkoak ziren haririk gabeko komunikazioen erabilera ekarriko du 5G teknologiak, besteak beste. Jesus Lizarragak azaldu du beste zer onura ekarriko dituen. **Zenbatean behin gertatzen dira aldaketa teknologikoak?**

Hamar urtera izaten dira, gutxi gorabehera. 1G teknologia 1980an sortu zen eta 5G 2020an etorri da. Tartean izan dira: 2G 1990ean, 3G 2000n eta 4G 2010ean. Hasita daude 2030ean etorriko den 6G definitzen eta garatzen.

**Zertan igarriko dugu 4G eta 5G arteko aldaketa?**

Lau gauza hauetan, batez ere: abiadura hamar edo hogeit aldiz handiagoa izango da; komunikazioan dagoen berandutzea egungoa baino askoz txikiagoa izango da. Egun ezinezkoak diren funtzio batzuetan ezinbestekoa izango da hau; adibidez, urruneko sistemetan, denbora



Jesus Lizarraga, Eskola Politeknikoko irakaslea. J.L.

errealean, elkar eragina posible izateko. Esaterako, zirujau batek operazio bat distantziara egitea edo ibilgailu baten kontrola distantziatik eramatea. Hirugarrenik, dispositiboen,

gailuen, dentsitatea ere handiagoa izango da –milioi batekoa kilometro karratuko–, eta honek esan gura du kobertura hobea izango dela; hau da, ez gara estaldurarik gabe geldituko

makrokonzertu batean. Berez, honek lagunduko du Gauzen Interneten sentsoreak eta gailuak hedatzen. Eta laugarrena da kontsumo energetikoa txikiagoa izango dela. Telefono mugikorrendako abantaila izango da hau, baina batez ere aipatutako "gauzen internerako", gailuen bateriak denbora luzez iraungo dute.

**Zer da Gauzen Internet?**

Barruan ordenagailuak dituzten gailuak dira. Ordenagailu horri esker, kalkulurako, datuen bilketarako edo Internet bidezko komunikazioa izateko ahalmena dute gailu horiek. Esaterako, izan daiteke eraikin baten temperatura kontrolatzen duen termostato bat, bideozaintza egiten duen kamera bat, airearen kalitatea neurtzen duen sentsore bat edo su detektatzaile bat.

**Zer egin dezakegu teknologia horrekin herritarrok? Eta enpresek?**

Gure telefono mugikorrean ez dugu aparteko aldaketarik sumatuko. Aldaketa ikusiko dugu sentsoreetan eta Gauzen Interneten. Etengabe datuak biltzen egongo diren sentsoreak izango ditugu enpresetan, hirietan, ibilgailuetan... Datu horiek

azkar iritsiko zaizkigu eta prozesu industrialak edo gure bizi kalitatea hobetzen lagunduko digute. Aukerak asko dira eta datozen urteetan ikusiko ditugu.

**Seguruagoa izango da? Zergatik?**

Segurtasun hobea izango du, baina ez du esan nahi %100ean izango denik. Fidagarritasun handiagoa ere izango du.

**Zein puntutan dago orain?**

Teknologia garatuta dago eta hedatze fasean gaude. Gaur egun, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko gune batzuetara iritsi da, baina bi urtean zabalduko eta orokortuko da erabilera.

**Ondorio larriak ekarriko dituela diote ahots kritikoeak. Zer diozu?**

Teoria konspiratzaileak badaude, baina 20 urte baino gehiago daramatzagu entzuten wifia osasunarendako dituen arriskuez, eta oraindik ez du osasun azterketa bakar batek ere demostratu arriskutsua denik.

**Mehatxua da komunikazio sarea?**

Ez. Mehatxua pertsonen, erakundeek edo enpresek eman gura dioten erabileran dago; ahaztu egiten zaizkigu komunikazio sareari esker egun ditugu abantailak. Inprenta sortu zenean ere izugarriko mehatxua ikusten zuten askok.

## ITURRI ONETIK

## Telesforo Aranzadiri omenaldia

Telesforo Aranzadi bergararra, Euskal Herriko antropologiaren eta arkeologia zientifikoaren aitzindaria, omenduko dute Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Bergarako Udalak, haren heriotzaren 75. urteurrenean. Azaroaren 26an izango da, Seminarixoa aretoan, 18:30ean. Ekitaldian, Pako Etxeberria, Alvaro Arrizabalaga eta Fermin Leizaola izango dira hizlari. "Zientzia eta ikerketa bultzatu zuen belaunaldi bikain baten ordezkaria izan zen", diote antolatzaileek.

## ALBISTE IZAN ZEN



2014-11-01

## Txirrindulari onenak Gorlaren 40. urteurrenean

Julian Gorospe, Pello Ruiz Cabestany, Mikel Landa, Xabier Lazpiur... Gorlako Txirrindulari Igoera irabazitakoak denak. Horiek eta beste hainbat txirrindulari –Mikel Nieve, Jon Odriozola– eta txirrindulari ohi batu ziren Bergaran, Gorlako Igoeraren 40. edizioan. Udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete egin zen Arrixtu Iribar kazetariak aurkeztutako ekitaldian. Gorlako Igoeraren gaineko erakusketa ere ireki zuten.

## HAU BE BADOGU!

## Trumpen eta Bidenen arteko lehia hizpide

AEBetako hauteskundeak izan dituzte beragai sare sozialetako erabiltzaileek:

@izar59201: "Txio-herrian, antza, Trump eta Biden berdin-berdinak dira, eta ez dut esango oso desberdinak direnik, baina nire inguruko guztiek nahi dute Bidenek irabaztea; eta gehienak Bildu edo EAJko boz-emaileak dira".

@reparazz: "Azken 24 orduak gogorak izan dira, baina ongi pasa digula ere aitortu behar da".

@amaia\_uribe: "Tentsioa eta ziurgabetasuna ez dira baretu, eta datozen egunotan erabakiko da AEBen etorkizuna".



D2030: IRITZIA

IBON ANTERO / MONDRAGONEKO ERALDAKETA SOZIALERAKO EKINTZEN KOORDINATZAILEA

# Eraldaketa garaia da, baita lan munduan ere

Lanaren etorkizuna eta etorkizuneko lanaren inguruan arreta eta hausnarketa ugari dabil azken urteotan. Eraldaketa sakonak izaten ari da jada lan mundua –etorkizuna "orain" da– eta nabarmen azkartzen ari dira, gainera: kontsumitzaileak produktu jasagarriak eskatzen ari dira; lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka berria bilatzen duten gero eta ahots gehiago daude; gobernuak karbono-jarduera handien gaineko zergak ezartzen ari dira; teknologiak eta digitalizazioak hainbat aldaketa ekarri dituzte negozio-ereduetan, produktuetan eta zerbitzuetan, eta, horrez gain, gizarte digitalaren berme demokratikoa zalantzan jarri dute; hainbat hiri eta eskualde karbono neutro bilakatzeko programa zabalak garatzen ari dira; eta hauen guztiei aurre hartu dien COVID-19 pandemiaren testuinguruan, Europako Komisioak European Green Deal estrategia berretsi eta indartu egin du.

Hamarkada berriarekin batera aro berri bat hasi dugu. Askotariko trantsizioen garaian gaude, baina trantsizio hauek inpotentzia, beldurra eta segurtasunik eza eragiten dute lan munduan, baldin eta teknologia berrien eta deskarbonizazioaren mehatxupearan dauden lanak egiten dituzten pertsonen eta komunitateek ez badute euren buruarentzat etorkizuna ikusten. Eraldaketa hauen guztien aurrean, gainera, jarrera erreaktiboa gailentzen da sarri. Arretagunea aldatuko bagenu, ordea, perspektiba aldatu egingo litzateke, seguruenik: nolakoa izango litzateke lana etorkizunean guk geuk zehaztu ahal izango bagenu?

## Debagoienetik ekinez

Jakingo duzuen moduan, Debagoiena 2030 ekimena


aurkeztu berri da azken hilabetean, eskualdean izaera askotariko eraldaketak sustatzeko bokaziotik sortutako ekimena. Erronka konplexuei erantzunak garapen komunitariotik bilatu nahi dituena. Erronka sakon eta konplexu horietako bat lana bera da, eskualde berezi honetako azken zazpi hamarkadetan, pertsonaren eta komunitatearen garapenaren ardatz nagusi izan dena, bere eraldaketa prozesuaren muinean egon dena.

"Izaki bizidun orok, zer aldatu nahi duen galdetu aurretik, zer gorde nahi duen galdetu behar dio bere buruari", zioen Humberto Maturana biologo eta filosofoak. Hauxe da abiapunturako gakoetako bat, lanak gure gizartean izan duen balioa eta zentzua. Etorkizuneko lana sortzeko gaitasun kolektiboa eraikitzen jarraituko badugu, lanak pertsona eta komunitatea eraldatzen jarraitu beharko du. Aro berri honek horretan sakontzeko aukera eta erronka ekarri dizkigu.

## Trantsizio askotarikoak

Aurrean ditugun eraldaketa erronkak, ordea, ez dira makalak. Trantsizio anitzak eta konplexuak dira aurrean ditugunak: esaterako, irabazi tarte gutxiko negozio helduetatik, etorkizuna bermatuko duten eta mundu mailan lehiakorrek izango diren produktu, zerbitzu eta sektore berrietara trantsizioa; edo, eredu lineal eta ez jasagarrietatik, energia berriztagarri, prozesu industrial eraginkor eta eredu zirkularrean oinarritutako

**BIZI DITUGUN ERALDAKETA GUZTIEN AURREAN JARRERA ERREAKTIBOA GAILENTZEN DA SARRI**



SHUTTERSTOCK / GMK

lan aukera berrietara igaro beharra; bizitza osorako lanpostu industrial tradizioetatik, azkar aldatu, teknologiak indartutako eta inpaktu handiagoko eragingo duten balio erantsi altuko lanetara; formakuntza prozesu erreaktibo, formal eta luzeetatik, pertsona bakoitzaren erantzukizun aktiboa izango duen etengabeko prestakuntza praktiko, labur eta sarrietara; lanpostu bat bermatzea bideratutako birkokapenetik, epe luzerako pertsonen enplegarritasuna bermatu eta lan trantsizioak azkartuko dituen orientazio eta finantzaziora.

Oraingo negozio eta lanpostu askoren eraldaketa eta berrien sorrera ekarriko dute disrupzio hauek, oraingo lana eraldatuz eta berria sortuz. Horretarako, epe luze edo ertaineko ikerketa eta transferentzia lantzeko soilik ez, baina, batez ere, epe motzean produktu eta zerbitzu berriak azkar merkaturatzeko eta aldaketak azkartzeko

**ESPERIMENTAZIO SISTEMAK ERAIKI ETA ARRISKU BERRIETARA IREKIAK EGON BEHARKO DUGU**

indartu beharko dugu sarea, esperimentaziorako sistemak eraiki eta arrisku berrietara irekiak egon.

## Etengabeko prestakuntzara

Pertsonen etengabeko prestakuntza eta birkualifikazioa areagotu beharko da, gaur egun lanpostu askok dituzten eraldaketak, lanpostuak berak eskatzen duen ikasteko abiadura baino handiagoa baitira. Paradoxa bat da, krisi demografikoa medio, langileen batez besteko adina etengabe gorantz doan bitartean, gero eta azkarrago eta sarriago ikasi beharrean gaude.

Baina garaiko erronketara egokitutako antolaketa-eredua duten enpresa kooperatiba berrituek bertara talentua erakartzeko aukerak ere irekiko dituzte eta erakargarri egingo dira hiriguneetan gero eta kontzentratuagoa dagoen talentudun gaztearentzat.

## Birsortu eta egokitu

Aukera, beraz, ez da egiten ari garena jarraitzea ala etetea, baizik eta, berandu

**ENPRESA ETA KOOPERATIBA BERRITUEK TALENTUA ERAKARTZEKO AUKERAK DITUZTE**

baino lehen, eraldaketa hauek guztiak kontuan izango dituen trantsizioaren kudeaketa aurreratu eta azkartzea.

Horretan hasteko erantzukizuna dugu orain, lanean ari direnentzat, bila dabilentzat eta lan munduan sartzeko prestatzen ari direnentzat. Hamar urtean egon ez daitezkeen lanpostuetan dauden pertsonentzat; eskolatik eta unibertsitatetik lan adimentsu, jasagarri eta orekatu batean hasi nahi duten gazteentzat; elikadura, energia, mugikortasun, hezkuntza eta ekonomia sistema iraunkorrak eta jasagarriak nahi dituzten komunitateentzat.

Berriro ere, aurrerapausoa eman beharrean gaude, "birsortu eta egokitu", Arizmendiarrietak esango lukeen moduan. Proiektu ilusionagarria erditzeko, XXI. mendeak ekarri dizkigun erronka eta balio berrien aurrean Arrasateko Kooperatiba Esperientzia berrinterpretatzeko. Elkartasuna eta lankidetzaren oinarri berdinetan, lehiakorrek eta kooperatiboak, iraunkorrak eta jasagarriak, adimentsuak eta gizatiarrak, lokalak eta globalak, izango diren enpresa kooperatiboei bultzada berri bat emateko.



## HANDIK ETA HEMENDIK

**Euskara hibridoa****NORA ARBELBIDE LETE**[HTTPS://LABUR.EUS/NPLX](https://labur.eus/nplx)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Gure familian aipatzen den istoriotxo bat da. Uharte Garazitik Bergarara joaten ginelarik, hau da, gure bizitokitik gure amaren aldekoen etxera, autoko atea itxi bezain laster, bergarrez hasten omen ginen ahizpen artean. Bergararik Uharte Garazirako bidea hartzean, berriz, autoan sartu eta, alderantziz, garaztarrez edo.

"Edo" hori diot, nik dakidala Garaziko euskalkia ez baitut nehoiz menperatu. Garaziko euskalkia xuka deitzen den hori bada, hasteko, *x* hori ez dut nehoiz lortu behar den bezala ahoskatzen. Belarrian ez dut arrotz, goxotasun bat sentitzen nuen eta sentitzen dut entzutean, baina ez da nirea.

Eta berdin-berdin, orenen buru, Bergarako euskararekin. Amak gure etxean, Garazin, batuaren hautua egin zuen. Entzuten nituelarik telefonoz bere ahizparekin bergarrez noka mintzo, inbidia sentitzen nuen, ederra zen. Baina ez zen nirea. Orduan ez dakit zein zen autoko Bergarako euskara hori, egia erran. Ez dut batere gogoan garai hori.

Dakidana da halako batean autoko bidaia horien istoriotxo hori bururatu zela. Itxuraz, denborarekin, nire burbuilaren eta ahoskeraren arteko konexioak zailtzen hasi ziren. Gogoan dut nola egun batez, Bergaran ginela familian, *goRRRRia* hitza atera zitzaidan. *R frantsesarekin*. Eta hor lehengusuak trufan: "Esan berriz! Esan berriz!". Sentitu nuen bazela problema bat baina ezin hitzak jarri.

Urteak aitzinatu arau, *R frantses* hori aldarrikapen egin

nuen. Edozein gisaz ezin nuen egin bestela. Gure R-a frantsesa bada, zuena espainola eta zuenak bezainbat balio du, eta horrelakoak. Baina beste sentimendu bat zegoen ere hor barnean. Sustrai nahasiak zituen euskara horrek, ez nintzela nehon zilegi. Zeren, aldi berean, nire joskera ez zen ere *hain euskara ederra duten iparraldeko horiena*. Baina bizkitartean, ezin aipatu gabe utzi, eskuzabaltasun anitz ere aurkitu ahal izan dut bidean. Orain saiatzen naizena partekatzen. Batua uste baino zabalagoa delako. Euskalkien auzi horretan, nire euskara hibridoa aldarrikapen bihurtu dut.

**Txokoan****ANDONI EGAÑA**[HTTPS://LABUR.EUS/V3QGM](https://labur.eus/v3qgm)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Robinson Crusoe da akaso adibiderik ezagunena.

Gertaerek –itsas-denborale baten ondorioz kide guztiak hilko dira eta Orinoko ibaia itsasoratzen den lekutik hurbil dagoen irla batean emango ditu hogeita zortzi urte– egoera guztiz berriaren aurrean ipiniko dute, eta bere egokitze gaitasuna zorroztu beharko du onik atera ahal izateko.

Daniel Defoek berea idatzi eta hirurehun urtera idatzi zuen Santiago Lorenzo portugaletarrak *Los asquerosos* eleberria.

Protagonistak, Poliziarekin izandako tupustaldi batean gertaturikoaren ondorioen beldur, iheslari hasieran, Gaztelako herri txiki eta hustu batean hartuko du babes.

Bakarrrik eta mundutik isolatua bizi da han.

Eta gustua hartuko dio bakardadeari, isolamenduari, bizimodu hari...

Derrigorrak bakartu eta gero egoerari gustua hartu diotenen istorioak ez dira gutxi.

Ez dut ukatuko hertsiduraren baitan ere askatasuna behar dela beti, ez baitut presorik ezagutzen derrigortuta eraman eta barruan egoteari atsegirik topatu dionik.

Halere, izan daiteke datozen hilabeteetarako ikasgai polita.

Bizialdia ematen dugu munduan txoko bat aurkitu nahirik.

Orain, hori ezinezkoa denean, juxtu kontrakoa egiten ahalegintzeko sasoian gaude: txokoan mundu bat aurkitu, bakoitzak bere neurrikoa.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Astlehenean egin zuten prentsa agerraldia EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek, Emakume Txokoaren aurrealdean. IMANOL BELOKI

## "Gobernuak Berdintasun Saila diskriminatzen du"

Udaleko Berdintasun Sailak Udal Gobernuaren aldetik "diskriminazio tratua" jasaten duela salatu dute EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek: "Azken bost urteotan sailari eman zaion pisua kualitatiboki erori da, abandonu egoeran ikusten dugu"

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Oposizioak dioenez, hamarkadetan zehar Arrasate aitzindari izan da Euskal Herri mailan berdintasun politiketan. "Horri eustea izan da oposizioko alderdion helburua, baina azkeneko bost urteotan PNVren eta PSOEren tandem agintean dagoenetik arloari eman zaion pisua kualitatiboki erori da", adierazi

du Maider Morrasede, EH Bilduko bozeramaileak. "Udalbatzan aho batez onartu izan ditugun hainbat konpromiso paper errean geratuz joan dira, eta berdintasun eta feminismo politiketan abangoardian egon izan den departamentua abandonu egoeran ikusten dugu egun", diote. Horren "adibide garbitzat" daukate Emakume Txokoaren

kokapena. "Herriko puntu ilun arriskutsu batean jarraitzen du, Udal Gobernuak arazo horri konponbidea emateko erakusten duen benetako borondate faltaren erruz", azaldu du Morrasede.

### Leku berean jarraitzen du

Azpimarratu dutenez, duela bi agintaldi Udalaren Segurtasun Kontseiluak obra proiektu bat

egin zuen zerbitzuaren "kokapen arriskutsuari" konponbidea emateko, zerbitzura sartzeko pasabide bat irekiz. "Oinarri-oinarrikoa eta egiteko erraza bezain merkea. Baina duela bost urte, PNVk eta PSOEek uko egin zioten proiektu hori aurrera eramateari, Gobernura iritsi orduko. Ezezko hori justifikatze aldera, zerbitzua lekuz aldatzeko borondatea adierazi zuten eta oposizioko alderdiok zein zerbitzuko langileek eta erabiltzaileek gogo onez hartu genuen proposamen hori", diote.

Halere, salatu dutenez, ez da aurrerapausorik egon: "Udal Gobernuarentzat ez da sekula lehenetsuneko arazo bat izan Emakume Txokoari kokapen duin eta seguru bat ematea".

### Gelmara lekualdatzeari buruz

2020ko aurrekontuan, azaldu dutenez, Emakume Txokoari kokapen berri bat emateko partida bat sortu zuten. "Halere, gaiari eman zaion trataera lotsagarria izan da. Udal Gobernuak akordioa egin du Eusko Jaurlaritzarekin Lanbide Gelma eraikinera lekualdatzeko. Garbi utzi gura dugu ez oposizioko alderdiok ez zerbitzuko langileek ez dugula inoiz Emakume Txokoa Gelman kokatzeko Lanbiderekin egindako akordioa bertan behera uzteko eskatu. Soilik, lekualdatuz gero, baldintza duinetan izatea eskatzen dugu. Lanbiderekin adostutakoa berrikustea eskatu genuen, eraikinaren lehen solairua bi zerbitzuren artean partekatu ahal izateko aukera teknikoki aztertu zedin. Halere, Berdintasun batzordean gestio horiek egiteko erabakia hartu zen aste berean, alkateak eraikinaren behe solairu osoa Lanbideri uzteko

hitzarmena sinatu zuen, langile eta oposizioari ezer esan gabe eta batzordean aho batez adostutakoari muzin eginez".

### Emakumeen erretratuak, noiz?

Bestalde, adierazi dute oraindik zain daudela osoko bilkuren aretoan emakumezkoen erretratuak jartzeko -2018ko urrian onartu zuten hori, aho batez-. "Zain aurrekontuetan generoak daukan inpaktua lantzeko; herriko hirigintza genero ikuspegiz garatuko duen plan integral bat izateko eta biolentzia matxisten aurkako plana eta protokolo berriak onartzeko, bost urte baitaramatza iraungita".

### Osoko bilkuran, mozioa

Diote "testuinguru horretan" iritsiko direla azaroaren 25era, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunera. Horren harira, gainera, mozio bat aurkeztekoak ziren atzoko osoko bilkuran, martitzenekoa bertan behera geratu ostean -beheko albistean informazio gehiago-. Mozioaren bidez, hainbat eskaera egitekoak ziren Gobernuari, aurrekontua genero ikuspegiz lantzeko azterketa bat egitea, esaterako.

### Udal Gobernuak, baloraziorik ez

Udal Gobernuari erantzuteko aukera emanda, azaldu du ez dituela oposizioaren prentsaurrekoak eta iritziak baloratzen. "Berdintasun batzordean aztertzen eta lantzen dira batzorde horri dagozkion gaiak".

## UDAL GOBERNUAK DIO OPOSIZIOAREN IRITZI ETA PRENTSA AGERRALDIAK EZ DITUELA BALORATZEN

## Enpresa Komiteak ere hainbat eskaera egin ditu

Atzo, eguna, prentsa agerraldia egin zuen Arrasateko Udaleko Enpresa Komiteak ere, eta Emakume Txokoaren segurtasunik eza salatu zuten, aurrez EH Bildu eta Elkarrekin Arrasate udal taldeek egin moduan. "2014tik datorren behar bat da, eta segurtasun arazoa eta lekualdatzea guztiok partekatzen dugun gai bat da. Orditik hainbat aukera aztertu dira, baina arrazoi teknikoengatik edo zerbitzuaren beharrei erantzun egokia emateko ezintasunagatik, mahai gainean zeuden

aukerak alboratu egin dira", azaldu dute Enpresa Komiteko kideek.

Era berean, nabarmendu dute prentsa bidez jakin zutela Udal Gobernuak Lanbiderekin adostutakoaren berri. "2020ko otsailean, Gelmako eraikina udal erabilerarako libre geratu zela ikusita, Berdintasun Sailak lokal horretara lekualdatzeko aukera proposatu zuen eta Udal Gobernuak aztertzekeo prestutasuna erakutsi zuen. Orditik, baina, gaia luzatzen joan da, eta itxialdian prentsan irakurrita

jakin genuen Lanbiderekin hitzarmena egitekotan zela Udal Gobernuak. Azalpenak eskatuta, irailean erantzun zitzaion Berdintasun Sailari abuztuaren 10ean sinatua zegoela hitzarmena Lanbiderekin".

Hori dela eta, atzoko prentsaurrekoa baliatu zuten Udal Gobernuari hainbat eskaera egiteko. Alde batetik, erantzun bat eman diezaiola langileen segurtasun arazoari. Azpimarratu dutenez, "Udalaren ardura" da "bere langileek lana segurtasunez egin ahal izateko baliabideak bermatzea". Bestetik, Gelmako proiektua berraztertzea eta Arrasateko Udaleko sail

ezberdinek dauzkaten espazio beharrei erantzun bat ematea exijitu dute. "Eraikin osoaren erabileraren azterketa tekniko integrala egitea eskatzen dugu. Gelma moduko eraikin bat ezin da hipotekatu hitzarmen bategatik. Inondik inora ez dugu esaten Lanbideren zerbitzua ezin dela Gelman egon, baizik eta udal zerbitzuek ere bertan baldintza beretan egoteko eskubidea dutela. Eta ikusita Emakume Txokoak dituen beharrak urgenteak eta oinarrikoak direla, Berdintasun Sailak egiten duen eskaera kontuan izatea eskatzen dugu", gaineratu dute.

# Udalak irmoki gaitzetsi ditu zapatuko ekintzak

Aurreko zapatu gauean, pertsona talde batek edukiontzia erre zituen Arrasate erdiguneko bost puntutan, eta hainbat kalte material eragin zituen; Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen, baina domeka goizean karguekin aske utzi zituen epaileak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Urriaren 31 gauean, pertsona talde batek hainbat edukiontzi erre zituen Arrasate erdiguneko bost puntutan, eta kalte materialak eragin. Suhiltzaileak, Udaltzaingoa eta Ertzaintza gerturatu ziren, eta hiru pertsona atxilotu zituzten, gertakari-ekin lotura izan zezaketelakoan. Halere, domeka goizean epaileak karguekin aske utzi zituen.

Atxilotuak 21, 26 eta 29 urteko gazteak dira, Arrasaten dute bizitokia eta Ertzaintzak adierazi du ez dutela bandalismoarekin lotutako aurrekaririk. Ikerketak zabalik jarraitzen du oraindik, eta zenbaitek, esaterako Sare Antifaxistak, Arrasaten eta beste hainbat tokitan izandako istiluak negazionistekin eta eskuin muturreko taldeekin lotura dutela salatu arren, Ertzaintzak ez du halakorik baieztatu; ezta istiluen aurretik sare sozialen bitartez deialdia egin eta elkartzekoak zirenik ere. Gaineratu dute gertatutakoa ikertzen jarraitzen dutela eta, oraingoz, ez dagoela berririk.

**Udalak ekintzak salatu ditu**

Arrasateko Udalak "irmoki salatu eta gaitzetsi" ditu zapatu gaueko "delituzko ekintzak". Era berean, edukiontziak erretzen jardundako taldearekin lotu ditu ordu inguru hartan Otalora Lizentziaduna kalean eta Zerrajeran izandako bi auto-istripuak.

Modu horretan, bi puntu nabarmendu gura izan ditu. "Batetik, 22:30 eta 00:30 bitartean izandako gertakarien ondorioz, antolatutako talde batek hiru zabor edukiontzi erre eta bi auto istripu eragin zituzten. Kalteturik beste hiru auto gehiago geratu ziren. Bestetik, gertakari-ekin erlazioatuta hiru atxilotu eta bost pertsona identifikatu ziren, azken hauetatik ustezko bi auto istripuetako gidariak. Udaltzaingoa dioenez, herrita-



Zapatuan erre zuten edukiontzietako bat. GOIENA

rren aldetik jasotako kolaborazioa eta deiak lagungarriak izan ziren gertakariengatik inguruko informazioa biltzeko orduan".

Hala, Udaltzaingoa lanari eta erantzun azkarrari balioa eman, eta eskertu nahi izan du, eta herritarrentzako esker oneko hitzak izan ditu alkateak, "zapatu gauean Udaltzainei eskaintako laguntzagatik eta, oro har, pandemiaren aurrean izaten ari diren jarreragatik".

Alderdi sozialistak ere zapatu gaueko gertaerak salatu ditu asteon, ohar bidez. Victor Fuen-

tes bozeramaileak nabarmendu du ekintza "larriak" eta "lotsagarriak" izan zirela. "Guztiz ulertezina da bizi ditugun garai hauetan halako ekintzak egitea".

**Astelehenean, beste sute bat**

Astelehenean ilunkeran, bestalde, edukiontzi batean sua piztu zen, eta, guztira, hiru edukiontzi kaltetu zituen suak, Musakolako Bidekurtzeta kalean, Larrialdi zerbitzuetako kideak bertaratu egin ziren, baina, Ertzaintzak jakinarazi zuenez, ez zen inolako istilurik egon.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Niaren erailketa

Lehenengo, ni. Gero, ni. Ostean, ni. Ondoren, berriz ni. Geroago, ni. Jarraitzeko, ni. Hurrengo, ni. Batetik, ni. Bestetik, ni. Era berean, ni. Lehen, ni. Orain, ni. Bestela esanda, ni. Honenbestez, ni. Orobat, ni. Beraz, ni. Ondorioz, ni. Badaezpada, ni. Argi ez baldin bada geratu jadanik, ni, ni, ni eta berriz ni.

Munduaren hermeneutika neoliberal ederra saldu digute, eta preziorik altuenean erosi dugu nahi gabe, Paretoen optimo horretatik kilometrotara dagoen salneurrian. Subjektu epistemologiko eredugarria ispiluaurrean dugun hori da: Ni nirekoa. NIMBak (Not In My Backyard) bihurtu gara, liberalismoaren erakusle gorenak.

Badirudi nazioarteko harremanak erregulatzen dituen maximaren barruan hasi garela ulertzen giza harremanak: ez esku hartzeko printzipioaren arabera. Ba, apur dezagun zuzenbide interpersonalaren maxima eta has dezagun gerra. Hauts dezagun nia eta luzatu dezagun babestu beharreko lurraldea ni horretatik kolektibora. Historiak erakutsi duen moduan, niak ez du balio, gua behar dugu irabazteko.

## Elkarretaratzea deitu du Sortuk, 'Lehenik herria!' lelopean

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, egingo dute mobilizazioa, 19:00etan hasita. "Arrasateko Sortutik gogor salatzen dugu eskuin muturrak krisi sanitario, ekonomiko eta sozial hau baliatu nahi izatea bere agenda erreazionarioa indartzeko, diskurtso ustez antiautoritario eta inkonformistaz mozorrotuta". Horrez gain, zera diote: "Azken hamarkadetan interes eta negozio pribatuak lehenetsi dituzte; ez dituzte egin beharreko inbertsio publikoak egin eta deseskalatzea behar baino azkarrago egin zen".

Hori dela eta, eskuin muturrari bizkarra eman eta inbertsio publikoen alde mobilizatzea deitu du Sortuk.

## 48 ordu atzeratu dute osoko bilkura, arazo teknikoak direla eta

Osoko bilkura telematikoa ziren egitekoak martitzenean, lehen aldiz, baina arazo teknikoak izan zituzten. Hiru ordu laurdeneko atzerapenarekin hasi zuten saioa, eta, hasi eta berehala, Mainer Morras EH Bilduko bozeramaileak eta Igor Urizar Elkarrekin Arrasatekoak saioa bertan behera uzteko eskatu zuten. Udal Gobernuak, lehen aldia izanik, prestutasuna eskatu zieten oposizioko kideei, baina azkenean bertan behera uzteko erabakia hartu zuten. Barne araudia jarraituz, 48 ordu atzeratu zuten bilkura. Hala, atzo 18:00etan egitekoak ziren, astekari honen itxiera ordutik kanpo (Ikus *Goiena.eus*).




Atariak	Tabernak
Bulegoak	Kristalak
Etxebizitzak	Fatxadak
Elkarte gastronomikoak	Teilatu-hodiak

**686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena**



*Euskal Herria hobetzeko prest?*



**OROTARIKO ZERBITZUA · 100 €-tik / hileko**  
Arrunta 70€-tik / hileko

📍 Garaia Berrikuntza Gunea · 20.500 Arrasate    ☎ 943 903 450  
✉ info@bertako.eus    🌐 www.bertako.eus

# Errugbilari gazte bi, "pozik eta gogotsu"

16 urtez azpiko kategorian aritzen diren Ane Uribarren eta Morgana Via arrasatearrek Espainiako Errugbi Federazioaren deia jaso dute, aurtengo denboraldian Euskadiko akademian aritzeko. Entrenamendu espezifikoak egingo dituzte Donostian

**Hasier Larrea** ARRASATE

"Harrituta" azaldu dira Ane Uribarren eta Morgana Via Arrasate Rugby Taldeko jokalariek, Espainiako Federazioarengandik entrenamendu espezifikoak egiteko gonbidapena jaso ostean. Bi gazteek denboraldi honetan Euskadiko akademiara joateko gonbidapena jaso dute, euren trebakuntzan sakondu eta maila oneko neska errugbilarietara aritzeko.

Viaren esanetan, "espero gabeko albistea izan da; are gutxiago, azken hilabete hauetan lehiatu barik egon garelako". Uribarrenek ere antzeko gogoeta egin du: "Ez nuen pentsatuko komunikabideetan agertuko ginenik; jendeak zorion mezu pila bidali dizkit".

**Erabat eskertuta**

Klubeko kideei esker ona adierazi diete biek ala biek: "ARTk hasieratik zabaldu dizkigu ateak, eta gustura sentitu gara talde mistoarekin entrenatzen eta jokatzeko". Joan den denboraldiko prestatzaileez ere gogoratu dira: "Asko lagundu digute hobetzen, seriotasuna ekarri dute taldera, eta partidetan nabarmen igarri da hori".

Julen Barrutia kirol zuzendariak ere begi onez hartu du albistea, "beti ikasteko prest dauden proiektzio handiko bi jokalariek" direla azpimarratuz. Unai Suinaga entrenatzailea ere ildo beretik mintzo da: "Morganak hiru laurdenetan jokatzeko du, jokalariek bizkorra eta langilea da, eta, era berean, gogorra; Ane, berriz, lehen lerroan aritzen da, beti ikasteko prest dagoen horietakoa da. Indarra da, gainera, bere bertuteetako bat".

**Entrenatzeko ilusioz gainezka**

Lan-saioek oraindik datarik ez duten arren, euren kabuz egiteko ariketak bidali dizkiete, momentuz, arrasatearrei. COVID-



Morgana Via, goian ezkerretik hirugarrena, eta Ane Uribarren, beheko lehena.

## EUSKADIKO ERRUGBI AKADEMIAN EGINGO DITUZTE LAN-SAIOAK VIAK ETA URIBARRENEK

19ak ekarritako gizarte-egoera hobetzen denean edukiko dute inguruko herrietako taldekide berriak ezagutzeko aukera. Horietako batzuen berri ere badaukate jadanik. "Hernanik eta Mutrikuko errugbilari batzuekin topo egingo dugula badakigu, Gipuzkoako selekzioetik elkar ezagutzen dugu eta", adierazi du Uribarrenek.

Biak batera hautatuak izatea ere lagungarria dela aipatu dute gazteek: "Bakarrik joatea baino askoz hobea da bion aldeko apustua egin izana; elkarren babesa edukiko dugu erronkari konfiantza gehiagorekin aurrera egiteko".

**Norberaren ibilbidea**

Ane Uribarren 12 urterekin hasi zen herriko taldean errugbia praktikatzeko; Morgana Via, aldiz, iazko irailean. "Urtebetean

sekulako hobekuntza igarri dut. ARTn sartu nintzenez lehiatzen hasiak ziren nire taldekideak, eta horrek pilak jartzera behartu ninduen. Irailean ez nuen sinetsiko urtebeteren buruan orain daukadan maila erdietsiko nuenik", dio berak.

Ane Uribarrenek beste kirol batzuk probatu zituen errugbian hasi aurretik, saskibaloia eta boleibola, besteak beste, baina praktikatu ahala geroz eta konbentzituago egon da zein den benetan maite duen kirola: "Errugbia ez da munduko kirolik ezagunena, baina benetan merezi du probatzea. Postu askotatik pasatzeko aukera ematen dizu, zeure burua non hobeto aurkituko jakite aldera".

**Garaiezinak iaz**

2018-2019 denboraldian maila handiko taldeekin lehiatu zen Arrasate Rugby Taldeko 16 urtez azpiko taldea. Sailkapeneko behaldeen amaitu zuen, Ordizia, Hernani eta halako entitate indartsuekin lehiatu baitzen. Iaz, ordea, liga apalagoan aritu ziren, eta denboraldiak iraun zuen bitartean ez zuten neurketarik bakar bat ere galdu.

## Arizmendiarieta Fundazioak egitarau mardula antolatu du

Dokumental euskaratua, mahai inguruak, ponentzia telematikoak eta sariak aurkeztuko dituzte azaroan

**H.L. ARRASATE**

Azaroaren 29an Jose Mari Arizmendiarietaren heriotzaren 44. urteurrena beteko dela eta, azaro osoan ekimen ugari aterako ditu aurrera Arizmendiarieta Fundazioak.

Urri amaierarako, XXI. mendeko Arizmendiarietak zituen ideien inguruko liburua idatzi zuten Fundazioko kideek, bertsio kooperatibo eta elizkoian. Lan hori argitaratua izateko prest baldin badago ere, gizarte-egoerak hobera egiteko itzarongo dute publikoari aurkezteko.

Hil honetan egingo dituzten ekimenak honako hauek izango dira: Arizmendiarieta Sarien banaketa, enpresen modelo inklusibo eta parte-hartzaileen inguruko ponentzia telematikoak eta meza bereziak. Arrasateko San Juan parrokiaren izango da Arizmendiarietaren omenezko

meza horietako bat, azaroaren 22an, 12:00etan hasita.

**Dokumentala Goiena telebistan**

Arizmendiarietaren bizitza eta ideiei buruzko ikus-entzunezko bat emitituko du Goiena telebistak hil honen amaieran, eta Arrasateko kooperatiben sortzailea hipside izango duen mahai inguru egingo dute Arizmendiarieta bera ezagutu zuten eta kooperatibismoaren munduan murgilduta dauden zenbait pertsona esanguratsuk.

Gaztelaraz argitaratu zuten dokumental originala, eta euskarara eta ingelesera bikoiztu dute orain. "EITBrekin eta Goienarekin jarri ginen harremanetan, euskarazko dokumentala bi hedabideetan emititzeko ideiarekin", adierazi du Angel Mari Garciak, Arizmendiarieta Fundazioko kideak.

## Arrasateko Bilgune Feminista, emakume abertzaleen topagune

Herriko hainbat emakumek feminismoa lantzeko espazio propioa sortu dute, eta "aspaldiko gogoa" bete

**H.L. ARRASATE**

Arrasateko Bilgune Feministaren sortzaileek "indarrak saretu, eta eguneroko ekintzak kolektibizatze" asmoz eratu dute elkargune berria. Era berean, azken hamarkadetan eraikitako militantzia ereduaren eraldatzeko beharra ere sentitzen zutela aitortu dute.

**Topaketa feministetarako deia**

Bide batez, abenduan egingo duten Emakume Abertzaleen VIII. Topaketa Feministetara batzeko deia egin dute. Abenduaren 12an izango da, Oleretan, eta azaroaren 22ra arte egongo da izena emateko aukera, Euskal Herriko Bilgune Feministaren webgunean.

Topaketa horietan bi ildo nagusi jorratuko direla adierazi dute militante feministek: "Batetik, harreman kolonialen be-

girada gaurkotua euskal feminismoa, eta, bestetik, post-COVID-19ak utziko duen testuingurua".

Lehenengoari dagokionez, azaldu dutenez, harreman kolonialak barne zein kanpo ikuspuntutik aztertuko dituzte, "lurralde honetatik beste herri batzuekiko bultzatutako kanpo kolonizazio prozesuak zein Euskal Herrian garatutako barne kolonizazio prozesuetan eragiten duten mekanismoak", zehazki.

Bigarrenaren kasuan, ordea, pandemiaren osteko testuingurua jorratuko dute, "bizitzaren esanahi batzuk ulertzeko sako-eko aldatetako" ekarriko baititu. Krisi honek "nabarmenki" areagotuko omen ditu "sistema neoliberal, heteropatriarkal, klasista, arrazista eta kolonialak eragiten dituen arrakala sozialak eta burujabetzaren galerak".

# Artgazkikoen irudiak, 'Arrasate 20/20' galerian

Bihar inauguratuko da Artgazkiko hogeitaz baxkideren lan grafikoez osatutako erakusketa. Autore bakoitzak lau argazki erakutsiko ditu Kulturateko klaustroan, eta herriko irudi zaharrak eta estudio fotografiko bat ere instalatuko dituzte bertan

**Hasier Larrea** ARRASATE

Udalaren eta Arrasateko Argazki Taldearen arteko elkarlanetik sortu da *Arrasate 20/20* erakusketa, azaroaren 8tik 28ra bisitatu ahalko dena. Kulturateko klaustroa herritarren kurtiositatearen testigu izango da, astelehen eta zapatu bitartean, 17:30etik 20:30era bitartean. Anibal Carmona Artgazkiko kideak esan bezala, "Arrasate da argazki bildumaren interesgune nagusia, eta irudiek kirola, paisaia, arkitektura eta bizitza soziala lantzen dituzte, batik bat".

Aurtengo urteari erreferentziarik egingo ote dioten galde-tuta, ez dela "gai nagusia" izango aurreratu du argazkilariak, "baina egongo dira lan batzuk egungo egoera irudikatuko dutenak. Antonio Murillo Kajoiko tabernariak, esate baterako, komertzio txikiek aurtan jasan duten beherakada islatuko du bere irudietan".



Artgazkiko bazkideak, Kulturateko klaustroan. H.L.

Paretetan zintzilikatutako argazkiez gain, erretratuak ateratzeko estudio fotografiko bat ere jarriko dute patioaren erdian. Arrasatearrek, hortaz, aukera izango dute Kulturatera gerturatu eta kalitatezko argazki per-

sonalak egiteko. "Besteak beste, Mondravemberkoak etorriko dira estudioa argazkiak ateratzera", adierazi du Carmonak, eta ondokoa gehitu: "Oraindik ez dugu erabaki zein egunetan egongo den estudioa erabilgarri,

baina jendeak bere argazki-erretratu egin ahal izango du".

Horretaz aparte, diapositibaz osatutako pantaila batek Arrasateko antzinako irudiak proiektatuko ditu une oro. Argazki hauek Arrasate Zientzia Elkarteko kideek prestatuko dituzte, eta herriak jasandako aldaketak adieraziko dira bertan. Argazki makina zaharrak ere egongo dira ikusgai, "duela urte batzuk irudiak nola fotografiatzen ziren ikusteko".

**Eragileen eta elkarten alboan**

Artgazkiko bazkideek lankidetzan jardun dute hastapenetik herriko eragile ugariarekin. "Mondraitz, Trikitixa Eskola, Herri Eskola, BTT... Elkarte askorekin aritu gara beti elkarrekintzan, eta horiei eskainitako txoko bat ere izango da erakusketa", adierazi du Carmonak.

Argazkiok Arrasateko Udalak gordeko ditu ondoren, datu base batean, aurrera begirako proiektu edo ekintzetan erabili ahal izateko.

**Udazkeneko lehiaketa**

Aurtengo seigarren edizioa izango du Arrasate Argazki Taldeak antolatzen duen udaberriko argazki lehiaketak. Urteekin saioitsu eboluzionatu duela azpimarratu du Anibal Carmonak: "Joan den edizioan, herrikanpoko jende dezente animatu zen lehiaketan parte hartzera. Irabazleetako batzuk donostia-

rrak eta legazpiarrak ziren, pentsa!" Parte hartzaileen argazkiak salgai jartzen zituzten hasieran, baina salmentek behera egin zutela eta finantzaketa modu desberdinen bila atera dira aurtan.

Gauzak horrela, eta argazkilari taldearen filosofia solidarioari jarraituz, aurkezten den argazki bakoitzeko bi euro bideratuko dituzte Espainiako Errakitismo Elkartera. Azken bost edizioetan Aspanogi erakundeari bidali diote dirua, Gipuzkoako haur onkologikoen familia-elkarteari. "Beraiekin hitz egin genuen dirua beste erakunde bati eman nahi geniolako, eta ez zuten inongo aitzakiarik jarri, guztiz kontrakoa baizik. Izan ere, gure lagun Alberto Caballeroren semeak errakitismoa dauka, oso gaixotasun ezezagun eta arraroa da; ondorioz, diru gutxi inbertitzen da eritasun hori geldiarazteko ikerketetan", azpimarratu du argazkilariak.

Argazkirik onenak Ibai-arteko dendetan jarriko dituzte aurtan ikusgai. Izen ematea azaroaren 30ean itxiko da, eta sarituak abenduaren 6an hautatuko dira.

**ESTUDIO FOTOGRAFIKOA ETA HERRIKO ASPALDIKO ARGAZKIAK ERE INSTALATUKO DIRA**

## Montse Roldanen akuarelak, Goxoa kafetegian ikusgai

Arrasate Margo Taldeko kideak 'Konfinamenduan margotzen' izeneko erakusketa jarri du

**H.L. ARRASATE**

Bizitzako zati handi bat dedikatu dio Montse Roldan arrasatearrek marrazkigintzari. Duela 27 urtetik da Arrasate Margo Taldeko kidea, eta bere erakusketa propioa zabaltzera ausartu zen urriaren 23ean. "Martxoko itxialdian, akuarelak estilo librean landu nituen etxean, eta gustura gelditu nintzen egindakoarekin. Alabari ere gustatu zitzaizkion koadroak, eta, Goxoan lan egiten duenez, kafetegian galeria irekitzera animatu ninduen", adierazi du Roldanek.



Montse Roldan, Goxoa kafetegian. M.R.

Akrilikoan eta olioan margotzera ohituta badago ere, etxean akuarelari denbora eskaintzea erabaki zuen Roldanek. "Koadroek aurpegiak irudikatzen dituzte, baina ez dira erretratuak, modu librean marraztutako musuak baizik", dio.

**Taldea, urratsak egiten**

Urtero ekintza desberdinak egiten ditu Arrasate Margo Taldeak. Beste herri batzuetako margolariekin topaketak, erakusketak Kulturaten, Seber Altubeko udaberriko azoka eta ikastaro konkretuak, marrazkilari gazteek herriaren elkarte interesgarria daukatela gaineratu du Roldanek: "Debagoienean, Bergara izan da margolaritzan erreferentea, eta orain, Arrasaten ere ibilbide polita egiten ari gara". Jarrai dezatela bidea marrazten.

## 'Kotondarrak' haur antzerkia, txotxongiloen bidez landua

Amaia antzokiak XX. mendeko ehungintza-industriako emakumeen istorioak hartuko ditu zapatuan

**H.L. ARRASATE**

Anita Maravillas antzerki konpainiak modu berezian landu du langile borroketan inspiratutako trama: titero edo txotxongiloen bitartez. Teknika hori baliagarria da sorkuntzarako iruditegi, estetika eta antzerki kode berriak eskaintzeko. Modu horretan, publiko txikiaren kontzeptu "helduak" mahai-gaineratu nahi dizkiote zuzendari eta antzezleek, "azken finean, istorioek emozioen bidez bidaiatzen dutelako, eta emozioek ez dutelako adinik".

Argumentua Koton familian zentratzen da, amak eta bi alabek bizi dituzten abentura eta arrisku ezezagunetan, bereziki. Sorterra atzean utzi eta lantegietako teiltatu, argi, makina eta oihalen artean murgilduko dira kotondarrak, hirietako exodoa, industrializazioa, fabriketako gogortasuna eta emakume haien ereduari buruz hitz egiteko. Elkarrekintzak dakarren duintasunari ere egin zaizkio keinuak.

Antzerki-obra 17:00etan hasiko da, eta sarrerak bost euro balioko du.



Aramaioko anbulatorioa. A.E.

# Udalbatza kezkatuta dago osasuneko lehen arreta zerbitzuaz

Eskaera formala egin dio Udalbatzak OSI Debagoienari eta Jaurlaritzako Osasun Sailari Aramaioko anbulatorioko zerbitzuaren gainean. Ratioak errespetatzea eta Aramaiori dagokion medikua ezartzea eskatu dute; eta baita informatuta egotea ere

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Azkeneko osoko bilkurako gai zerrendan ez zegoen arren, urgentziaz sartu zuten osasuneko lehen arreta zerbitzuaren gaia osoko bilkuran. Azkenaldian Aramaioko anbulatorioan gertatzen ari denaz kezkatuta agertu ziren. Aramaiori, legez, mediku bat eta erizain bat dagozkio lanaldi osoan. "Baina mediku titularrak baja hartu zuenetik ez dugu izan medikurik lanaldi osoan; medikua izan dugunetan lanaldi erdian izan da, eta kasu askotan hori ere ez", azaldu du Cristina Etxenausia zinegotziak.

## Murrizketak salatu dituzte

Ez dutela lehen arreta zerbitzuaren gaineko inolako informazioarik jaso azaldu du: "Inork ez dio Udalarari jakinarazi, eta, guk dakigula, publikoki ez da esan, baina orain, lehen arreta hori

telefonikoa da. Hori murrizketa bat da eta ezinegon handia ari da sortzen gaixoen artean; zer esanik ez, pertsona nagusien artean".

Gaineratu du medikuak bi edo hiru egunera deitzen duela kontsulta telefonikoa egiteko. "Horrek ekarri du jende asko minez egotea inongo erantzunik gabe", azaldu du zinegotziak. Horrez gain, pertsona askok aurrez aurreko kontsulta izan arren, anbulatorioa joan eta medikurik ez zegoela ikusi dute. Miren Astaburuaga farmazialariak ere egoera kaskarra dela aitortu du:

**ARAMAIOKO UDALERRIARI, LEGEZ, MEDIKU BAT ETA ERIZAIN BAT DAGOZKIO LANALDI OSOAN**

"Deitu, eta hitzordua hiru egun barrurako ematen dute. Hala, medikazioen preskripzioa irautsi egiten zaie, eta aurreratzen ibili behar izaten dugu". Jende nagusiarendako, batez ere, egoera txarra dela dio.

## Jendea informatuta izatea

Udal ordezkariak azaldu zuten ulertzen dutela pandemiak egoera zaildu duela, baina jasaten ari diren murrizketak eta komunikazio falta salatu zuten. Ezinbesteko ikusten dute jendea informatuta eta ondo artatuta izatea. Gogora ekarri nahi izan dute COVID-19az gain badaudela beste gaixotasun batzuk.

Hori guztia kontuan hartuta, udalbatzak -EH Bildu eta EAJ- aho batez onartu zuen OSI Debagoiena Ospitalera eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera bidali beharreko eskaera: legeak

## Azaroaren 25aren harira, mozioa

Udalbatzak aho batez onartu zuen azaroaren 25aren harira aurkeztutako adierazpen instituzionala. Indarkeria matxistatik libre egongo den jendartea eraikitze konpromisoa berretsi zuten. Hauek dira hartutako konpromisoak: prebentzio, sentsibilizazio eta arreta zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzea, eta zerbitzu horiek hobetzen eta sendotzen joatea Udalarai gaindikoa erakundeekin batera; ekimen kolektiboek laguntza ematea, bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko kontakizun kolektiboa landu dezaten; elkarlanean jardutea mugimendu feministarekin, adituekin eta bizirik irtendako emakumeen kolektiboekin; azaroaren 25aren harira egon daitezkeen ekintzetan parte hartzea animatzea herritarrek; eta honen berri ematea.

## Orain Ardura ekimenaren mozioa

Orain Ardura herritarren ekimenak aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak, aldeko zazpi botorekin eta aukako boto bakarrekin. Pandemia garaian gizarte erantzukizunez jokatzeko ari dela dio ekimenaren adierazpenak, eta horren aurrean zera eskatzen dute: Aramaioko Udalarai Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzea krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko oinarriko gizarte zerbitzuetarako aurrekontu-partidak handitu dezatela; eta, horretarako, AHTaren obretarako eta proiektuetarako erabiltzen diren funts publikoak erabil ditzatela. EAJko zinegotziak adierazi zuen mozioaren aurkezpenean adierazitakoarekin ados egon arren, ez dagoela ados mozioan eskatzen denarekin, eta horregatik bozkatu zuela aurka.

ezartzen dituen ratioak errespetatuz medikua lanaldi osoan jartzea berriro ere Aramaiori; Osasun Sailaren irizpide berriak zeintzuk diren jakitea eta telefonoz lehen arreta nola ezarri den idatziz jakinaraztea; telefonoz jendea artatzen behar den gehieneko denbora zein den jakitea; medikua edo erizaina ez baldin bada egon behar azken momentuko arazoengatik, txanda hartuta daukan jendeari abisatzea eta ahalik eta azkarren beste txanda bat ematea; Udalarai Aramaioko anbulatorioan gertatzen diren murrizketa, aldaketa edo moldaketan informazio zuzena izatea, herritarrek ere informatuak mantendu ahal izateko.

## Hilerriko tasak

Udal zergen eta tasen gaia ere landu zuten osoko bilkuran. Aramaioko udalbatzak erabaki du udal zerga guztiak daudene-

tan uztea -aurtengo KPIa negatiboan dagoelako-, eta, tasen kasuan, bakarra igotzea: hilerrikoa. Momentu honetan, ehorzketak Udalarai dakarkion kostua bakarrik kobratzen da. "Kontuan izanda 2008tik tasa ez dela igo eta ez dela lan erraza, proposatzen da ehorzketa lanei duintasuna emateko 2008tik gaur arteko KPIa igotzea", azaldu zuen Lierni Altuna alkateak. Eustaten arabera, %13,27ko igoera egon da 2008ko irailetik 2020ko irailera arte. Hori kontuan hartuta, zera proposatu eta onartu zuten, aho batez: hilkutxen kasuan, orain arteko 128,18 euroko kostua 145,19 euroko kostua izatera pasatzea; eta, errautsen ontzien kasuan, orain arteko 49,92 euroko kostua 56,54 euro izatera pasatzea. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko dute egoera. Horrez gain, ehorzketa zerbitzuaren araudia onartu zuten, "langileen lan baldintzak duinak" izateko: maiatzaren 1etik irailaren 30era, ehorzketa lanak, beranduenez, 19:30ean hasiko dira; eta urriaren 1etik apirilaren 30era, beranduenez, 18:00etan. Igandeetan eta jaiegunetan ez da ehorzketarik egingo.

**AZKEN OSOKO BILKURAN, EHORZKETA LANEN TASA IGOTZEA ERE ONARTU DUTE, AHO BATEZ**



Joseba Jauregi, Peruena baserriaren aurrealdean, diploma eta oroigarria eskuetan dituela. A.E.

# Haragi-behi ustiategi onena Arexolan dago

2017an irabazi zuen, eta aurten ere Perurena baserriko Joseba Jauregik Araba mailako haragi-behi ustiategi onenaren saria jaso du Foru Aldundiaren eskutik. Arexolan hazitako haragia herriko harategiari eta Ibai-Gane jatetxeari saltzen dio

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Arabako haragi-behi ustiategi onena Aramaion dago: Peruena baserriko Joseba Jauregi abeltzainak irabazi du 2020ko ustiategi onenaren saria.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru aldundiek abere-ustiategi hobereak saritzen dituzte urtero. "Azoketan eman izaten dituzte sariak, baina, aurtengo egoera nolakoa den ikusita eta azokarik egin ez denez, saria jasotzera Aldundira joateko esan ziguten", azaldu du Jauregik.

## 284 ustiategi izan dira lehian

Lehiaketan 284 ustiategik parte hartu dute; horietatik, 105 Arabakoak. Guztira, 15 sari banatu dituzte: hiru EAE mailakoak eta beste guztiak probintzia mailakoak. Hain zuzen, Jauregik Arabari dagokion saria jaso du, haragi-behien kategorian. Esne-behien kategorian, Narbaizako Asoloste SL izan da onena; ardien kategorian, San Vicente de Arana Josu Saez; eta zuhain ho-

berenaren kategorian, SC Urrutia Rueda -Gillerna-. 1.000 euro eta garaikurra eskuratu dituzte irabazleek.

## Belar ondu ona egitea

Epaimahaiak zera hartzen du kontuan sariak ematerakoan: batetik, maila tekniko eta ekonomikoagatik nabarmentzen diren ustiategiak izatea; eta, bestetik, euren produkzio metodoak baliabideen kudeaketa iraunkorra bermatzera bideratzen dituzten ustiategiak.

Jauregik dio bere kasuan belar ondu ona egitea baloratu diotela; eta, horrez gain, animaliek urtero txahala egitea. Horren harira, nabarmendu du bere indargunea hori dela: "Ekogra-

**USTIATEGIA POLIKI-POLIKI HANDITZEN DOA: "TXIKIA IZANEZ GERO, EZIN ZARA HEMENDIK BIZI"**

foa ekartzen dut behiak barrutik nola dauden ikusteko, feturik duten... Horrek kostua du, bai ekonomikoa eta baita lan-karga ere; izan ere, behiak zelaian baldin badaude hona ekarri behar ditut lan horiek egiteko". Gaineratu du urtero egiten duela ikastaroren bat formakuntza jasotzeko.

## Egunero egin behar den lana

Peruenan baserri bizi izan dira beti; eta Jauregik 2006an hartu zuen abeltzaintzarekin aurrera egiteko konpromisoa. Ustiategia handitzen doa, poliki-poliki: "Txikia izanez gero, ezin zara hemendik bizi". Gaur egun, dozena bat ardi, 8 ahuntz, 150 txerri eta 100 bat behi ditu. Abeltzain lanak konstantzia handia eskatzen duela dio, egunero egin behar den lana.

Haragia Aramaioko harakinari saltzen dio, eta baita Ibai-Gane jatetxeari ere; *Elikatu.com* bidez aurrez prestatutako janaria saltzen du jatetxe horrek.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

## Bumeran bat bezala

Aspertzetik ilusiora pasatzen ginen egunero, bumeran bat bezala. Ze onak itxialdiko pelikulak, edota ez dakit nongo edozein antzokik eskuragai jarritako edozein obra. Ze politak ziren abesbatza desberdinek ateratzen zituzten bideo guztiak, dantza taldeenak, edo *streaming* bidezko bertso-saioak ere. Ze gustura sartzen ginen abeslari edo artistek egiten zuten zuzenekora etxetik etxera.

Gaur, zurrumbilatik atera ezinik gabiltza oraindik, batek daki noiz arte. Eta noski arlo guztietan dagoela sufrimendua. Baina nork bere minak dakienetik idazten ditu. Ni itxialdian hor egon zen kulturari ateak nola ixten zaizkion ikusteak samintzen nau. Kolako azken tontoak izango ez ote garen pentsatzen dut. Lege bat aldatzean gure laneko planteamenduei mila buelta ematen dizkiegu: edukierak murriztu, entseguak kendu, tokiak handitu... eta gero, gure *txiringittoa* da ixten den lehenetarikoa. Hor egon ginen, egon nahi dugu, baina teatroak ixten dituzte, kontzertuak kendu... Haserretik atsekabera pasatzen naiz egunero, bumeran bat bezala. Kultura segurua da.



## Maitasun erromantikoaren ideia

*Zer dira indarkeria matxistak?* kanpainaren laugarren ideia maitasun erromantikoaren inguruko da. Maitasuna eraikitzeko dagoen moduak sozialki, ekonomikoki eta politikoki antolatze moduarekin duela zerikusia azaldu nahi izan dute; eta maitasun erromantikoaren ideiak bikote-harreman desorekatuak eta biolentoak bultzatzen dituela.

## Eskola eta kultura etxea gehiagotan garbituko dute

Osasun egoerak hala baldintzatura, indartu egin dituzte garbiketarak eskolan eta kultura etxean. Kultura etxea astean bi egunetan garbitu beharrean bost egunetan garbituko dute, 330,08 euroko gaitzuekin. Eskolako gimnasioan bost egunetan pasatuko dute erratza eta zorigarbigailua; 330,08 euroko gastua eragingo dio Udalari hilero.

## 'COVID-19a eta osasuna' hitzaldia antolatu dute

Herritar talde batek egungo osasun egoeraren gaineko hitzaldia antolatu du. *COVID-19a eta osasuna* izango da hitzaldia-aren gaia. Juanjo Martinezek eskainiko du, gaztelera; Martinez medikua da, digestio-aparatuko eta orokorreko zirujaua. Hitzaldia azaroaren 10ean izango da, martitzena, 18:30ean, Aramaioko kultura etxean.

# Berritasunekin etorriko da Gabonetako kanpaina

Ostalariei eta merkatariari laguntzen jarraitzeko asmoa agertu du Unai Elkorok Goiena telebistako 'Harira' saioan; hainbat proiektu urtea bukatu aurretik esku artean izango dituztela aurreratu du eta 2021eko udal aurrekontua urtarrilean izango dutela gertu

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Pandemiak urtea baldintzatu duela onartu zuen Unai Elkorok alkateak martitzenean Goiena telebistan. Aretxabaleta, hain zuzen ere, eremu gorrian sartu zen astelehenean: "Aurreikusita zegoen, baina bailaran ondoen gabiltzan herrietako bat gara. Dena den, begiratu behar dena tendentzia da, eta gurean, oraindik joera goranzkoa da; ea lehenbailehen geratzerik dugun". Ezarritako neurriak betearazteko arazo larririk ez dela izan herrian zioen, baina mezuak ondo zabaldu diren zalantza agertu zuen: "Gizartea beldurtzera jokatu da eta sektore batzuek hori ez dute ondo jaso. Mezu larriak bidaltzen dira, baina errealitatearekin ez datozela bat ikusten dute batzuek; gazte askok, esaterako, ez dute arrisku hori sumatzen. Beste ondorio batzuk ere badakartzala ikusi behar dute: krisi ekonomikoa. Eta hori eurek ordaindu beharko dute, hein handi batean".

**Proiektuak esku artean**

Udalaren egoera ekonomikoa irakurketa gazi-gozoa egin zuen. Jaitsiera ez dela izango hasieran esandako %20koa zioen, baina gertu ibiliko dela: ia %16. Urtea "ondo" bu-



Unai Elkorok alkatea Goiena telebistako platoon. MIRARI ALTUBE

katuko duela Udalak esan zuen; batetik, gerakinari esker, eta, bestetik, inbertsio batzuk bertan behera utzi dituztelako: "2.600.000 euroko gerakina genuenez, larritzeko egoeran ez gaude. Dena den, 800.000 euro inguruko sarrera gutxiago izan ditugu eta hori igarri egiten da. Jaietan, esaterako, aurreztu egin dugu 100.000 euro inguru, baina beste kontu batzuetan zuloa dezente handiagoa egin da".

Egoera horren aurrean, udalbatzak uztailen onartu zuen liberatutako zinegotzien lan

jarduna %75era murriztea eta horiek zein alkateak aparteko ordainsaririk ez jasotzea: "Udalaren aurrekontu orokorrari begiratuta ez da portzentaje handia, baina uste dugu beharrezkoa zela. Hala ere, alde guztietako kritikak jaso ditut".

Onartu zuen ardura nagusietako bat dela proiektu estrategikoak zelan eroan aurrera. Mojen komentuen proiektua esleituta daukate eta lehenengo zirriborroa jaso dute: "Aldaketa batzuk egin ditugu eta espero dugu urtea bukatzerako izatea

proiektu hori". Basotxo erretiratuaren elkarteak eroango dute bertara. Osasun etxearen kontua, ostera, Osakidetza daroa -Debagoieneko ESIk bideratuta- eta proiektu hori ere esleituta dago; urte bukaerarako esku artean izatea espero dute.

Santa Kurtz kaleko saneamendu lanei dagokionez, zera zioen: "Hobekuntza batzuk sartu dira, baina herritarrek proposatutako aldaketa batzuk ere; hortaz, zenbateko obra izango den laster jakingo dugu".

Ildo horretatik, 2021eko udal aurrekontua urtea bukatu aurretik ez dutela izango zehaztuta adierazi zuen: "Aztertzen bagabiltza, baina hori zehazteko proiektuen xehetasunak behar ditugu". Urtarrilerako gertatzeko asmoa agertu zuen.

**Gabonetako kanpaina egingo da**

Merkataritza eta ostalaritza zerbizuei laguntzen jarraitzeko asmoa du Udalak. Maiatzean abian jarritako bonuen kanpaina bukatutzat eman dute, eta horretarako sortutako partidaren geratu diren 43.000 euroak zelan bideratu pentsatzen dabilta: "Bil dotan banatuko dugu: batetik, ostalaritzarendako, eta, bestetik, Gabon kanpaina antolatzeke. Ostalaritzari zelan lagundu aztertzen gabilta. Terrazetan, kanpoan egon behar denez, horretarako dirulaguntza lerroen bat zabaltzea darabilgu".

Gabon kanpaina zelan egin aztertzen dabilta, eta nobedaderen bat izango da. "Egoera ezberdina izanik berritasunen bat sartzea dagokigula uste dugu; ideia batzuk daude mahai ganean, eta zerbait izango da". Neguko Azoka egiteko asmoa ere agertu zuen: "Ez da izango aurreko urteetako bezalakoa, ez da Herri-

ko Plazara mugatuko; gure asmoa da plazaz gain, Durana eta Mitarte kaleak erabiltzea, han ere jartzea postuak".

**Txarapeko etxeen lanak, hastear** EH Bilduk kultur ekitaldiendako karpa eskatu du oraintsu, eta hori kokatzeko Kurtzbarri eskolako kantxa proposatu. Alkateak erantzun zuen ez dabiltzala eskaera hori aztertzen. "Udal teknikariekin kontsulta egin dute eta esan diete guk ez dugula errekurtsorik halako bat muntatu, desmuntatu eta gordetzeko. Bestetik, uste dugu kantxa hipotekatu egingo lukeela karpak, baina bertan jarri gura den oholzak ere. Eta beharrezkoa ere ez dugu ikusten, Arkupen badago Zaraia aretoa eta komentuan beste areto bat egongo da. Gainera, kalean ekitaldiak egiteko sekula ez dugu trabarik jarri".

Herritar batek Santa Kurtz kalean abiadura murriztea eskatu zuen: "Aztertuko dugu zerbait, eta, bestela, radarra jarri beharko da". Kale horren irisgarritasuna hobetuko dela erantzun zion hari, saneamendu lanak egiterakoan.

Bestetik, Txarapea ibilbidean bukatu barik dauden bi etxe blokeen lanak hastear daudela aurreratu zuen: "Urte eta erdi inguru ibili dira informazioa batzen, eta badirudi bereganatu dituztela etxebizitzak. Espero dugu lehenbailehen jartzea martxan, eta behingoz bukatu, urte asko daroate-eta geldi".

**2021EKO AURREKONTUA URTARRILERAKO GERTATZEKO ASMOA DU UDALAK**

## Plazeren eta desiren gainean jarduteko saioa, gaur

Feminismoa eta ekonomia solidarioa sexualitatearen bizipenarekin nola uztartzen diren aztertuko dute

**M.A.** ARETXABALETA

*Plazerak eta desirak. Ikuspuntu feminista eta ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik* saioa izango da gaur, egubakoitza, Arkupen (17:00) Setem Hegoa Hizea GKEk eta Udaleko Berdin-

tasun Sailak elkarlanean antolatuta. Hori bideratuko du Desmontando a la Pili kooperatibako kide Jara Barrero Robles gizarte-hezitzaile eta sexologoak.

Feminismoa eta ekonomia solidarioa sexualitatearen bizipe-

narekin nola uztartzen diren aztertuko dute.

Sexuari eta plazerei buruz hitz egiteko espazioak ez daudela inoiz soberan dio Barrerok: "Gure bizipenak eta gorputzak etengabe zalantzan jartzen dituzten mezuez inguratuta gaude. Testuinguru horretan zaila da gure zalantzak, beldurrak eta pozak epaituak sentitu gabe planteatzea". Hala, konfiantzazko giroa sustatuko dute galderak egin ahal izateko, elkarrekin hausnartu eta bizipenak partekatu.

## Poltsak eta gaztainak herritarrendako, Aretxarteren eskutik

Gaur, egubakoitza, *Bizi, erosi Atxabaltan* leloa duten poltsak oparitzen hasiko dira Aretxartereko kideak. Horrez gain, gaztaina saltzailea gonbidatu dute, beste urte batez, eta azaroko hiru martitzenetan etorriko da herrira: 10ean, 17an eta 24an. Bezeroei gaztainak debalde hartzeko txartelak banatuko dizkiete egunotan.



Aretxarteren poltsak. NEREA ETXEANDIA



# Banda zabala landa auzoetara eroango dute

Interneterako konexio ultralasterra zortzi auzotako ehun bat baserri eta etxebizitzatara zabaltzea da asmoa, eta azpiegitura hori ezartzeko egin beharreko inbertsioa Foru Aldundiak eta Udalak erdi bana ordainduko dute

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Banda zabala landa auzoetara eramateko lanean dabil Udala. "Landa ingurunearen eskaera handienetako bati erantzun nahi zaio proiektu honen bidez, abiadura handiko Interneterako konexioa gune hauetara hedatzu", adierazi du Udalak.

Proiektu hori aurrera eramateko, Foru Aldundiak abian jarritako LandaGipuzkoa programara aurkeztu da. Zuntz optikoaren bidez banda zabala ultralasterra landa ingurune osora zabaltzea da deialdi horren erronka nagusietako bat: "Gune horietako biztanleek bizitzeko eta lan egiteko baldintzak izatea, eta, azken finean, hiri ingurunearen pareko zerbitzu eta ongizate maila".

Udalak zortzi landagunetara zabaldu gura du sarea; hona hemen horiek: Oro, Larriño, Aozaratza, Areantza, Goroeta, Apotzaga-Etxebarri, Galartza eta Isurieta. Guztira, ehun bat eraikinetara eramatea aurreikusitako proiektu horretatik kanpo geratuko lirake Arkarazo elizatea eta Galartzako zenbait puntu, teknologia hori dagoeneko badutenak, baita Isurieta gune bat ere, non operadoreek "hiru urteko epean konexioa bermatzeko interesa" agertu duten. Sakabanatuen

dauden baserrietara eraman ahal izateko, ostera, aurrerago aztertuko dute proiektuaren bideragarritasuna.

## 200.000 euroko inbertsioa

Foru Aldundiak kudeatuko du sistema horren ezarpena, eta lurralde osorako egin dute deialdia. Aretxabaletaren kasuan, 200.000 euro inguruko inbertsioa egingo da, eta Aldundiak eta Udalak erdi bana ordainduko dute. Behin lan horiek eslebituta, 18 hilabeteko epea izango dute burutzeko.

Unai Elkoro alkateak nabarmendu du Udalak egin duen apustua, "landa ingurunean beharrezko konexioa eta teknologia berrietarako sarbidea" erraztuz. Haren iritziz, "eten digitala hausteak lehentasuna" izan behar du: "Sarearen erabilera eguneroko beharra bihurtu da, eta pandemiaren egungo egoeran are gehiago. Komunikazioa eta oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea da helburua, besteak beste telelanean eta online hezkuntzarako, baita aisialdirako ere".



Goroeta auzoa. MIRARI ALTUBE

## Herriko 133 ikaslerekin egingo du lan Atxabalta Mugik

'Nerabeak eta jarduera fisikoaren sustapena' egitasmoa astelehenean jarriko dute abian Ibarra kirolegian

**M.A. ARETXABAETA**

Nerabeen artean jarduera fisiko sustatzeko asmoarekin, Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako DBHko laugarren mailako ikasleekin hasiko da lanean Atxabalta Mugi; 133 gatzexorekin, hain zuzen ere.

Ibarra kirolegian ematen diren bi jarduera ezagutu eta probatzeko aukera izango dute ikasle horiek, Gorputz Heziketa unitate didaktikoaren barruan. Lau astean gerturatuko dira kirolegira eta hiru ekintza proposamenetatik bi aukeratu ahal izango dituzte. Lehenengo bi asteetan *Gap* -gluteoak, abdominalak eta hankak- eta *Cycling* artean hautatuko dute eta hurrengoetan *Circuit training* ikastaroa izango dute guztiek. "Begurale profesional batek ikastaroaren oinarri teoriko-teknikoak azalduko dizkie, jarduera horrek



Hainbat gazte saio batean. ATXABALTA MUGI

eskaini ditzakeen onurak azalduz eta arriskuen berri emanez", dio Atxabalta Mugiko arduradun Maialen Alkorkak.


Proiektua bukatutakoan nerabeei ikastaro horiek eskaintzea aztertuko dute, euren ordutegira egokituta.

## Eskola margotzen

Kurtzebarri eskolaren eraikina margotzeko ekin dio berriro Gu Haziak Gara elkarteak, eta aurrealdeko hormaren txanda da orain. Udazkena hartu dute gai: "Artistek egin dute irudiaren bozetoa eta 1. eta 6. mailetakoak hasi dira margotzen, ikasleen parte hartzea garrantzitsua baita proiektu honetan", adierazi dute eskolako kideek.



KURTZEBARRI ESKOLA



**Odontologia estetikoa**  
**Endodontzia**  
**Inplantologia**

**Ortodontzia**  
**PADI zerbitzua**  
**Hortz protesiak**

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55

## EUSKARALDIA



Aretxabaleko zenbait entitateko kideak, Euskaraldian parte hartuko dutela adierazten. ARETXABALETAKO EUSKARALDIA

# Txapak banatzeko egutegia prest dago

Batzordeko kideak herriko txoko ezberdinetan egongo dira gaurtik azaroaren 20ra bitartean, izena eman dutenei txapak banatzen. Horrekin batera, bi kontzertu antolatu dituzte: gaur, Bizarro taldea izango da Arkupen; eta azaroaren 20an, berriz, Ro taldea

## Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleko Euskaraldia batzordeko kideek martitzenean egin zuten bilera, datozen bi astei begira Euskaraldiaren bueltan zenbait erabaki hartzeko. Batetik, orain arte egindakoaren errepaso egin zuten. Bestetik, entitate guztiei Euskaraldiko ariketan jardungo dutela adierazten duten identifikatzaileak banatuko dizkietela erabaki zuten, eta, beste zenbait konturekin batera, *ahobizi* eta *belarriprest* txapak banatzeko ezarriko dituzten mahaien egutegia egin zuten.

## Euskaraldiko txapak jasotzeko

Gaur, 16:30etik 18:00etara Iralabarri eta trenbidearen artean egongo dira Aretxabaleko batzordekideak txapak banatzen. Azaroaren 8an, 12:30etik 14:00etara bitartean, Portasoleko okindegian eta Kalebarreneko plazan. Azaroaren 11n, 18:00etatik 19:30era, kirol etxean. Azaroaren 14an, 18:00etatik 20:00etara, Mar-

tin erloju-denda aurrean. Horrekin batera, azaroaren 17an eta 19an, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 19:30era, udaletxe zaharraren parean egongo dira, Euskaraldian izena eman eta txapak jaso ez dituztenei banatzen.

## Bizarro taldearen kontzertua

Zapatuan, 19:00etan, Bizarro taldearen kontzertua izango da Arkupen. Sarrera bost euro da, eta 685 75 67 29 telefono zenbakira Whatsappez edo *euskara@loramendielkartea.eus* helbidera idatzita erreserbatu daitezke. Ateak 18:30ean irekiko dituzte, eta, edukiera mugatua izanda, bertara joaten direnek oñatiarren rock ilun eta gogorraz gozatu ahal izango dute.

## BIZARRO TALDEAREN KONTZERTUA GAUR IZANGO DA, ARKUPEKO ARETOAN, 19:00ETAN HASITA

## Orain arteko balorazioa

"Gazi-gozoa izaten ari da. Zenbakie erreparatuz ondo ari gara. Iaz, 1.000 norbanako inguruk hartu zuten parte, eta, gaur-gaurkoz, 600dik gora aretxabaletarrek eman dute izena. Hala ere, herritarren mingainetan mundu guztian dagoen gai berbera dago bolo-bolo, koronabirusa, eta Euskaraldiari kostatzen ari zaio indarra hartzea. Hala ere, esperantzaz gaude, eta gure aurreikuspena da datozen bi asteetan izen-emate handia egongo dela. Horrekin batera, ekitaldiak antolatzea ez dago samur, baina egoerari aurre egin behar diogu...", adierazi du Eñaut Zubizarretak, Aretxabaleko Euskaraldiko koordinatzaileak.

## Ro taldearen emanaldia

Eskarmentu handiko musikariek osatzen duten Ro taldearen emanaldia ere antolatu du Aretxabaleko Euskaraldiak. Azaroaren 20an 19:00etan izango da emanaldia, Arkupen.

Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe *Me too* antzezlanean. TTIPIA

## Feminismoaren kontzeptuak azaltzeko 'Me too' antzezlan

Domekan, Amorante bakarlariaren kontzertua izango da Arkupe aretoan, arratsaldeko zazpitan hasita

## I.B. ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, Aitor Gabi-londok zuzendutako eta Ainhoa Aierbek eta Tessa Andonegik antzeztutako *Me too* antzerkia egongo da ikusgai Zaria aretoan. Oholtza gainean izango diren bi emakumezko aktoreak Catherine Deneuve eta Jane Fonda bihurtuko dira, eta jendaurrean feminismoaz arituko dira, zenbait kontzepturen azalpenak ematen, era komikoan. Sarrerek lau euro balio dute, eta emanaldiaren iraupena ordubete ingurukoa izango da.

## Amorante bakarlaria domekan

Domeka honetan, berriz, musikaren txanda izango da, eta, horretarako, Amorante bakarlariaren emanaldia izango da, Zaria aretoan, 19:00etan. Iban Urizar musikaria da Amorante, eta Elgoibarko bakarlari orkestra-gizonak kantu tradizionalak

oinarri hartuta doinu esperimentalak ditu ikur. Folk kutsua ateratzen du ahots, gitarra espainol, harmonium, perkusio eta tronpetarekin. Aspaldiko koplak, flamenkoa, Afrikako musika eta, orokorrean, hainbat tradiziozko musika jorratuz.

## 'Miñan' liburuaren aurkezpena

Arkupe kultura etxeko egitarauarekin jarraituz, datorren astean, Amets Arzallus bertsoari eta kazetariak eta Ibrahima Baldek *Miñan* liburua aurkeztuko dute. Bi gonbidatuek eskainiko duten solasaldia azaroaren 10ean izango da, 19:00etan, eta Zaporeak elkarteak gonbidatuta igoko dira oholtzara *Miñan*-en historia kontatzera.

Ibrahimak bere bidaia kontatu zion Arzallusi, eta hark idatziz jaso zuen. Horrela sortu zen *Miñan -miñan hitzak anaia txikia* esan nahi du pularrez-.

## Leixargarateko aterpetxea itxita egongo da, oraingoz

Leixargarateko aterpetxea itxita dagoela jakinarazi dute Murruxiko Mendizale Elkarteko kideek, eta, hasiera batean, hala mantenduko dutela ohartarazi dute. Horrekin batera, Murruxiko Mendizale Elkarteko federatu berriak egiteko, azaroaren 9tik 13ra zabalik egongo da Durana kaleko elkarteak, 18:30etik 19:30era bitartean.

## UDAko Gabonetako loteria-txartelak komertzioetan salgai

Gabonetako loteria-txartelak udalerriko komertzio ezberdinetan jarriko ditu salgai UDAk, bost eurotan. Dagoeneko salgai daude Belar-Metan eta Kioskoan. Gaineratu dute norbaitek elkarrekin bat egin eta loteria-txartelak saldu nahi izanez gero, astelehenetan Ibarra futbol zelaietan galdetu eta bertan jaso ahal dituela.

# "Gogoeta egiten segitzeko ildoak bildu ditugu"

IÑIGO BEITIA IKERLARIA

Huhezi fakultatean egindako XII. Euskal Soziolinguistika Jardunaldietan izan da, lantaldean egindako ikerketa baten berri ematen, nerabeen eta gazteen hizkuntza errealitateaz

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Urriaren 28an, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egindako Euskal Soziolinguistika Jardunaldietan, gazteen hizkuntza errealitateari buruzko hainbat ikerketa, proiektu eta esku hartzeren emaitzak eta ondorioak aurkeztu zituzten bertan izan ziren hizlariak. Horietako baten parte izan da Iñigo Beitia ikerlari eskoriatzarra, eta bere lantaldeko kideek *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia* izenburupean aurkeztu zuten egindako txostenean jasotakoa. Hain zuzen ere, nerabeen eta gazteen hizkuntza errealitatea landu dute, eta zenbait ondorio atera dituzte egindako lanetatik.

**Zein izan da gauzatu duzuen ikerketaren funtsa?**

Gazteek euskararekin duten lotura eta harremana aztertzeke xedea du egitasmoak, eta harreman horretara hurbiltzeko hizkuntza praktiketan jarri dugu arreta, eta erabileran eragiten duten faktore kualitatiboak ezagutu guran aritu gara. Euskararen biziberritze prozesua bideratzeko rol garrantzitsua jokatzen dute gazteek eta nerabeek, eta, hain zuzen, horiek ezagutzea estratergiakoa da.

**Gazteen euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak izan dituzue aztergai; zein pauso jarraitu dituzue ikerketarako?**

Helburuen artean, gazteei askatasuna ematea ere izan dugu ardatz. Hau da, nolabait, gazteengana hurbildu gara, euren iritziak eta esperientziak kontuan izanez, eurretaz hitz egin barik. Bide horretan, hiru ardatzek gidatu dute informazioaren bilketa eta analisia: hizkuntza ideologiak, hizkuntza guneak eta hizkuntza bizipenak. Ardatz horien ikuspegia bateratzeak aukera eman du gazteen errealitatea sakonago ezagutzeko eta hizkuntza praktiken gakoak



Iñigo Beitia ikerlari eskoriatzarra. IÑIGO BEITIA

## "FAMILIATIK ETA ESKOLATIK HARATAGO BABES-GUNE BATZUK SORTU BEHARRA IKUSI DUGU"

hobeto ulertzeko. Lau herritan garatu da ikerketa, eta herri bakoitzeko errealitatea ezagutu gura izan dugu gazteen ikuspegitik. Gernikan, Amorebieta-Etxanon, Zumaian eta Pasai Donibanen datuak bildu genituen, eta herri guztietan behaketa saioak, elkarrizketak, talde elkarrizketak, ibilbideak eta egunerokoak kudeatu ditugu, eta 55 lagunekin bildu eta hitz egin dugu.

**Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia izenpean egin duzue lana. Ondorio nagusirik atera duzue?**

Ondorioak ez dira itxiak, ez dago formularik. Herri bakoitzak bere errealitatea du, eta, elementu batzuk errepikatzen diren arren, berezitasunak ere badaude, kontuan hartu behar direnak. Hala ere, gogoeta egiten jarraitzeko ildoak bildu ditugu. Ideologia,

hizkuntzaren praktika eta bizipenak kontuan izanda, hiru esparru hauetan zentratu gara. Ondorio bati erreparatu, hizkuntza politikaren eta hizkuntza plangintzaren inguruan espresuki galdetuta, ez dute erantzunik. Oro har, herrian hizkuntzarekin lotuta antolatzen diren ekimenen berri badute, baina ez dute parte hartzen: edo bai, baina *kontsumitzaile* gisa, eta, gehienbat, ekimenek jai edo ospakizun itxura hartzen badute. Euskalgintza oso urruti ikusten dute gazte gehienek, oro har, eta aurreiritziak ere badituzte helduleku nagusi, edo horietan oinarritzen dira.

**Azterketa sakona egiteaz batera, proposamenak ere egin dituzue ikerketa honetan, ezta?**

Gazteek euskara familiarekin eta eskolarekin lotzen dute, eta horiek gazteentzat ez direla esparru garrantzitsuenak jabetu gara. Zentzu horretan, eta, betiere belaunaldi berrien beharrak aintzat hartuta, eskola eta familia esparruetatik kanpo dauden hutsuneak betetzea proposatu dugu ikerketan, horretarako, euskararen gainean hitz egiteko babes-guneak sortuz.



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea alkateetan. ESKORIATZAKO UDALA

## Herritarrei "arduraz jokatzeko" eskatu die alkateak

Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak mezua helarazi gura izan die herritarrei, pandemia ardatz

**I.B. ESKORIATZA**

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak mezua bat helarazi gura izan die herritarrei, alarma egoera berriaren ezarri diren neurrien harira, bideo baten bitartez. Adierazi du "kezka" bizi dutela Eskoriatzak izan dezakeen bilakaera. "Gure osasuna eta ekonomia arriskuan jartzen dituen krisi honetatik atera nahi badugu, gure interakzio sozialak murriztu eta arduraz jokatu behar dugu", azaldu du.

**Komunikazio kanalak, irekita**

Horrekin batera, "Udalak pandemiaren ondorioak gehien sufritzen ari diren pertsonen sektoreei laguntzen" jarraituko duela azpimarratu du. Gaineratu du komunikazio kanal guztiak irekita jarraitzen dutela udal txean, eta udal ordezkariekin harremanetan jartzera animatu gura izan ditu herritarrek. "Kon-

finamenduan egin genuen bezala, prest gaude, unean-unean, behar dituen orori behar duen arreta emateko. Batez ere, gure adinekoei eta behar bereziak dituzten pertsonen". Mezua borobiltzeko, hau esan du: "Guztionean lortuko dugu. Aurrera Eskoriatza!". Mezua positibo hori bidaltzea amaitu du herritarrei zuzendutako bideoa.

**Joserra Zubizarreta 'Harira'-n**

Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarreta GOIENAKO *Harira* saioan izango da azaroaren 10ean (21:30 eta 23:30). Eneko Azkara kazetariak elkarrizketatuko du, eta, herriko kontuek batera, gaurkotatzen lotutako gaiak izango dituzte berbetarako gai. Herritarrek ere izango dute galdarak egiteko aukera: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (*berriak@goiena.eus*).

## Gizarte Zerbitzuetako elkarteentzako dirulaguntzak

Urriaren 26an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteentzako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako eta Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribaturako irabazimorik gabeko erakundeek, gizarte zerbitzu jarduerak Es-

koriatzan garatu edota betetzen badituzte eta jarduera horiek deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz.

Dirulaguntzak gizarte zerbitzuetako arloan jarduera zehatzak garatzeko, gizarte integratzea helburu duten taldeei zuzendutako jarduera edota ekintzak, taldeei arreta eskaintzea gizarte zerbitzuen eta osasun arloa... finantzatzeko izango dira, besteak beste; informazioa, oinarriak, eskaera orria eta eranskinak udal webgunean daude ikusgai.



Oihana Arana eskoriatzarra, liburua eskuetan duela, bibliotekan. AITZIBER ARANBURUZABALA

## Oihana Aranak lehen liburua aurkeztuko du

Eskoriatzarrak 'Portuak' lehenengo liburuaren aurkezpena egingo du azaroaren 13an, Zaldibar antzokian. Harremani buruzko nerabeentzako eleberria da, eta lana argitaratu arteko gorabeherak eskainiko die bertaratzen direnei

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Oihana Arana eskoriatzarrak *Portuak* izeneko bere lehen liburuaren berri emango du Zaldibar antzokian, azaroaren 13an, 19:00etan. Aranak Irati Areitio protagonista duen *Portuak* nerabeentzako liburu uztaillean argitaratu zuen, eta orain, herriararen aurrean aurkeztera animatuko da.

Harremani buruzko nerabeentzako eleberria da Aranak idatzi duena, eta, hala, datorren egubakoitzean Zaldibar antzokian batzen direnen artean, nork animatuta eta lagunduta idatzi duen liburu, sortze-prozesuaz, kolaborazioez eta beste zenbait konturen gainean ari-tuko da eskoriatzar gaztea oholtza gainean.

### Ipuin kontaketa alde batera

"Bizi dugun egoerak uzten badigu, aurrera egingo dugu Arnanen *Portuak* liburuaren aurkezpenarekin. Antzokian egingo dugu, edukiera aldetik liburu-

tegia txiki geratzen zaigulako", adierazi du Iñaki Agiriano Eskoriatzako bibliotekako arduradunak. Horrekin batera, gaineratu du ipuin kontaketa ez dituztela momentuz antolatuko. "Ines Bengoaren kontaketa bertan behera uztea erabaki genuen, eta, horrekin batera, ikastetxe-tako haurrekin prestatzekoak ginen hitzordu bat ere bertan behera utzi dugu. Hala, bestelako ekitaldiren bat egitea ez dugu baztertzen, baina une honetan ez ditugu ipuin kontaketa antolatuko".

### Aparteko solasaldi literarioak

Literatura Solasaldiekin, berriz, urriaren erdialdera hasi ziren, eta aurreikusita dituzten solas-

**"LITERATURA SOLASALDIK EMATEN ARI DIRENAREKIN, DISFRUTATZEN ARI DIRA PARTAIDEAK"**

saldi guztiak gauzatzea espero dute. Partaideak "oso pozik" ari direla azpimarratu du Agirianok: "Kultura etxeko areto handian batzen gara, eta bertan jarraitzea da asmoa. Ezin badugu, telematikoki egitera pasako gara, baina edukiera aldetik ez dugu arazorik. Solasaldietan disfrutatzen ari gara partaide guztiak; euskarazko taldean 14-15 pertsona inguru batzen gara eta gaztelarazkoan, aldiz, 11-12 artean; beraz, ederto. Ea horrela jarraitzen dugun..."

### Bibliotekara animatuz

Bibliotekak dituen herritarren joan-etorrien mugimendua asko jaitsi den arren, bibliotekak leku seguruak direla nabarmendu gura izan du Agirianok. "Eskoriatzan nabarmen jaitsi da bibliotekako mugimendua; batez ere, haurren partetik. Helduak, berriz, gehiago datoz liburuak maileguan hartzera. Hala ere, bibliotekak leku seguruak direla esan nahiko nieke herritarrei".



'HISTORIAS A BOCADOS'

## 'Historias a bocados' Zarimutzen

Joseba Argiñano Zarimutz elizatean izan da *Historias a bocados* ETB2ko programa grabatzen. Ricardo Seguraren, Itziar Fernandez de Arriaberekin eta Alex Perezekin elkarrizketak egin ditu; elizatekoek kontatutako bitxikeria ugari batu ditu, mokadutxo baten bueltan. Programa joan den domekan emititu zen arren, *EITB nahieran-en* ikusgai dago.

### Kirol elkartearen historia jasotzeko bilketa

Sare sozialetan zabalduko ohar baten bitartez, Eskoriatza Kirol Elkarte bere historiako argazkiak, egunkarietako errekorreak, eta abar eskatzen hasi da. Eta, izanez gero, [Eskoriatzaredes@gmail.com](mailto:Eskoriatzaredes@gmail.com) helbidera bidaltzeko eskatu dute. Hain zuzen, elkartearen historia jasotzeko eta material guztia ondo gordetzeko helburuarekin.

Horrekin batera, asteburu honetara begira, Manuel Muñozen partiduak jokatzera bueltatzeko aurreikuspena dute, eta, hala bada, partidu egunerako protokoloa diseinatu dute: harmailetara sarrera partidua hasi baino 30 minutu lehenago egingo da; kiroldegira sartu aurretik tenperatura hartuko da, eta eskuak gelarekin garbituko dira; harmailetan maskara derrigorrezkoa izango da; eta markatuta ez dauden eserlekuetan soilik egon daitezke eserita.

### GORA ETA BEHERA



I.B.

### Ez irristatzeko alfonbra zubian

Arbiñoste eta Santa Ana aparkaleku artean dagoen zubian, Alberja zaharraren parean, alfonbra berde bat jarri dute asteon, herritarrak zubitik pasatzean direnean irrista ez daitezten.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Leire Rato, samboko Espainiako txapeldun

Atama Eskoriatza taldeko Leire Rato borrokalariak Espainiako 'combat sambo' txapelketa irabazi du Murtzian. 60 kiloko kategorian urrezko domina lortu zuen, eta denboraldi honi begira beste zenbait erronka ere baditu helburu

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Atama Eskoriatza taldeko Leire Rato borrokalari gasteiztarrak urrea lortu zuen urriaren 18an Murtzian jokaturako Espainiako *combat sambo* modalitatean. Lehen aldiz lehiatu da modalitate honetan, eta, "oso gogorra" dela azpimarratuz, *full kenpo* eta *semi kenpo* modalitateak baztertu barik jarraitzea eta Errusian jokaturako den Munduko Txapelketarako sailkatzea du helburu.

Emakumezkoen *combat sambo* txapelketa egitea erabaki zenean, orain arte egin bako modalitatea probatu gura izan zuela adierazi du Ratok: "Orain arte egin ditudanekin alderatuz, modalitate gogorra eta basatiagoa dela esango nuke. Lurretik arrastaka gehiago aritzen zara *combat sambo*-n, eta burukadak ere eman ditzakezu... Hiru borroka izan nituen, eta, hirurak irabazita, gogoz nago jarraitzeko".

## Domina ugari batuta

Espainiako txapelketan, *full kenpo*-n eta *semi kenpo*-n urrezko dominak ditu Ratok, eta *semi kenpo*-n, gainera, Europakoan eta mundu mailakoan hirugarrena ere izan da. Hala, hurrengo erronka Errusian jokatzekoa zen Munduko Txapelketan parte hartzea zen, baina bertan behe-



Atama Eskoriatza taldeko Leire Rato borrokalaria. GOIENA

## ERRUSIAKO MUNDUKO TXAPELKETA BERTAN BEHERA GERATUTA, EGITEN DENERAKO PRESTATZEN

ra geratu dela adierazi du: "Europako eta munduko txapelketak bertan behera gertatu dira, eta, bitartean, entrenatzen jarraitzea geratzen zaigu. Eskoriatzako frontoian entrenatzen gara, tamentia ezin dugulako erabili;

batez ere, korrikan eta pisuarekin ari gara. Izan ere, ezin dugu kontakturik izan. Hala ere, etxean badut txoko bat prestatuta, eta entrenatzen jarraitzen dut".

## Modako kirola

Ratok lau urte daramatza Atama Eskoriatza taldean, eta, Rafa Carriet entrenatzailearen gidaritzapean pauso handiak ematen ari dela azpimarratzeaz batera, talde sendoa dutela adierazi du: "Modan dagoen kirola da, eta jende berri asko sartu da azken urteetan taldean".



Leintz Gatzagako aparkaleku nagusia. IMANOL BELOKI

## Aparkalekuko zati bateko zorua altxatuta, hesiekin inguratuta

Duela hilabete urak eragindako matxura konponduta, zoru zati berria geratzen zaie lanak amaitzeko

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

"Olaungo errekatik behera, depositura bidean, ur-jario bat izan genuen, eta duela hilabete egin genuen konponketa. Hala ere, ondorioak begi-bistan daude aparkalekuan, eta orain, zoru zatia konpontzea geratuko zaigu", adierazi du Eugenio Otsoak, Gatzagako alkateak.

## Aparkatzeko eremua

2015ean hasi ziren Gatzagako erdigunean dagoen aparkalekua egiten. Hainbat fasetan egin zituzten lanak, eta Gatz Museora eta Dorleta santutegira joaten

diren bisitariek herri erdigunean autoa uzteko lekua izateko eta, bide batez, bertako herritarrek ere aparkatzeko lekua izateko lanak izan ziren. 2016ko urtarrean, lur-jausia ere izan zen gune horretan, eta, egin beharreko guztiak eginda, orduetik erabilgarri dago hondakinen ekarpen-gune alboko aparkalekua. Gunea harri-lubetarekin inguratuta dagoen arren, auto batentzat espazioa okupatzen duen zoru zati bat altxatu da, eta hesiekin inguratuta jarri dute, inork ez aparkatzeko eremu horretan.



JON ERRASTI

## Arrieta herriko azokara, saltzera

Leintz Gatzagako museoa itxita dagoen arren, bertako arduradunak ez daude geldirik. Horren erakusle da joan den domekan Mungialdea-Busturialdean dagoen Arrieta herriko azokan egon zirela Gatzagako urrezko zoria saltzen. Arrieta 550 biztanle inguru dituen herri txikia den arren, gustura geratu dira museokoak han egindako salmentarekin.

## Atama kluba, lorpenak pilatzen

Rafa Carriet Atama Eskoriatza taldeko entrenatzailearen gidaritzapean, 2007. urtetik gaur egunera arte lorpen ugari izan dituzte bertan ari diren edo bertan aritutako borrokalariak. Munduko txapeldunak eta txapeldunordeak, Europako txapeldunordeak eta Espainiako txapeldunak, besteak beste, kenpoan, K1, *combat sambo* eta teknika borrokan.



2017an, Espainiako txapelketatik bueltan, domina ugari batuta. GOIENA

## UDALAITZ VOLKSWAGEN, AUDI, SEAT ETA SKODA ETXEEN JAKINDURIAZ

Arrasateko Udalaitz kontzesionarioan Volkswagen etxeko marka guztiakin egiten dute lan: Volkswagen, Audi, Seat eta Skoda. Puntako marka horiek duten berme osoa eskaintzen diete bezeroei, eta automobil aukera benetan zabala dute bezeroen eskura.

**VOLKSWAGEN T-ROC** modeloa da horietako bat. Boga-bogan dauden SUV autoen artean, hori da etxe alemanaren apustu etako bat: Tiguan, T-Cross eta Golf modeloen arteko erdibideko diseinua. "2018tik dago merkatuan eta oso harrera ona izan du. 2020an, T-Roc R eta Cabrio modeloak jarri dituzte salgai: lehenak 300 zaldi arteko potentzia izan dezake eta txasis erakar-garriagoa dauka; bigarrenak, aldiz, sabaia kentzeko aukera du, eta auto baten barruan bi auto edukitzea bezala da", azaldu du kontzesionarioko arduradun Jon Galdosek. Teknologia alorrean bezero zorrotzenen eskariak asetzeko eskaintza oparoa du: nabigatzailea, auto ilarentzako laguntza, angelu itsuentzako abisuak, atzeko mar-txarako kamera, telefono mugikorra kablerik gabe kargatzeko euskarria, giltzarik gabe arrankatzeko sistema eta automatikoki aparkatzeko sistema, besteak beste.

**SEAT ATECA** da Udalaitz kontzesionarioan eskuratu daitekeen beste modelo aipagarri bat. Seat etxearen lehen SUV modeloa izan zen 2016an merkaturatu zutenean, eta ordutik hona 300.000 unitate baino saldu dira Espai-

# Ibilgailu aurreratuagoen, seguruagoen eta garbiagoen aroa heldu da

Gaur egun saltzen diren autoen artean errege edo erreginarik badago, horiek SUV motakoak dira, eta bailarako saltzaileek eskaintza mamitsuak dituzte segmentu horretan; auto elektrikoaren aroa ere heldu da, eta euren eskaintzan igartzen da



Volkswagen T-Roc berria, Cabrio edizioan.

niako merkatuan. 2020ko modelo berriak aurrekoa baino 18 zentimetro luzeagoa da -4,36 metro ditu- eta kolpe leungailu dotorea du, arreta erakartzeko modukoa. Alor teknologikoan ere hobekuntza esanguratsua ditu aurtengo modelo berriak: nahi gabe erreia aldatzeagatik alerta eta zuzentze sistema, aparkatzean kolperik ez izateko abisu sistema edo autoen arteko talkarik ez gertatzeko sistema, besteak beste. Horiez gain, *Seat Connect* teknologiarik esker, trafikokoaren egoera zein den edo zein eguraldi egingo duen jakiteko aukera eskaintzen die gi-



2020. urteko Seat Ateca modeloa.

dariei, baita larrialdi deiak egiteko ere.

**SKODA KODIAQ** autoa ere SUV aipagarrien multzoan sartzen da. Bost edo zazpi lagunentzako lekua edukitzea edo merkaturako maletategi handienetakoa edukitzea -720 litro- dira ibilgailu honen balio erantsietako batzuk. Orain arte, lau akabera zituen aukeran -Active, Ambition, Style eta L&K- eta aurtun beste bi gehitu dizkiote: Sportline eta Scout. Active da bertsiorik sinpleena, eta horrek barne ditu soinu ekipamendua, barne ordenagailua, beira-jasogailu elektrikoak eta 17 hatzbeteko hagunak. Ambition modeloak aire-girogailu automatikoa, LED argiak eta atzerantz joateko kamerak gehitzen dizkio, eta Stylek, adibidez, aurrez eta atzez aparkatzeko sentsoreak, zortzi hartzbeteko pantaila nabigatzailearentzat eta hiru guneentzako aire-girogailua.

Azkenik, Audi etxeko eskaintzan, **AUDI Q2** modeloa da *crossover* autoen segmentuan nabarmentzen ari dena. Askotariko motor aukera eskaintzen duen modeloa da: 115 eta 190 zaldi artean, gasolinan, diesel...

Alor teknologikoak erosotasun ugari jartzen ditu gidarien esku: nabigatzailea, Internetera sarbidea, trafikoko seinaleak irakurtzeko sistema, erreia aldatzeko sistema, LED argiak, angelu itsuan dauden objektuek ohartarazteko sistema, eserleku termikoak eta botoi bidez arrankatzeko sistema, besteak beste. Aurreko trakzioa edo lau gurutetako dituen aukeran, baita sei abiadura-aldagailuko automatikoa eta enbrage bikoitza duen *S-Tronic* sistema.


**OPEL**  
 OPEL ZERBITZU OFIZIALA  

**TAKOLO**  
 AUTOAK  
**OPEL MOKKA BERRIA.**  
**SEGURTASUNA DA GARRANTZITSUENA.**  
 San Andres auzoa 10-D  
 Tel.: 943 77 30 10





Skoda Kodiaq berria, zazpi lagunentzako edukierarekin.



Audi etxeko Q2 modeloa.

## TXAPIME CITROEN ETA KIA AUTOAK, ETA TAILER ZERBITZU FIDAGARRIA

Citroen etxeko eskaintza zaba-lean, **BERLINGO URBAN CAMPER** modeloa nabarmendu du kontzesionarioko arduradun Mikel Loitik. "Auto hau aukeratzearen arrazoia da gaur egun hain preziatua den aisialdirako modelo oso aproposa dela; oso prezio erakargarrian, gainera. Berlin-goak berez ez du aurkezpen beharrik, bere segmentuan erreferentea den autoa da, erabilera askotarikoa, eta, horri *camper* bihurtzeko aukera gehituz gero, aisialdiaz disfrutatzeko auto ezin hobea da, zalantza barik".

Horren harira, aukera handiak eskaintzen dituen autoa dela dio Loitik: "Sabai altxagarriari esker, goialdean bi pertsonak lo egiteko eta bertan zutik egoteko aukera ematen duen autoa da, eta bere tamainari esker aproposa da bai hiriburuetan eta naturan lasai asko ibiltzeko". Bi neurritan eska daiteke: M, 4,40 metroko luzerarekin; eta XL, 4,75

metrokoa. Sabai altxagarriarekin 185x115 zentimetroko neurria hartzen du.

Aisialdi erabilerarekin lotuta, kontuan hartu beharrekoa da autoak eskaintzen duen autonomia energetikoa: "Bateria laguntzailea dauka, 12 voltekota, bi konexio puntu, bi USB konexio puntu, eta 220 voltekota kanpo konexioa. Horrez gain, LED argia, voltmetroa eta barrurako eta kanporako mahai bat ere baditu".

Autoan zenbat lagun kabituta daitezkeen galdetuta, hona Loitiren erantzuna: "Zazpi pertsonak bidaiatzeko edukiera du auto honek, barruan lau lagunek egin dezakete lo". Gehigarri interesgarriak ere eskaintzen dizkiete bezeroei. "Aukera zabala dugu: alboko toldoa, berogailu geldikorra, beheko ohea... aisialdi erabileran oso lagungarri izaten dira. Kataluniako enpresa batekin elkarlanean hasi gara lanean era horretako gehigarriak eskaintzeko, eta laster izango ditugu kontzesionarioko erakusketagunean, bezeroek bertatik bertara ikusteko moduan", azaldu du Loitik.

KIA etxeko eskaintzari dago-kionez, **KIA NIRO** modeloa nabarmendu nahi izan du. "Auto hori aukeratzearen arrazoia da merkaturan hiru hibridazio mota dituen bakarrenetakoa dela. Niro hibridoa -PHEV kargarik behar ez duena-, Niro hibrido entxufagarria -PHEV kargatzeko aukera duenaz- eta e-Niro, %100 elektrikoa dena. Tamaina ertaineko SUV bat da, 4,355 metrokoa, eta maletategi ederrak ditu hiru bertsioetan: 401 litro Niro hibridoan eta hibrido entxufagarrian, eta e-Niroren kasuan, 4,375eko luzerarekin, 451 litrokoa. Azpimarratu behar da gaur egun hain modan dagoen konektibitate mailan eta segurtasunean oso ondo ekipatuta dagoela, edozein bertsiotan".

Autonomia aparta eskaintzen duten autoak dira: "Niro PHEV 42 kilometroko autonomia dauka modu elektrikoan, eta erre-gaiarekin 900 kilometrorainoko autonomia, 2,2 litro kontsumitzen baititu 100 kilometroko. 120 voltekota karga bat eginez gero be-deratzi ordutik behera kargatzen da eta 240ko hargune batean, berriz, 2,5 orduan". E-Niro 204

**Zutaz arduratzen gara**

Audi Q2      VW Caddy      VW T-Roc      Skoda Kodiaq      Seat Arona

**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71  
[udalaitz@otola.org](mailto:udalaitz@otola.org) | [www.udalaitz-arrasate.com](http://www.udalaitz-arrasate.com)



Berlingo Urban Camper berria, Chapimeko erakustokian.



KIA etxeko Niro modeloa, elektrikoki kargatzen.

zaldi eta 455 kilometroko autonomia ematen duen autoa da; 125 zaldirekin 289 kilometroko autonomia dauka. Postu elektrikoaren arabera autoaren karga 5,5 ordukoa izan daiteke, edo 45 minutukoa.

Jakina da autogintza etengabe eraldatzen eta berritzen ari den sektorea dela. Hala, Txapimen inbertsioak egiten dituzte, une oro bezeroei "arretarik onena" emateko: "Orain, adibidez, postu elektrikoak jarri ditugu, gure bezeroek bertan autoa karga dezaten".

Auto hibridoak eta elektrikoak eskaria gorantz doa etengabe, eta Txapimeko autoen eskaintzan gero eta leku handiagoa daukate: "Elektrifikazio prozesuan gaude marka gehienak murgilduta. Citroenen kasuan, adibidez, C5 Aircross Hybrid modeloa atera berri dugu; 225 zaldi ditu eta 50 kilometroko autonomia du elektriko moduan. C4 berria %100 elektriko izango da, eta, gutxi gorabehera, abendurako helduko da. KIAren kasuan, aipatutako Niro modeloa, Cee'd Tourer PHEV, X-Cee'd PHEV, Optima PHEV eta e-Soul modeloak ditugu".

## AMETS BEREZAO OPEL ETA FORD ESKAITZA, ETA TAILER ZERBITZUA

Ametz Berezao kontzesionarioan, Ford eta Opel etxeetako auto berriak saltzen dituzte. Edozelan ere, horiez gainera, edozein markatako bigarren eskuko automobilak saltzen esperientzia zabala daukate, eta tailer zerbitzu eraginkorra ere eskaintzen diete bezeroei. Miren Tatiegik, kontzesionarioko ar-

duradunak, Forden aukeren artean, **FORD KUGA** modelo berria nabarmendu du.

"Motor aldetik bezeroen eskakizun guztiak barne hartzen dituen modeloa da: gasolina, diesela, elektrikoa, hibrido arinak, hibrido entxufagarria... eta ekipamendu aldetik, aukerarik sinpleenetatik hasi eta sofistikatuenera heltzen da: LED argiak edo dinamikoak, larruzko tapizeriak, eguzkia sartzeko sabaia... Askotariko aukerak ditu eta merkeena 20.000 eurotik hasita lor daiteke".

Opel markaren aukeren artean, **OPEL COMBO LIFE** furgoneta arina oso aukera erakargarria da: "Bezero mota askorentzat da baliagarria: lanerako, umeentzako espazioa behar dutenentzako, *camper* estiloan nahi duten abenturazaleentzako... Diesel eta gasolina aukerak ditugu, 16.000 eurotik aurrera eskuratu daiteke" adierazi du kontzesionarioko saltzaile Eñaut Urzelaik.

Tailerrean oso prezio lehiakorak dituzte. "Ahalegin handia egiten dugu merkatuko prezio-

rik lehiakorrenak eskaintzeko gure bezeroei".

Tailerrean bi zerbitzu eskaintzen dituzte: "Alde batetik, mekanika konponketak egiten ditugu. Opel eta Ford markako autoez gain, beste edozein markatako autoak konpontzen ditugu, batez ere, prestakuntzamaile handiko mekanikariekin egiten dugulako lan; etengabe formakuntza prozesuan daude, bezeroei zerbitzurik onena eta sofistikatuena eskaintzeko. Bestalde, txapa eta margo konponketak ere egiten ditugu, kolpeak jasan dituzten bezeroentzako. Kolpeak konpontzeaz gain, aseguru etxeekin egin beharreko tramite guztiak guk geuk egiten ditugu, bezeroak lasai geratzeko eta zama hori gainetik kentzeko: aseguru deitu, parte eman, paperak bidali... Bezeroek egin behar duten bakarra da autoa esandako unean guri ekarri eta gainontzeko guztiaz ahaztu".

Ohiko bezeroak ere mimatzen ahalegintzen dira: "Betiko bezeroei eta autoa gurean erosi duten horiei deskontu bereziak eskaintzen dizkiegu tailerreko zerbitzuetan, eta bost ordeko



Ford Kuga berria, aurrealde ikusgarriarekin.



Opel Combo Life modeloa, erabilera askotariko ibilgailua.



IBILGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA ZERBITZUA  
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA ZERBITZUA  
ZURE BEHARRETARA EGOKITZEN GARA!



Helbidea: Berezao auzoa 5 (FORD) eta 24 (OPEL) OÑATI • Telefonoak: 943 78 25 92 (FORD) eta 943 71 80 85 (OPEL) • FACEBOOK/ INSTAGRAM: AMETS BEREZAO



auto ditugu gure bezeroen zerbitzura. Jasotze-entrega zerbitzua ere eskaintzen dugu. Demagun Oñatin lan egiten duzula, eta autoa tailerrera eraman behar duzula. Bada gu joango gara zure autoaren bila eta zuk esandako lekuan utziko dizugu".

Bigarren eskuko autoetan ere espezialistak dira: "Esfortzu handia egiten ari gara segментu honetan. Bi zerbitzu eskaintzen ditugu: batetik, bezeroen eskariak aintzat hartu eta bilatzen ari diren autoak lortzen ditugu: gehienezko prezioa, gehienezko kilometrajea, auto mota, modelo konkrituak... Horrez gain, auto modelo salduenak ekartzen ditugu gurera, prezio benetan merkeetan; galdu ezinezko prezioetan, alegia".

Azkenik, oso garrantzitsua den aspektu bat: bermearena. "Bigarren eskuko autoetan bermeara eskaintzen dugu, eta saldu aurretik autoak ikuskatzen ditugu. 40 urteko esperientzia dugu Amets Berezaon, eta bigarren eskuko autoak aukeratzeko eta baldintza onetan eskaintzeko orduan gure jakinduria aplikatzen dugu".

## TAKOLO ESPERIENTZIA ZABALA OPEL ETXEKO IBILGAILUEKIN

Takolo Autoak kontzesionarioan urteak daramatzate Opel autoekin lanean, eta ondo baino hobeto ezagutzen dituzte etxe alemanak eskaintzen dituen abantailak eta produktuak. Salgai dituzten modelo guztien artean, **OPEL MOKKA** berria nabarmendu nahi izan du kontzesionarioko Ibon Rubiok.

"Ez du zerikusirik aurreko edizioarekin. Itxura aldetik, estetikoki, agresiboagoa da, modernoagoa, eta aurrekoa baino laburragoa luzeran. 12 zentimetro laburragoa da lehen, 4,27 metro luze zen; orain, 4,15-, eta hori asko eskertzen dute gidariek, batez ere aparkatzeko orduan. Oso deigarria da, zeren eta SUV kategoriako ibilgailu bat izateko oso laburra baita luzeran; oso dinamikoa. Horrez gain, mekanika alorrean hobekuntza aipagarriak egin dizkiote, eta emisio gutxiago ditu aurreko modelook baino".



Opel Mokka berria, diseinu agresiboagoarekin.

Segurtasun mailan ere hainbat hobekuntza ditu: "LED argiekin dator, lehen ez bezala. Argiztapen hobea dute, zuriagoa, eta, gehiago irauteaz gain, energia gutxiago kontsumitzen dute. Nahigabe egindako erreidatketentzako abisu eta zuzentze sistema ere badu Mokka berriak. Keinukariak jarri gabe erreiz aldatzen baduzu, autoak nahi gabe aldatu zarela interpretatzen du, eta abisua botatzen dizu. Horrez gain, norabidea zuzendu dezake automatikoki, gidariak bolantea ukitu beharrik gabe". Aurreko Mokkaekin

alderatuta, seinaleen irakurketa sistema eta aurreko autoarekin talkarik ez egiteko alerta sistema ere baditu, eta aparkatzen laguntzeko sentso-reak ditu aurrealdean eta atzealdean.

Egonkortasuna kontrolatzeko sistema hobea dakar Mokka berriak. "Punta-puntako azken teknologiak aplikatu dizkiote. Bihurgune batean txasisa gehiegi okertzen bada, autoak seinalea bidaltzen dio blokeatzearen aurkako sistemari, eta abiadura geldiaraziko du. Era horretan, autoak egonkortasu-

na berreskuratzen du, txasisa berriz ere lekura itzultzen delako. Gaur egun, ia auto gehienek dute teknologia hau, baina urtetik urtera fintzen ari dira, eta merkatuko garatuenetakoa dauka modelo honek".

Aurrerapen teknologiko gehiago ere baditu: "Angelu itsuetako objektuen presentzia ohartarazteko sistema ere badauka modelo honek. Demagun txirrindulari bat datorrela atzealdetik. Askotan, ez dira gidarien ikusmen esparruan sartzen, atzerako ispiluen angeluan agertzen ez direlako. Hala, ispiluan agertzen ez diren objektuen berri emateko, argi intermitente bat pizten da atzerako ispiluan. Aurrerapen garrantzitsuak dira aipatu ditugun guztiak eta gidariek asko eskertzen dituzte segurtasunarekin lotutako hobekuntzak".

Konektibitatea gero eta gehiago baloratzen dute gidariek, eta hor ere badaude aurrerapenak: Android mugikorrekin konektatzeko punta-puntako sistema du, besteak beste, nabigatzaileak sinkronizatzeko".

# CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID

## HIBRIDO ENTXUFAGARRIA



**SILENT  
URBAN  
VEHICLE**

**55 KM-ko AUTONOMIA\*  
%100 MODU ELEKTRIKOAN**

**KARGA AZELERATUA  
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN**

\*Autonomia aldatu egin daiteke erabilera-baldintza errealen arabera



**CHAPIME TAILERRAK**

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5, Arrasate

Tel.: 943 79 45 22



San Antonioko orubean irudiko eraikina altxatu ahal izateko eraikuntza parametro berriak onartu beharko dira HAPOn. B.U.

## Plan Orokorrari bigarren aldaketa egitea dagokio

2009koa da gaur egun indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO), eta 2012an egin zitzaion lehen moldaketa puntuala; zortzi "aldaketa txiki" proposatzen ditu Udalak eta horietatik bost alde zurretik adostutako hitzarmenei daude lotuta

### Jokin Bereziartua BERGARA

2012tik aldaketarik izan ez duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) aldaketa batzuk egitea aurreikusten du Udalak. Bergarako lurraldearen antolakuntza orokorra ezartzen duen araua da HAPO, eta plan horrek ahalbideratzen du herriko lurrei eman nahi zaien era-bilera orekatua: landa-eremua-

ren, herritarren, industriaren eta zerbitzuen elkarbizitza, besteak beste. 2009an onartu zen Plan Orokorra Bergaran, 2012an lehen aldaketa egin zen, eta orain, bigarrena egitea tokatzen da. Udalaren arabera, "aldaketa puntualak eta txikiak" dira proposatzen direnak, aldaketa sakonagoek Udala HAPO berri-kustera behartzen duelako legeak.

**Bost aldaketa hitzarmenei lotuta** Martitzenean Seminarixoa egin zuten aurreikusten diren zortzi aldaketen aurkezpena, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko saioa. Zortzi aldaketa proposatzen dira: lehena da San Juan auzoko industrialdearen ondoko berdegune bati sailkapen berria ematea, urbanizaezina izateko. Bigarren aldaketa da Amillaga kalean,

### "2021 bukaerarako indarrean espero ditugu aldaketok"

NAGORE IÑURRATEGI UDAL GOBERNUAREN BOZERAMAILEA

**Pandemian aurkeztu diezue HAPO herritarrei. Zergatik?** Pandemiara egokituta baina egin genuen, uste dugulako garrantzitsua dela herritarren ekarpenak jasotzea. Galdera gehienak orain hizpide ditugun aldaketetatik kanpo egon ziren, baina aintzat hartzen ditugu hurrengo berrikuspenetarako. Halako saioak eta foroak beharrezkoak dira, herritarrei urrun geratzen zaizkien gaiak gerturatzeko badira ere.



J.B.

**Ze urrats egitea tokatzen da orain? Noiz egongo dira aldaketa hauek indarrean?** Datorren astean, Hirigintzako aholkulari batzordea deituko dugu; gero, udalbatzak onartu beharko du osoko bilkuran, eta 45 egunez jendaurrean jarriko da, alegazioetarako. Beste administrazio batzuen eskaeren menpe egon gaitzke, baina, dena ondo bidean, 2021. urte bukaerarako aldaketa hauek indarrean egotea espero dugu.

gaur egun Soraluze kooperatiba dagoen lursail industrialean, merkataritza-erabilera ahalbidetzea. Gogora ekarri behar da udalbatzak 2019ko otsaileko ezohiko osoko bilkura batean onartu zuela hitzarmena Soraluze enpresarekin, bertan Lidl supermerkatu bat irekitzeko.

Hirugarren aldaketa da Ernai kalean etxebizitzetako sabai eraikigarri gehiago ahalbidetzea, etxebizitza libreetarako zein babes ofizialeko etxebizitzetarako; udalbatzak 2019ko martxoko ohiko osoko bilkuran onartu zuen hitzarmena Urartetxe enpresarekin, besteak beste, eguneko zentro berria egokitzeko. Laugarren aldaketa da Agorrosingo futbol zelaiaren eta San Martin eskolaren arteko lur eremuari eskola-erabileraren izendapena kendu eta kirol-era-



bilerarako izendapena berreskuratzea. Bosgarren aldaketa da, argazkian ikusten denez, San Antonioko lehen zenbakia- ren orubean antolamendu berria eta eraikuntza-parametro berriak onartzea. Seigarren aldaketan Udalak proposatzen du hirigune historikoaren eremua handitzea, Errekalde jauregiko lorategiko lur guztiak barnean hartzeko. Eta proposatzen diren azken aldaketen artean dago, besteak beste, Askarruntzeko industrialdean jarduera baten handitzea ahalbidetzea.

### MARTITZENEAN EGIN ZUTEN AURKEZPENA, HERRITARREN IRITZI ETA EKARPENAK JASO AHAL IZATEKO

### EUSKARALDIA

## Musikariek ere bat egin dute

Hainbat musikariek Euskaraldiarekin bat egiten dutela adierazteko bideoa kaleratu dute asteon. Izen emateko aukera dago oraindik, hiru modutan: webgunearen bidez, aplikazioan eta Bergarako Euskaraldiaren lokalean, Barrenkalea 14an –Junbija denda zegoen lokala–; txapak jaso ahalko dira dagoeneko dendan.



EUSKARALDIA

## 'Akellarre' asteburuan, Yune Nogueirasen solasaldi eta guzti

Azaroaren 6an, 8an eta 9an ikusi ahalko da *Akellarre* filma, Seminarixoa; gaurko emanaldia 20:30ean hasiko da eta prezioa bost euro da. Domekan, 19:30ean izango da filma eta prezioa bost euro izango da. Astelehenean, hilak 9, 20:30ean hasiko da filma eta prezioa lau euro izango da. Saio horietan guztietan Yune Nogueiras ak-

tore bergararra egongo da; hasieran, filma aurkeztuko du, eta ondoren, solasaldi batean parte hartuko du publikoarekin.

Filma Bergarara heldu baino lehenago, Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean egon zen. Zinema-aretoetan, berriz, urriaren 2an estreinatu zen, eta, ordutik hona, 40.000 ikusle baino gehiagok ikusi dute; Euskal Autonomia Erkidegoko zinematan gehien ikusi den filma izan da hainbat asteburutan zehar.

# "Benetako lanketarako mahai bat" eskatu dute

EAJk gogor salatu du Udal Gobernuak laster aurkeztuko duen COVID-19ari aurre egiteko plan integrala: "Hainbat gabezia ditu, eta, horregatik, benetako lanketarako mahai bat eskatzen dugu, plana birbideratu eta bergararren beharrei egokitutako plana osatzeko"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

EAJk ez du begi onez ikusi Udal Gobernu laster aurkeztekoa den plan integrala. Jeltzaleek uste dute "benetako lanketarik gabeko dokumentua" dela, besteak beste: "Hainbat gabezia ditu, ez ditu plan batek izan behar dituen egitura eta edukia. Ez die Bergarako eta bergararren beharrei erantzuten, ez ditu identifikatu ere egiten, eta ez ditu neurri zuzentzaileak definitzen. Dokumentuaren eraginkortasunik eza nabaria da, lan-keta eskasa eta pobrea".

EAJko Elena Letek dio "atzeratuta" dabilela Udal Gobernu COVID-19ari aurre egiteko neurriak martxan jartzeko orduan: "Atzeratuta dabilta neurri guztiekin, eta baita honekin ere. Maiatzaren 25ean prentsaurerko bidez plan integral bat lantzen hasi zirela iragarri zuten, eta urriaren 9ra arte ez dugu plan horren berri izan, eta urriaren 19an izan zen dokumentuaren lehen aurkezpen bilera. Gure eskaera garbia da: benetako lanketa mahai bat, plan integrala birbideratu eta bergararren beharrei egokitzeko benetako plan bat definitu eta garatzea".

**"Ez ditu plan baten ezaugarriak"**

Era berean, Lander Arregi zinegotziak azpimarratu zuen ez dituela halako plan batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak betetzen: "Dokumentuak ez du plan integral baten egiturarik eta orain arte izandako gastuak eta aurreikusen direnak nahastuta aurkeztu dituzte, gure ustez. Plan batek zehaztuta izan beharko lituzke helburuak eta ekintzak –normalean, arloz arlo banatzen direnak–, ardurak finkatuta, denborak zehaztuta eta adierazle batzuk jakiteko egindakoa nori zuzendu zaion eta zein bolumenetan". Arregik azaldu du adierazle horien gainean galde-tutela Udal Gobernuarekin



EAJko udal taldeko Lander Arregi, Joseba Elosua, Elena Lete eta Iruñe Galarraga. J.B.

## EGUNEKO ZENTRO ZAHARRA KALTE ARINAK DITUZTENEI BIDERATZEA NAHI DUTE, BESTEAK BESTE

izandako azken bileran, baina ez dutela erantzunik jaso.

**EAJren "proposamen zehatzak"**

Plan integrala gogor salatzeaz gain, EAJk proposamen "zehatzak" berri eman zuen atzoko agerraldian. Hirugarren adinari begira, esaterako, honako hauek: San Joxepeko eguneko zentroa kalte arinak dituzten bergararentzat bideratzea, udal kudeaketaren menpe; hirugarren adinekoei etxean arreta emateko laguntza edota prestakuntza, COVID-19arekin bideratutako premiekin lotuta; eta lehen mailako mendekotasuna duten edo autonomoak diren positibo bideratutako zuzeneko arreta eta jarraipena, etxetik etxeko laguntzaren bitartez, diotenez, salbuespeneko egoerak horrela eskatzen duelako. Tokiko merkataritza eta ostalaritzari be-

gira orain arte hartu diren "neurri txikiak" ez dira nahikoa izan, EAJren ustez: "Aurreikuspenak ez dira onak, ezinbestekoa da haiei begirako lanketa zehatza egitea. Horregatik, ixteko arriskuaren aurrean laguntza ekonomikoak bideratzea proposatzen dugu".

**Enpresa txikiak eta familiak**

Jeltzaleek "arreta berezia" jarri nahi diete autonomo eta enpresa txikiei: "Bergaran bereziki hainbat enpresa txiki daude eta gure ekonomiaren atal garrantzitsu bat osatzen du talde honek. Horregatik, planean ezinbestekoa da hauen inguruko lanketa eta hartuko diren neurriak zehatza; besteak beste, kontrataziorako laguntzak bideratzea proposatzen dugu".

Familia zaugarriari begira dirulaguntza lerro berri bat sortzea nahi dute: langabeentzat formakuntza kurtsuak sortzea, batez ere zaintzara bideratuta; enplegu-programa bat sortzea Lanbidearekin batera; herriko elkarte "benetako beharrak" asetzeko laguntza; bidegorri sarean komunak ipintzea; jolas parkeak eta "gune bereziak" estaltzea...



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

## Ba, bai

COVID-19ari buruzko beste zutabe bat? Ba, bai. Ezin ditut ulertu koronabirusari buruz entzuten diren kezak; aztertzen baduzue, onura pila bat ekarri dizkigu: hasteko, ez dago dutxatzeko beharrik, maskara barruan nork bere hats nazkagarria usaintzen du eta. Urtebetetzeetako ditxosozko patxoak desagertu dira. Puzkerrak be lasai asko bota daitezke –bueno, begiekin usaindu daitezkeen puzkerrak ere badaude–. Zineman ez duzu inorekin besoa ipintzeagatik borrokatu behar. Gainera, maskararekin, kalean ikusten ditudan neska guztiak erakargarriak iruditzen zaizkit –nirekin berdina gertatuko ote da?–. Eta orain, konfinamendua bueltan? Ba, ederki, bake ederra egon litzateke *Ibargarai street*-en kotxeen zaratarik eta nerabeen parranda barik. Ziur nago COVID-19a ez dutela txinatarrek ekarri, ni bezala nerabeen guraso den batek sortua da. Ez jairik, ez kaleko edanik... Hori bai, egun guztia sare sozialetan –Facebookek sortuko al zuen birusa?–. Ez da nire asmoa inor mintzea, ironiaz aritzea baizik: beraz, COVID-19aren ondorioz norbait galdu duzuenoi, *besark... ukalondo-kodo* handi bat.

## OHARRAK

### Odola emateko ordutegia handitu egingo dute

Oxirondon odola emateko hurrengo zitak azaroaren 18an eta abenduaren 2an eta 16an izango dira; ordutegia handitu egingo dute, 16:30etik 20:30era. Odola emateko dei egingo dute: 610 39 32 97.

### Gurasolagun egitasmoan parte hartzeko deia

Jardunek egin du parte hartzeko deia: "Umeak jolasean edo klasean daudenean, astero ordubetez taldetxoetan euskaraz berba egiteko konpromisoa hartzeko gertu zaude? Eman izena!". Argibide gehiago: [www.jardun.eus](http://www.jardun.eus)-, [jardunkultura@topagunea.com](mailto:jardunkultura@topagunea.com), 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

### Goi mailako bertsolariz osatutako saioa

Egoerak ahalbidetzen badu, bertso saioa antolatu dute biharko, azaroak 7, kartzela zaharrean (18:30): Jone Uria, Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Ibon Leibar *Txinbo*.

### Gazte Koordinadora Sozialistaren agerraldia

Egoerak ahalbidetzen badu, elkarretaraztea egingo dute bihar, azaroak 7, San Martin plazan (18:30). "Arbitrarioki ezarritako salbuespen egoera salatu eta alderdi instituzionalen zuritze lana seinatuta nahi dugu", esan dute Deba bailarako GKSko kideek.



**UGARTE**  
ARROZTEGIA · ALTZARIK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugarte-aroztegia.com](mailto:aroztegia@ugarte-aroztegia.com)



**I21**  
KALITATEA

Enpresa legezkoak 1190/025

# Euskararen jatorriaren antzinakotasuna ikusgai

I. eta III. mendeetako estelen artean aukeratutako sei hilarriz osatutako "balio handiko" erakusketa dago Laboratoriumen abenduaren 20ra arte; komisarioak dio museoan ikus daitezkeen inskripzioek erromatarren garaietara eroaten dituztela euskararen zantzuak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean. Euskararen aztarnak antzinako epigrafian* izenburu duen erakusketa bisitatu ahalko da Laboratorium museoan abenduaren 20ra bitartean. I. eta III. mendeetako estelen artean aukeratutako sei hilarriz osatutako erakusketa da, eta horietako batzuetan euskararen forma zaharra antzeman daiteke.

Urriaren 30ean inauguratu zuten erakusketa, komisario lanak egin dituen Eduardo Alfaro arkeologoaren presentziarekin. Alfaroren arabera, sei hilarriz osatutako bat, estela antropomorfo bat, erromatarren aurreko garaietakoa da. Gainerako bostak erromatarren garaikoak dira, baina erakusketa "berezi eta bakar" egiten duena piezen onomastika indigena da: "Ikusten diren inskripzioetan, Pirinioetatik hegoaldera aurkitu den izen protoeuskaldunen kopuru




Eduardo Alfaro komisarioa museoan eta Udaleko ordezkariarekin berbetan. TXOMIN MADINA

handiena dago. Berezia da hori, uste zelako Ebrotik hegoaldera aurkitzen ziren euskara zahararren arrastoak Erdi Aroko birpopulatzaren ondorio zirela. Honek erromatarren garaietara eramaten ditu Ebrotik hegoal-


dera agertu diren euskararen zantzuak". Hori horrela izateak euskara moduko hizkuntza ez-indoeuroparrentzat duen balioa azpimarratu du Alfarok. Hilarriz osatutako batean, esaterako, *Sensco* izena irakur daiteke.

## Erakusketaren balioa azpimarratzen



**MIKEL AIZPURUA** ONDARE ZUZENDARIA JAURLARITZAN

"Soriako estela horietako batzuetan euskarazko hitzak ageri direla dirudi. Soriatik etorri den arkeologoak hipotesi berri batzuk planteatu ditu, eta hori beti da interesgarria. Eskertu behar diegu piezak ekarri izana; argi dute piezek aurkitu ziren lekuan egon behar dutela, eta ez dute mugitzea nahi izaten".



**EDUARDO ALFARO** ERAKUSKETAKO KOMISARIOA

"Onomastika indigenak egiten du benetan berezi erakusketa. Inskripzioetan Pirinioetatik hegoaldera aurkitu den izen protoeuskaldunen kopuru handiena dago. Berezia da hori, uste zelako Ebrotik hegoaldera aurkitzen ziren euskara zahararren arrastoak Erdi Aroko birpopulatzaren ondorio zirela".

### Lehen aldiz Euskal Herrian

Jaurlaritzako ondare zuzendari Mikel Aizpuruarekin eta museoko arduradun Rosa Erraztirekin batera, besteak beste, Gorka Artola alkateak bertatik bertara jarraitu zuen inaugurazioaren irekiera. Erakusketaren kalitatea nabarmendu zuen Artolak, eta balioa eman zion Euskal herrian lehen aldiz eta primizian Bergaran ikusteko aukerari. "Pena da hasiera batean egoeratik merezi duen oihartzuna ezin eman izana. Baldintzak hobetzen badira,

Euskal Herri osotik etorri ahaliko dira bisitariak, baina, momentuz, bergararrek eta inguruko herrietakoek izango dute erakusketaz gozatzeko aukera. Dena den, beste bitarteko batzuen bidez zabalpena emateko asmoa badugu".

## EUSKAL HERRIRA LEHEN ALDIZ EKARRI DITUZTE; ABENDUAREN 20RA ARTE EGONGO DIRA PIEZAK IKUSGAI

## Azaroak 25: egitaraua antolatu dute, birusak uzten duenera arte

Indarkeria matxistaren aurkako performancea egin nahi dute Martxantere, herritarrek ere parte har dezaten

**J.B.** BERGARA

Indarkeria matxista desagerrarazteko hausnarketa "behar-beharrezkoa" dela sinistuta eta pandemia betean bada ere, hainbat ekintza antolatu dituzte. "Ezinbestekoa da indarkeria matxista amaitzeko gizartearen eremu guztietan eragitea, eta herritarren inplikazioa; norberak duen arduratik lan egin behar du", dio Berdintasun zinetotzi Ainhoa Letek. Hain zuzen ere, aurtengo hitzaldiak Berdintasun Kontseiluko kideen proposamenei esker antolatu dira.

### Hausnarketa eragiteko hitzaldiak

Lehen saioa azaroaren 10ean izango da, Irizar jauregian (18:00): *Emakume helduen kontrako eguneroko indarkeria*. Duintasuna elkarteko Itziar Usandizagak dio "ezinbestekoa" dela indarkeria txikiez ere jabetzea: "Eguneroko indarkeria txikietatik datoz handiak, eta txikiez jabetzea ezinbestekoa da. Emakume helduek indarkeria asko jasaten dute, baita familian edo gertukoaren artean. Horren inguruan hitz egingo digu Lourdes Rodriguez Landa soziologoak eta IPES era-

kundeko ikerlariak". Elkarretaratzea ere egingo dute, hilaren 23an, San Martin plazan (12:00).

Azaroaren 16an, autodefentsa digitalaren gaineko ikastaroa egingo dute Irizarren (18:00), eta hilaren 17an, ordu eta leku berean, *Arrakala orgasmikoa: nola patriarkatuak ohean ere jarraitzen gaituen* hitzaldia eskainiko da: "Paola Damonti herriz herri dabil gaia lantzen, eta arreta piztu du. Oso interesgarria izango da, eta Bergarako emakume zein gizonak gonbidatu nahi ditugu", esan dute kontseiluko kideek. Hitzaldietan parte hartzeko arrez izena eman behar da, *berdintasuna@bergara.eus* helbidean edo 943 77 91 00 telefono zenbakian. Gainera, azaroaren 28an, *Birritan bortxatua* antzezlan izango dute Seminarixoan (19:00) eta abenduaren 9ko Seminarixoan (20:00) *Florencia* filma eskainiko du.

Martxanteren ekitaldi berezia

Azaroaren 25erako ekitaldi berezi bat antolatu nahi dute Martxantere San Martin plazan (19:00): "Azken urteotako ildoari eutsiz baina testuingurura egokituta, entzute, irakurketa eta salaketa ekintza bat egingo dugu, herritarrek ere parte hartzeko. Askotariko ahotsak ekartzen ahaleginduko gara, eta performance txiki bat egingo dugu. Neurrien zain gaude, ea ze punturaino egin ahalko den".

Azaroaren 20rako, *Migrazioak, mugak eta migrazio politika* izeneko hitzaldia ere antolatu dute kartzela zaharrean (18:30), *Red de mujeres migradas y racializadas de Euskal Herria* kolektiboaren eskutik.

## Bergarako ezker abertzalearen gaineko filma, azaroaren 13an

Martxoaren 13an estreinatzekoa zen eta alarma egoerak bertan behera laga zuen *Egia bat: Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia* dokumentala azaroaren 13an eskainiko da, Seminarixoan, baldin eta egoerak ahalbidetzen badu. Prebentzio eta higiene neurriak mantenduz, bi emanaldi egingo dira, 18:00etan eta 20:00etan. Sarrerak aurrez bost euroren truke Arranon eta Pol-Polen jarriko dira salgai, eta baita txarteldegian ere emanaldiaren aurretik. Martxoaren 13ko emanaldiko sarrera duenak dirua bueltan jaso ahalko du txarteldegian azaroaren 13an. Izan ere, edukierara begira, sarrera berria erosi beharko da.



Gauekoak ikuskizunaren une bat, Jon Maya Sein dantzari eta zuzendaria taula gainean dela. KUKAI DANTZA TALDEA

## Jon Mayaren 'Gauekoak' lana Seminarixoan bihar

Etxeko elementuak ardatz dituela eta eszenografia "bereziki zainduarekin" iritsiko da bihar Jon Maya Sein dantzari eta sortzailearen lana Bergarara. "Itxialdiaren kronika" izan daitekeen ikuskizunak "kontu intimoak" lantzen dituela azaldu du hark

**Jone Olabarria** BERGARA

"Gogoeta pertsonal eta intimo batetik" sortutako proiektua da *Gauekoak*. Jon Maya Sein dantzari eta sortzailearen "barne-begirada batetik" abiatzen den lana bihar, zapatua, iritsiko da Seminarixora, 19:00etan, Kukai dantza taldearen eskutik, eta berarekin batera arituko dira Arkaitz Miner eta Xabi Bandini musikariak ere.

**Sentsazioak ardatz**

Ikusle asko identifikatuta sentiaraziko dituen ikuskizuna dela azaldu du Mayak: "Kontu intimo bat da, obsesioak, bakardadea, gogoak... Orain, inoiz baino gehiago, ikusleak identifikatua ikusiko du bere burua lan honetan; oso etxeko giroa ageri da lanean zehar, pertsona bakoitzaren bakardadea eta barne pentsamenduak... itxialdiaren ispilu izan daiteke lan hau gaur egungo ikuspegitik begiratuta".

Eszenografiari ere garrantzi berezia eman nahi izan diotela

aitortu du: "Oso etxeko elementuekin egindako agertokia da – *chester* erako sofa, ohea...-, baina, hala ere, elementu horien erabilpena ohikotik harago doa". Eszenografiaren diseinua Fernando Berneusen ardura izan dela azaldu dute, David Berneusen ikus-entzunezkoak eta argiztapena.

Orain dela ia urtebete estreinatuta zuten ikuskizuna, abenduaren 1ean, eta geroztik hainbat emanaldi eskaini dituzte, zazpi hilabetez geratuta egon behar izan duten arren. "Martxoaren 11n, gauean, eskaini genuen azken emanaldia itxialdiaren aurretik. 30 emanaldi baino gehiago bertan behera geratu ziren, ez soilik *Gauekoak*-

**"ORAIN, INOIZ BAINO GEHIAGO, IKUSLEAK IDENTIFIKATUA IKUSIKO DU BERE BURUA LANEAN"**

en kasuan, baita Kukairen beste hainbat emanaldirekin. Asko galdu dugun arren, alde positiboari ere begiratu behar zaio; bide berriak arakatzeko balio izan digu bizitako guztiak".

**Balorazio positiboa**

Ikuskizunak oso harrera ona izan duela azaldu du, eta jasotako balorazioekin "eskertuta" daudela: "Pozik gaude jendearen harrerarekin; egia esan, oso emanaldi politak irteten dira. Ni oso pozik nago, prozesuan asko gozatu dut, agertokian pila bat gozatzen dut, oso gustura nago bizipenekin eta sortutakoarekin. Momentu hunkigarriak daude niretzako. Nire barne erronka eta erabakietatik sortu den zerbait da, taula gainean jarraitu edo ez zalantzatik".

Zapatuan Bergaran izango dira, 19:00etan, Seminarixoan. Ikuskizunerako sarrerak *Ticket.kutxabank.es* atarian eta Seminarixoko leihatilan eskuratu daitezke, egunean, 8 eurotan.

## Urrian abian ziren ikastaroak berrekin diete Agorrosinen

Azaroan hasteko aurreikusita zeuden ikastaroak bertan behera geratu direla azaldu du Bergarako Udalak

**J.O BERGARA**

Udalak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken dekretuan ikastaroak dagozkien moldaketa batzuk ezarri dituzte, kutsapen hedapena murrizteko asmoz, eta horiek beteta berrekin diote jarduerari aste honetan bertan.

Azaldu dutenez, Agorrosin kirolguneko ikastaroetako monitoreen ardura izango da jarduteko irizpide berriak erabiltzaileei azaltzea. Era berean, taldekako jardueretan azpitaldeak egin behar dituzte; azpi-

taldea gehienez sei kidek osatutakoa eta iraunkorra izango da.

Aldagelei dagokienez, lehorreko kirola egiten dutenentzat erabilgarri egon arren, ezinbestekoa denean bakarrik erabili ahalko dira. Uretako kirola egiten dutenentzat, berriz, dutxa zerbitzurik ez da egongo aldagetan. Kloroa kendu ahal izateko igerilekuko eremuko dutxak erabil daitezkeela azaldu du Udalak. Azaroan hasteko aurreikusita zeuden ikastaroak bertan behera geldituko dira, kontrakoa esan arte.



TXOMIN MADINA

## 'Titiriscopio'-k, ikusmina sortu

Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostra berezia izan da aurtengoa, laburragoa eta publiko aldetik mugatua. Dena den, antolatzaileak "pozik" agertu dira jedearen erantzunarekin; sarrera guztiak agortu zituzten. Eta bi egunetan San Martin plazan egon den *Titiriscopio* muntaiak ere ikusmin handia piztu du herritarren artean.

## Aroztegi 2021ean erabiltzeko eskaera aurkez daiteke jada

2021ean Aroztegi aretoan lanak erakutsi nahi dituzten artistek 2020ko azaroaren 30eko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Bergarako Udal Erregistroan. Erakusketei lehentasuna emango zaie, ohi denez, baina, erabilera askotariko aretoa denez, bestelako jarduerak egiteko aukera ere egongo dela zehaztu du Udalak.

COVID-19a dela-eta Aroztegi aretoaren itxieragatik 2020. urtean aurreikusita zeuden baina egin ezin izan ez ziren erakusketek lehentasuna izango dute 2021. urtean.

Era berean, 2021. urtean COVID-19agatik edo ezinbesteko beste arrazoiren batengatik aretoa itxi beharko balitz, programatuta egongo diren baina gauzatu ezinik geldituko diren erakusketek hurrengo urteko programazioan lehentasuna izango dutela zehaztu dute.



Lourdes Odriozola historialaria, ikerketa egiten Antzuolako artxiboan. M.A.

# Alardea, euskal izaerari eusteko

Mairuaren Alardearen gaineko lan bateratuaren beharra ikusita, Antzuolako Udalak eta Alardearen Elkartek elkarlanean ikerketa historikoa jasoko duen lana sustatu dute. Hala, gertu du Lourdes Odriozola historialariak ikerketa historikoaren bilduma

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Urtebetez jardun du Mairuaren Alardearen gaineko informazioa batzen artxiboz artxibo Lourdes Odriozola historialari erreterriarrak. Antzuolako udal artxiboan ez ezik, Bergarakoan eta Tolosako Gipuzkoako artxibo orokorrean ere ibili da ikerketa egiten: "XVII. mendetik hasi eta XX. mendera bitarteko informazioa ikertu dut. Antzuolako artxibo historiko zein administratiboan egin dut ikerketa, baina Bergarara ere jo dut; izan ere, Antzuola Bergarako parte izan da. Tolosako probintzia artxibo orokorrean Gipuzkoako alardeen gaineko informazioa dagoenez, han ere batu dut informazioa".

Udalak eta Alardearen Elkartek hasieratik argi izan dute ikerketa egingo zuenak herriarekiko independentea behar zuela izan. "Kutsatu gabeko he-

rriaeren ikuspegia zuen ikertzaile gura zuten. Helburua Alardearen gaineko lan bateratua egitea izan da, eta, bilatutako informazio berriarekin, zeuden hutsuneak betez bilduma egitea. Egia da hainbat lan eginda eta argitaratuta daudela, baina lan oso bat, bateratua, falta zen. Erroka galanta izan da".

### 1880an lehen alardea

Odriozola historialariak egindako ikerketari esker, jakin da lehen Alardea 1880an ospatu zela. "Benetan datu oso esanguratsuak eta garrantzitsuak aurkitu ditut.

**"ALARDE ZIBILA DA ANTZUOLAKO; EZ DAGO ELIZAREKIN LOTUTAKO EKINTZA BAT BERA ERE"**

Azpimarratu behar da orain arte uste zela 1881ean egin zela lehenengo Alardea; baina aurkitutako faktorei esker, jakin da 1880an egin zela. Badirudi emandakia asko gustatu zitzaizela herritarrei, eta hurrengo urtean jaialdia errepikatu eta ofizial bilakatu zuten. Hala jasotzen da udalbatzarreko liburuan; buruzagiaren lehenengo diskurtsoa ere badago. 208 pezeta eta 21 zentimo gastatu zuten".

### Identitatea bermatzeko

1876an amaitu zen azken karlistaldia, eta ondorengo bi urteetako Mairuaren Alardeak ez zuela izaera militarrik izan ondorioztatu du Odriozolak: "Alardea ez zuten egin herrian zenbat arma zeuden kontrolatzeko; euskal nortasuna aldarrikatzeko jaialdia izan zen, zehazki. Sasoi hartan, kontuan izan galdutako

foruei bizia ematea ere bazutela asmo. Euskal nortasunari eusteko Alardea da Antzuolako; are gehiago, herriak bere berezitasuna mantentzeko aldarrikapen festa da Alardea; izan ere, euren identitatea galtzeko arriskua zegoela sumatzen zuten".

Mairuaren Alardearen inguruko agerietan, argi ikusten da herriak inplikazio oso handia izan duela beti. "Herriak herrirendako egin duen Alardea izan dela garbi ikusten da dokumentuetan. Sasoi hartan horren ondo egin zuten, non Gipuzkoako ekitaldi nagusienetako bat izatea lortu zuten. Hainbat egunkari garrantzitsutan ere bazuen oihartzuna eta albistean kaleratzen ziren; 1943an No-doak erreportajea kaleratu zuten".

Antzuolako Alardea Irungo, Hondarribiko eta Tolosako alardeetatik bereizten da, bestelako ezaugarri batzuk baititu. "Alardeetan beti dago Elizarekiko lotura duen ekitaldiren bat, eta Antzuolakoan ez dago loturarik. Alarde zeharo zibila da. Kontuan izan behar dugu sasoiaren Elizak garrantzi handia zuela edozein ekintza eta pentsamenduren baitan, eta Antzuolakoan Elizarekiko aipamenik ez egoteak nortasun propioa ematen dio; baita mairua egoteak ere. Gainera, gizartearen beharrei eta egoerara moldatzeko gaitasuna erakutsi du bere sorreratik Mairuaren Alardeak, eta istilurik gabe, gainera".

### Kondaira ala errealitatea?

1881eko udal akta liburuan, Alardea nolako den deskribatzen da, eta bertan dago jasoa 920ko Valdejunquerako bataila ere. Gertaera hori kontatzen duen pergamino baten aipamena egiten da aktan; beraz, modu ofizialean dago jasoa gertatu gertatu zela. "Antzuolarrak Nafarroako erregeari lagundu zioten eta bataila irabazi zuten. Hori dioen pergamino bat badagoela diote dokumentu ofizialek; gaurgaurkoz agertu ez den pergaminoa da, ordea. Antzuolarren parte-hartzea ezinbestekoa izan zela ospatzen dute, eta kontaktuzun hori jasota dago. Bere garaian erregeak armarrria ematen dio Antzuolari, eta aipaturiko bataila hori agertzen da deskribapen ofizialean. Dokumentatua dago dena, eta Alardean erakusten den armarrria da horren isla".

### Euskara lehenengoz

Demokrazia indarrean sartzean, lehen berrikuntzak agertu ziren ekitaldian. 1976an, lehenengoz, euskaraz egin zuen buruzagiak diskurtsoan. "Demokraziarekin batera, ekitaldian mairuak daukan tratamendua ere hausnartzen hasi ziren. Giza eskubideak eta berdintasuna aintzat hartu zituzten, eta gizartearen gertatutako aldaketek Alardean ere isla izan zuten. Aldaketa horiek guztiak herritarren eskubideak babesteko helburuarekin hasi ziren, alegia".



XX. mende hasierako zezenketa baten ilustrazioa. ANTZUOLAKO UDALA

## Zezenketak eta Alardea, ospakizun

Sasoiko harakinek, udal zergak gutxitzeko, herriari zezen pare bat eskaintzeko konpromisoa zuten. Hala, Alardearen jaiarekin batera, zezenketak ere egiten ziren. Modu satirikoan Valdejunquerako bataila kontatzen du oso baliotsua den kartelak –oso gutxi daude–.

**Sekulako ondarea**

1980ko hamarkadatik aurrera, Alardearen gainbehera etorri zitekeela ondorioztatzen dute Alardearen Elkarteko kideek. "Belaunaldi berriei transmisioa nola egin izan zuten erronka. Gazteek ez zuten parte hartzen, eta, horrela segituz gero, galdu egingo zen". Orduan etorri ziren aldaketak eta biziberritzeko plana. "Nire ustez, asko irabazi du ekitaldiak berrikuntza horiei esker. Ikusten da antzularrek bizi egiten dutela. Euskal Herriarendako sekulako ondare kulturala da. Euskal dantzak eta folklorea mantentzeko ere ezinbestekoa dena, hain zuzen ere. XX. mendeko dokumentuetan dantzaren garrantzia oso azpimarragarria da".

Lourdes Odriozolak nabarmendu du Alardeari balioa eman zaiola ikerketa historiko bateratu honi esker. "Orain arte argitaratu dena, elkarteak egin duen lana, eta artxioban bilatutako informazio berria, jasota dauka ikerketa-liburu honek. Baina horrek ez du esan nahi etorkizun batean dokumentu berririk azalduko ez denik".

## "SASOIKO PRENTSAN OIHARTZUN HANDIA IZAN ZUEN; NO-DOAN ERE ERREPORTAJEA KALERATU ZUTEN"



Alarde eguneko trokeo dantza, 1915ean. [IRINMOD0.BLOGSPOT.COM](http://IRINMOD0.BLOGSPOT.COM)

## Jendetza erakartzen duen Alardea

Argazkiek asko diote eta jendetzak parte hartzen zuela nabarmena da. "Kanpoko faktoreen ondorioz soilik geratu da bertan behera ekitaldia, inoiz ez herriak erabakita: 1937an eta 1938an, gerra zibilagatik; eta aurten, pandemiaren ondorioz", dio Odriozolak.

**Helburuak beteta**

"Hainbat galderaren erantzunak emateko baliagarria izan da. Balio historiko-folkloriko handikoa da Alardea, Euskal Herrian parekotasunik ez duena, eta guk herriaren ekimen kultural aberats bat bezala hartzen dugu, herriak herriarendako egina, eta hori demostratzea nahi izaten dugu Alardea eginez urtero. Dagoeneko badakigu, esate baterako, gaur ospatzen dugun Alardearen hasiera 1880ean izan zela. Bestetik, jatorri erlijiosorik ez duen eta jainkotasun bati ere lotuta ez dagoen desfile folkloriko bakarretakoa ere badela. Alderdi koreografikotik begirata, berriz, Alardearen aldaketa ezberdinak ezagutzeko aukera izan dugu. Liburuan agertzen diren argazkiren bidez ikusi ahal izango dira", adierazi du Iñigo Ramirez de Okarizek.

**Liburua eskuragarri**

*Antzuolako Alardea. Ikerketa historikoa* liburua euskaraz idatzita dago eta sei atal independente dauzka. "130 orriko liburua da; erraz irakurtzekoa. Argazkiekin eta atal ezberdinekin osatuta. Ikerketaren ostean aterako ondoriok ere jaso dira". Udaletxean, liburutegian eta liburu-dendan salgai jarriko dute. "Jendearen iritzia eta aurrez aurre hartu-emanaren interesatzen zaigu eta plazan jarriko dugu liburua salgai", dio Ramirez de Okarizek.

# Eztalako aldagela berriak gertu daude

Gaur eta bihar artean amaituko da Eztalako aldagela berrien obra sakona. Azken txukuntzeak soilik falta dira. Obra, ordea, COVID-19aren ondorioz zertxobait atzeratu da; inaugurazioak itxaron egin beharko du, pandemiaren egoera egonkortu arte

**Maidar Arregi ANTZUOLA**

Eztala futbol zelaiko aldagela berrien obra amaitzeaz du Artzamendi enpresak. Hala, gaur eta bihar artean azken txukuntze lanak egin eta obra amaitutzat emango dute. Eraikinaren atzealdea margotzen jardun dute egunotan eta garbiketa lanak egitea besterik ez da faltan orain. Berez, futbol denboraldiaren hasierarekin batera lanek gertu egon behar zuten, eta Valen Moñux Hirigintza teknikariak azaldu du COVID-19aren ondorioz atzeratu egin direla azaldu du.

Eraikin berriak lau aldagela ditu: bi ezkerrean, etxeko taldearenak, eta gorri margotuta daudenak; eta beste bi eskuinaldean, aurkaria jasotzeko gertu daudenak. Erdian, berriz, epailearendako aldagela dago.

Biltegia, bulegoa, masaje gela eta komun publikoak -herriarrendako une oro zabalik eta erabilgarri daudenak- ere badiu, eta, gainera, aldagelak taber-



Etxeko taldearen aldagela berria. M. A.

nari lotuta daude orain. Hirigintza teknikariak aitortu du espazioa irabazi duela eta aterpe txiki bat ere egin diotela.

Proiektutik kanpo, eraikinaren aurrealdea asfaltatu dute. Hasierako aurrekontua zazpi mila

euro igo du azken orduko lan horrek. Saneamendu lanak ere egin dituzte, eta kostua 10.000 eurokoa izan da. Gogoratu behar da obra osoak 310.000 euroko aurrekontua duela eta Udalak, Diputazioak eta Bidegik adostuta ordainduko dela: Udalak eta Diputazioak, bakoitzak, 110.000 euro jarri dituzte; eta 90.000 euro Bidegiren aseguruak.

**Egonkortze lanak**

Bertan egin diren egonkortze lan sakonak azpimarratu nahi izan ditu Hirigintza teknikariak. "Diputazioak terrenoan egin zituen egonkortze lanez gain, guk ere aprobetxatu dugu obra honetan lurra sakonago egonkortzeko. Horregatik, uste dugu bertan dagoen lur-mugimenduen arazoari irtenbidea ematea lortu dugula".

Eztalako aldagela berrien inaugurazioak, aldiz, itxaron egin beharko du, pandemiaren egoera egonkortu arte.

## Ostalaritza-sektoreak bizi duen egoera salatuko dute bihar

SOS Ostalaritza plataformako ostalariek manifestazioa deitu dute, ostalaritza-sektorea "desagertzeko arriskuan" dagoela salatzen. Manifestazioak hiriburuetan egingo dira bihar, zapatua, eta Antzuolako ostalariek ere bat egingo dute, 18:30ean, Beheko auzoan. "Bezeroen eta herritarren babesa ezinbesteko dugu, eta manifestazioan parte hartzeko dei egiten diegu balikoietatik zein kalean lapikokada bidez. Ostalaritza desagertzeko zorian dago. Salatu nahi dugu osasun neurri hauek ostalaritzaren itxiera dakartela. Ulertzen dugu osasun-neurriak hartu beharra, baina ez horren neurri zorrotzak".



NIRE USTEZ

ION LIZARAZU

## Gure Gipuzkoa?

Semaforo sistemak 5.000 biztanletik gorako herrietarako soilik balio du, eta gorria da azken 14 egunetako positiboa batura 100.000 biztanleko 500etik gorakoa denean. Gipuzkoa 89 udalerriz osatuta egonik, horietako 33k soilik betetzen dute baldintza, eta 56 kanpo daude. Biztanleriaren %8,2arentzat -58.685 biztanle- ez du balio herri bezala.

Probintzia bezala semaforo sisteman ere sartu dute, eta urriaren 19an egoera gorrian sartu zen. Baina Gipuzkoa bitan banatuko bagenu? 56 herriko Gipuzkoa Ttipia eta beste 33ren Gipuzkoa Handia? Gipuzkoa Handia semaforo gorrian urriaren 20an sartua izango zen, hau da, Gipuzkoa bera baino egun bat geroago.

Ondorioz, Gipuzkoa Ttipia lehenagotik zegoela egoera kaxkarrean, zehazki urriaren 14an sartuak izango ginen egoera gorrian. Berriz ere, aintzat hartu gabeak txikiak, eta egoera larriena pairatu dugunak. Noiz arte jarraitu behar dugu ikusezin izaten?

# Banku zerbitzu hobea eskatzen dute dendariak

Kutxabank-ek astean bitan ematen du aurrez aurreko zerbitzua Antzuolan, eta Elgetarako ere antzeko zerbitzu eskatzen dute herriko merkatariek eta ostalariek. Diru-sartzeak egiteko kutxazaina kendu egin dutela-eta berriz jartzeko eskatzen dute

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Garai zailak dira merkataritza-erendako, eta Kutxabankek aurrez aurreko arreta zerbitzua kendu izanak gehiago zaildu ditu gauzak. Bost hilabete dira bulegoa itxi zutela. Aldizkako aurrez aurreko zerbitzua eta diru-sartzeak egitea ahalbidetzen duen kutxazain automatikoa eskatzen dituzte. "Gora eta behera gabiltza diruarekin, txanponak eskatzeko zerbitzurik ez dugu herrian...", azaldu du janari dendako Bea Bouzasek. "Jokaldi makurra egin digute. Bizitza osoa Kutxan, eta orain hau. Ba ni beste entitate batera noa. Egin dut eskaera, eta astean hasi naiz agiriak sinatzen".

Kutxarekin jarraitzen dute Elkoro botikan eta Haizea tabernan, baina ez gustura daudelako. "Uste dut beste entitateak ere antzera dabilzala, eta salta handia da hornitzaile guztiekin datuak eguneratzea, baina sutan nago. Mesedez, makina hori diru-sarrerak egiteko modukoa izatea eskatzen dut. Orain dagoenarekin nik ez dut ezer egiten". Txanponetarako, berriz, jendearen borondateatik tiraka dabilzala. "Elizan jasotzen den dirua ekartzen didate aldatzeko, jendeak itsulapikoko txanponak ekartzen dizkit... Horrela gabil-




Bea Bouzas, janari dendan, bezero bat artatzen. L.Z.L.

tza". Haizea tabernako Bittor Gallastegik uste du banku gehienek berdin jokatzeko dutela, eta bulegoak ixten ari direla gastuak murrizteko. "Eta gu bueltaka gabiltza dirua eramateko, kanbioak eskatzeko... Eta ilara handiak egiten ditugu, aldiro. Plazako kutxazainak diru-sarrerak egiteko aukera emango balu lagungarria izango litzateke".

Bolatokiko Mari Carmen Salas, harategiko Imanol Albizu eta Saioa Aranzabal masajista aspaldi aldatu ziren entitatez. Ez dute itxiera hainbeste sumatu,

baina herriarentzat kalte handia izan dela uste dute. "Koinatua haserretu zen kontuan, gutxienez, 3.000 euro eduki behar genuela esan ziotenean", esan du Salasek. "Niri %4ko komisioa kobratu nahi zidaten kanbioak eskatzeagatik", azaldu du Albizuk. "Baina, zalantzarik gabe, itxiera kolpe gogorra izan da herriarentzat", gaineratu du. "Nik ere kobratzen zizkidaten komisioengatik utzi nuen Kutxabank", azaldu du Aranzabalek. "Banketxe berria ez da zerua, baina horrela daude gauzak".




Elgetako plazan dagoen kutxazain automatikoa. L.Z.L.

## Kutxazain hobea eskatzen dute

"Bulegoaren barruan diru-sarrerak egitea ahalbidetzen zuen kutxazain automatikoa zegoen lehen, eta mantendu egingo zutela agindu ziguten, baina ez da horrela izan", adierazi dute merkatariek. Jokamolde oso itsusia izan dela uste dute.

## Kalte handia egin dizu itxierak?



**JULIAN MARKIEGI**  
KIOSKOKO SALTZAILEA

"Niri demaseko kaltea egin dit itxierak. Asko igarri dut. Ezin naiz herritik mugitu eta laguntza behar dut, batez ere diru-sarrerak egiteko. Senitarteko batek egiten dizkit, beste herri bateko kutxazain batera joanda; izan ere, fakturak berdin iristen dira eta ordaindu egin behar dira".



**ELENA ELKORO**  
BOTIKARIA

"Kanpora joan behar dugu bai irabaziak ingresatzera bai txanponak eskatzera, eta guk ixten dugunean itxita daude banketxeak. Niretzat alferrik dago plazako kutxazaina. Ez dit zerbitzurik ematen. Hain haserre nago, txanponak eskatzera joatea ere ekidin egin dudala bost hilabeteotan".

## EUSKARALDIA

### Azken egunak 'ahobizi' edo 'belarriprest' izena emateko

Iritsi dira Euskaraldiko txapak eta laster ekingo diogu banatzeari; ez utzi izen-ematea azken txanparako

**Goiena komunitatea**

Euskaraldia batzordea / ELGETA

Hamabost egun besterik ez da falta azaroaren 20an abiatuko den Euskaraldiari hasiera emateko.

Elgetan ere gertu ditugu ahobizi eta belarriprest txapak eta laster ekingo diogu horiek banatzeari. Aurretik, ezinbestekoa da norbanakoek izena emateko.

tea. [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunetik, eskuragarri dagoen Euskaraldia aplikaziotik edo kalean dauden QR kodeak erabilita egin daiteke. 220 ahobizi eta 42 belarriprest izan ginen Elgetan orain bi urte. Herritar asko daude izena emateko oraindik; izan ere, 87 ahobizi eta 12 belarriprest gaude, oraingoz. Ez utzi azken unerako! Pandemia egoerak ez du laguntzen, baina euskarak guztion beharra du!



Ahobizi eta belarriprest txapak. L.Z.L.

### Ozkarbi elkarteko Gabonetako loteria eskuragarri

Ozkarbiko zuzendaritzak jakinarazi du elkartea itxita egonda ere Gabonetako loteria eskatze-ko aukera emango dutela. "Gaur eta domekan elkartearen kanpoko aldean egongo gara Gabonetako loteria nahi duten bazkideek eskatu ahal izateko. Gaur, barikua, 18:30etik 20:00etara eta domekan 11:00etatik 13:00etara", adierazi dute.



# Nork bere nortasuna aske bizitzeko aldarria

Andoni Mutiloa aktore hernaniarrak 'Esnatu naiz' kabareta eskainiko du, domekan, Espaloian. Trans kolektiboko kide bat du protagonista, eta bete ditu bere ametsak. Hori bai, bere herritik alde egin behar izan zuen bertan ezin zelako bera izan

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Fikziozko istorioa da, baina pertsona askok bizi duten erreallitatea dela uste du Mutiloak. "LGTBI kolektiboari eta, batez ere Trans kolektiboari, ikusgarritasuna eman nahi dio obra honek", azaldu du. Ez da autobiografikoa, baina asko du beretik. "Nire bizipenak ez dira hain muturrekoak izan, baina uste dut Pellok eta biok oso antzeko bidea egin dugula".

Londresko klub batean artista lanetan diharduen Elur da istorioko protagonista. "Klube-ko artista ezagunena da, eta lortu du bere ametsa. Artista da eta *show* bat du gauero, baina zerbait gertatuko zaio domekan, eta publikoarekin hitz egiten hasiko da. Bere bizipenak kontatuko ditu, eta, horrekin batera, nondik datorren. Hala jakingo dugu Elur artistaren atzean Pello dagoela, Gipuzkoako herri txiki bateko mutila. Herrian ezin zuen den bezalakoa izan, eta alde egin zuen".

Gipuzkoako herri txiki bat da Elgeta, eta esanahi berezia du Mutiloarentzat obra bertan antzezteak. "Uste dut edozein herri txikitik dugula erreallitate hori. Xelebreena da jendeak, askotan, ez dituela dibertsitateak ikusten. Gaur, oraindik ere, identitate sexual batzuk ezin dira lasaitasunez eta modu irekian bizi, ez dutelako ikusgarritasunik. Kolektiboko jendeak, sarri, alde egitea erabakitzen du".

## Kabaret formatuan

Dantza, antzerkia, kantua, umorea, drama... denetik dago *Esnatu naiz* kabaretean. "Gaia serioa eta sakona da. Euskal gizartearen egiten zaion kritika bat ere bada, baina ez nuen alde iluna bakarrik islatu nahi. Trans kolektiboko jendeak badu alde bat oso distiratsua, alai eta sortzailea dena. Ondo pasatzeko gogoz dagoen jendea da, eta bi-



Andoni Mutiloa, ikuskizuneko protagonista den Elur antzeztzen. 'ESNATU NAIZ' KABARETA

## ANDONI MUTILOA: "OBRA HONEK IKUSGARRITASUNA EMAN NAHI DIO LGTBI KOLEKTIBOARI"

zitzaz gozaten dute. Hori ere sartu nahi nuen, eta kabareta formatu oso egokia da. Obrak badu gonbidapenetik ere. Nork bere benetako nortasunarekin bat egiteko eta hori egunerokoan bizitzeko gonbidapena da. Ez da

erraza izaten; talkak egoten dira ingurunearekin. Talka horien inguruko gogoeta ere bada *Esnatu naiz* kabareta", zehaztu du Mutiloak.

## Sarrerak doan, erreserbarekin

Udalak antolatu du emanaldia eta sarrerak doan dira. Eserleku kopurua, ordea, mugatua izango da eta komeni da sarrerak aurretik erreserbatzea. Udal webgunean dago aukera hori *-Elgeta.eus-*. Emanaldia domekan izango da, 18:30ean, Espaloia kafe antzokian.

## Beste hiru hitzordu azaroan

*Domeka kulturalak 2020* egitarauaren baitan beste bi emanaldi eta argazki lehiaketa bat iragarri ditu Udalak. "Azaroaren 15ean, *Eolo68* haur ikuskizuna izango dugu; eta hilaren 22an, *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean* antzezlan", gogoratu du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok. "Aurten ezingo dira *Pintxo domekak* egin, eta kultura segurua denez eta kultura babesteko egitarau berezi bat antolatu dugu. Publiko guztiendako eskaintza egin dugu, eta halaxe daude hainbat formatu eta generotako hiru proposamen".

Argazki lehiaketari dagokionez, argituta dago proposatutako lau gaiak zeintzuk diren: *Elgetan bizi, kultura, irribarrea eta udazkeneko iluntzeak*. Interesatuak hilaren 30era arteko epea dute *danonartian@elgeta.eus* helbidera lau argazki aurkezteko.

## Hilerriarekin ardura pixka bat hartzeko eskatu diote Udalari

Iraitz Lazkano alkateak esan du urte askoan ez bezala lau urteotan inbertsio handiak egin direla kanposantuan

**L.Z.L.** ELGETA

Begoña Ardanza arduratzen da hilerriaz. "Herritar talde bat gara eta errespetu pixka bat eskatzen dugu. Senitarteokak ditugu hilerriari, eta ez da itxura". Belarra gehiagotan mozteko, hondakinak sarriago husteko eta argiteriarekin dauden arazoak konpontzeko eskatzen dute. "Aurretik ere egin ditugu eskaerok udaletxean", esan du Ardanzak Maria Jesus Leterekin batera.

Belarra urtean bitan mozten dela diote. "Hilarriak belar artean estalita gelditzen dira. Edukiontzietako zaborra, berriz, haizeak zabaltzen du, eta azkenaldian ez da kanpoko argirik pizten. Domu Santu eguneko loreak banatzeko lotsagarri ibili ginen, eta azkenaldian egindako bi hiletatan irrigarri geratu gara". Kolunbario berrien egoerarekin ere kritiko dira.

Alkateak erantzun du 75.000 euro pasatxo inbertitu direla hilerriari azken lau urteotan: horma konpontzeko, argi berriak jartzeko, kolunbarioa egiteko... Gaineratu du urtean, gutxienez, lau aldiz mozten dela belarra. "COVIDa dela-eta normalean baino beranduago hasi gara,



Hilerri sarrerako San Roke ermita. L.Z.L.

baina mozketa kopurua bera izango da". Bolumen handia hartzen duten hondakinak izanik edukiontzia bete egiten direla esan du, eta abisua jaso orduko husten dituztela. Gehitu du arazoak eman dituela argiak modu programatuan pizteko erloju berriak. "Hemendik aurrera kaleko argiekin batera piztuko dira". Kolunbarioen tapak, bi, haizeteak apurtu zituela azaldu du, eta ikusi eta hurrengo egunean konpondu zituztela. "Halakorik jakinez gero, berehala abisua ematea eskatzen dugu".



NIRE USTEZ

AIZPEA URIBE BALANTZATEGI

## Zinema eta euskara

Badira urte batzuk seme-alabekin euskarazko zinema ikustera joaten garela. Garrantzitsua iruditzen zait beraiek jakitea aukera hori badagoela. Zineuskadik programa bat du eta urtean dozena bat pelikula bikoizten dituzte. Euskaratzen diren pelikula asko ez dira normalean ikusi ohi diren Disneyko edo Pixarren film komertzialak. Horregatik, akaso, ez da jende asko ikusten aretoetan. Durangora eta Bilbora joan izan gara, eta bietan ere jende gutxi egoten da, normalean. Zer egin beharko litzateke? Pelikula komertzialagoak euskaratu nahiz eta bertan erakusten diren baloreak ez izan gurasook nahiko genituzkeenak? Sarrerak merkatu? Publizitate hobe egin jendeak programa ezagutu dezan? Orain hilabete batzuk, bikoiztailleek salatu zuten duela hogeitau urte baino lan gutxiago zutela, eta greba egingo zutela lan baldintza duinak eskatzeko. Nola da hori posible? Gero eta gutxiago euskaratzen dela diote eta, egia esan, ETB3ren programazioan aspaldiko marrazki bizidunak ematen dituzte. Gogoratu beharko genuke zertarako sortu zen ETB eta aurrekontua horren arabera erabaki.



Mirari Sagarzazu eta Idoia Etxeberria, liburuxka bana eskuetan dutela. O.E.

## Oñatiko hika, poltsikoan eramateko liburuxkan

Ingo Xonau! proiektuaren barruan, Oñatiko hika ikasteko oinarritzko informazioa eta aditz-taulak batzen dituen liburuxka plazaratu dute, poltsikoan eramateko modukoa. Ilustrazioak ere baditu, eta adibideak komiki eran daude azalduta

### Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko hika poltsikoan eramateko moduko liburuxka atera du Ingo Xonau! egitasmoak. Eskuetan erabiltzeko tamaina egokia du, diseinu argia, eta oinarritzko taulekin batera marrazkiz ilustratutako adibideak ere badatoz. Hika ikasi eta praktikatu gura duen edonorendako aproposa.

### Aditz taulak eta adibideak

Aditz taulak zuka eta hika datoz: hitanoa, mutilena zein emakumeena. "Hasierako orrietan xaton azalduta proiektuaren sorrera, erabilera ohiturak, menpeko esaldietan zelan erabiltzen den eta horrelako argibide batzuk", gaineratu du Idoia Etxeberria, Ingo Xonau! proiektuaren gidariak.

Emakumeen artean noka gainbehera etorri dela ikusita sortu zen Ingo Xonau! proiektua Oñatin orain dela urtebete pasa. Hainbat herritar elkarriketatu zituzten hitanoaren, erabileraren,

ohituren eta bestelako gaien inguruan, eta joan den otsailean hikalagunak taldeak sortu ziren, hitanoa ikasi eta praktikan jartzeko tertulia saioak. Urrian jarraipena izan dute hikalagunen saioek.

Orain, poltsikorako tamaina duten liburuxkak atera dituzte; 2.000 ale atera dituzte, eta hikalagunen artean banatu eta hika ikastaroetan eta Udal Euskaltegian eskuratzeko aukera egongo da. Badihardugu euskara elkarreko eta Ingo Xonau! egitasmo-ko gidari Idoia Etxeberria prestatu du, Roberto Altuna euskaltegiko irakasleak lagunduta, eta Mirari Sagarzazu marrazkilaria egin ditu diseinua eta ilustrazioak. 32 orri ditu,

**32 ORRI DITU ETA  
2.000 ALE ATERA  
DITUZTE HIKA IKASI  
GURA DUTENEN  
ARTEAN BANATZEKO**

guztira. Batetik, hitanoari buruzko argibideak eta informazio orokorra datoz, eta, bestetik, aditz-taulak: adizki nagusiak eta aditz trinkoak, marrazkiekin lagunduta. Elkarlanean eta mimos egindako produktua da liburuxka. "Aditz-taulen azpian adibide bat xaton, eta komiki bat adibide horrendako. Hor agertzen don idatziz zelan izango zonan elkarriketa. Oso bisuala don, ikusteko samurra".

### Jabetze Eskolan ikastaroa

Azaroako Kontzejupetik aldzkarian aditz taulen laburpen bat etorriko da, aldean eramateko: *Oñatiko hikaren txuletia*. Hitanoa aditz eta adizki nagusiak etorriko dira hor, gehien erabiltzen direnak. Liburuxkaren bertsio laburra izango litzateke. Online ere jarriko dute liburuxkan jasotakoa.

Bestalde, azaroaren 10ean noka ikastaroa egingo dute Jabetze Eskolaren barruan. Udal webgunean eman daiteke izena.



Biribilgunea egin gura duten puntua. O.E.

## Aurrera doa Munazategiko biribilgunearen proiektua

Aldundiak ondo ikusi du, eta biribilguneak hartuko dituen lurren desjabetzearekin hasiko dira orain

### O.E. OÑATI

Aurrera doa Munazategi guneko biribilgunearen proiektua. Foru Aldundiak ontzat eman du, eta orain, biribilguneak hartuko dituen lurak desjabetzeko faseari ekingo diote.

### Industrialdeko sarrera hobetu

Biribilgunea egiteko, jabe ezberdinenak diren bederatzirailsail ukituko dira, eta bakoitzaren afekzio maila desberdina izango da. Zortzi desjabetuko dituzte eta beste batzuk obrak irauten duten bitartean erabiliko dituzte, aldi baterako har-

tuko dituzte. Tramitazioak has-teko, ikusgai jarri dute lursailen zerrenda udaletxeko Hirigintza Departamentuan eta Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren Donostiako bulegoan.

2010etik datorren proiektua da hau. Apirilean, udalbatzak onartu zuen, aho batez, Udalaren eta Ulmaren arteko akordioa proiektua egiteko. Biribilgune horrek Munazategiko industrialdeko enpresetarako sartu-irteera hobetuko luke, eta, era berean, Garibai auzora sartzeko modua erraztu.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Zikinez beteta erretokia

Mikeletetxen atera du argazkia erredakziora bidali digun herritarrek, eta portaera hori "lotsagarria" dela deritzo. Sua egiteko tokia zikinez beteta topatu zuen aurrekoan.



Oñatiko Atzeko kalea, barrenean herriko plaza eta parrokiako kanpandorra ikusten direla. GOIENA

## Bonuen erdiak baino gehiago erosita daude

Herriko komertzioetan eta ostalaritza zerbitzuetan oñatiarrek erabiltzeko udazkeneko erosketa bonuek ere harrera ona izan dute. 2.000 herritarrek hartu dute parte, oraingoz, kanpaina horretan; bonu gehienak dendetan bertan eskuratu dituzte

### Oihana Elortza OÑATI

Herritarrek herriko bertako komertzioetan eta ostalaritza zerbitzuetan erabiltzeko Udalak atera dituen bonuen erdiak pasa banatu dira dagoeneko; 3.000 bonu, astelehenerako datuen arabera. Kanpaina horrekin, dagoeneko 300.000 euroko diru mugimendua sortu da herriko komertzioetan.

### Online eta dendetan

Urriaren 13an jarri zen martxan bonuen kanpaina, eta hiru astean bonuen erdiak baino gehiago erosi dira.

Astelehenera arte Udaleko Ekonomia Sailean batutako datuen arabera, 2.000 herritarrek hartu dute parte kanpaina horretan eta 3.000 bonu erosi dituzte, horietatik gehienak dendetan. "Kuttuna kanpainarekin ez bezala, oraingoan herritarrek aukera dute online ez ezik dendan, zerbitzu edo jatetxean bertan bonuak eskatzeko, eta, orain arteko datuen arabera, aukera

hori erabili dute kanpainen parte hartu duten herritar gehienek. Erosoa zaie, antza. Dendariak ere ohitu dira zerbitzu hau eskaintzera, ez dute zailtasunik, eta oso ondo ari da funtzionatzen aukera hau", dio Sozioekonomia Saileko udal teknikariak, Unai Kortabarriak.

Kortabarria berak emandako datuen arabera, astelehenera arte saldu diren 3.000 bonuetatik 1.000 online erosi dituzte herritarrek -[www.bonoak.eus](http://www.bonoak.eus) helbidean- eta beste 2.000k dendan edo ostalaritza zerbitzuan bertan.

### Ostalaritzan ere bai

Izan ere, bonuak arropak, oinetakoak, altzariak, liburu eta koadernoak, jostailuak edo in-

**DAGOENKO OÑATIKO ZORTZI DENDAK LORTU DUTE 'SINGULAR DENDA' DERITZON AITORTZA**

formatikako produktuak saltzen dituzten dendetan ez ezik, ile apaindegietan, edertasun zentroetan, optiketan edo instalazio dendetan ere erabil daitezke. Eta baita herriko hainbat jate-txetan ere.

### Beste bi 'singular denda'

Herritarrak ondo ari dira erantzuten herriko komertzioak bizirik jarraitzeko asmoz martxan jarri den kanpaina horri. Eta, aldi berean, herriko denda eta komertzioek lanean jarraitzen dute herritarrari ahalik eta zerbitzu osoena eta goxoena eskaintzeko. Horren adibide da, esaterako, herriko beste bi dendak lortu dutela *singular denda* aitortza: Trikitx eta Oñabike dendek. Gipuzkoako Merkatari Elkartearen programa bat da hori, denden balioa ikustarazten laguntzen duena, eta formakuntza bati jarraituz lortzen dute aitortza hori dendek. Azken bi horiekin, Oñatin zortzi dira lortu duten dendak.

## Dena dute lotuta ahal denean eskola kirolarekin hasteko

Egoerak baimentzen duenean hasiko dira martxan, Oñatin, eskola kirola eta kirol eskola

### O.E. OÑATI

Etorriko diren araudi berrien zain daude Oñatiko Kirol Saileko langileak, ahal bezain laster eskola kirola ere martxan jartzeko, ez baita oraindik hasi.

### Neurriak hartuta

Oñatiko Udalak erabaki zuen fitness jarduerak bertan behera uztea urriaren 23an, orduko alarma egoeran. Astebetez etenda egonda, baina aste honetatik aurrera martxan daude herritarrei kiroldegian eskaini ohi dituzten aukerak: fitbikea, pila-tesa, zumba, body tonua, body

balantzea eta gimnasia terapeutikoa. Taldeak sei pertsonako azpitaldetan banatu dituzte, areto batzuk bi multzotan zatitu dituzte, irteera gehiago ere egokitu dituzte eta partaideen erregistro bat egingo dute, besteak beste. Egoera zein den ikusita, jardueretan parte hartzeari uztea erabakiz gero lehenbailehen abisatzea eskatu dute. Egoera zein den ikusita, jardueretan parte hartzeari uztea erabakiz gero lehenbailehen abisatzea eskatu dute. Eskola kirolaren eta kirol eskolaren eskaintzak ere hasteko prest daude.



JOXE ANJEL URKIA

## Perretxiko erakusketa zaharrak

1984an, ikastetxeetako neska-mutikoekin perretxiko txapelketa bat egitea pentsatu zuten; hamar bat urte iraun zuen ekimenak. Asteazken zehar mikologia lantzen zuten ikasgeletan, zapatuan perretxiko bila joan eta domeka goizean plazan erakusten zituzten batutakoak. Argazkia sasoi hartakoa da; Jabier Galartza eta Joxe Anjel Urkia ageri dira epaile lanetan.

# "Kalitatezko eskaintza izango dugu aurten ere"

**KEPA ARANBURU** BERATU MUSIKA JAIALDIAREN ANTOLATZAILEA

Gaur arratsaldean Los Sara Fontan eta Sua taldeek irekiko dute Beratu musika jaialdiaren hirugarren edizioa; bihar eta domekan ere izango da zer ikusi eta entzun

**Maialen Santos OÑATI**

Eguaztenean hastekoa zen aurtengo Beratu jaialdia, baina Aitor Etxeberria musikariak ezin izan zuen emanaldia eskaini. Hori horrela, gaur ekingo diote jaialdiari.

**Aurreikuspenak ezin izan zenituzten bete eguaztenean...**

Aitor Etxeberria musikari gerrikarrak *Markak* dokumentalerako konposatutako soinu banda zuzenean aurkeztu behar zuen egun hartan, Santa Ana aretoan. Baina bertan behera geratu zen hitzordua, eta zapatuko kontzertura ere ez da etorriko; konfinatuta dago.

**Dena ondo bidean, gaur ekingo diozue Beratu jaialdiari...**

Hala izan dadin espero dugu, bai. Gaur arratsaldean, 20:00etan, Los Sara Fontan eta Sua taldeek eskainiko dute emanaldia Santa Ana aretoan. Bihar, Gaizka Insunza egongo da entzungai, ordu eta toki berean. Lazarragako lorategiak Hakima Flissiren kontzertua hartuko du domekan, 12:30ean, eta Joseba Irazoki Antixeneko gaztetxean izango da egun berean, 18:00etan.

**Zergatik hiru lokalizazio ezberdin?**

Urtero saiatzen gara kontzertuak egiteko tokiak deszentralizatzen. Egia da aurten, baldintzengatik, asko zentralizatu ditugula emanaldiak Santa Ana aretoan; izan ere, hori da jende kopuru handien batzea ahalbidetzen digun tokia –betiere, segurtasun neurri guztiak mantenduta–. Beste bi tokiak aire librekoak dira: Lazarraga lorategia eta Antixeneko gaztetxea. Eguraldi txarra egingo balu, gaztelekura lekualdatuko genituzke toki horietan egitekoak diren kontzertuak.

**Nolako egitaraua da aurtengoa?**

Nibela oso altu dagoela esango nuke. Urtero saiatzen gara kalitatezko eskaintza ematen, eta aurten ere maila oso ondo mantentzen dela uste dut. Nik neuk bereziki ikusteko gogoia dut Los



Kepa Aranburu, Beratu jaialdiaren antolatzaileetako bat. M.S.

## "PROPOSAMEN ALDETIK IRIZPIDEAK MANTENDU DITUGU, ETA KALITATEA ERE MANTENDU DUGU"

Sara Fontan bikotea: aurretik *Za!* taldeko kidea zelako eurtako bat; eta interesa pizten dit horrek. Hakima Flissiren emanaldia ere oso interesgarria izango delakoan nago.

**Zein irizpideren arabera aukeratu dituzue musikariak?**

Antolatzaileen iritziz kalitatezko proposamenak diren horiek ekartzen saiatzen gara. Hori bakarrik ez: saiatzen gara talde bat izan ezik beste guztiak eskaldunak izan daitezzen, eta euskaraz aritu daitezzen.

**Hego zein ipar Euskal Herriko taldeak ekartzen dituzue...**

Hala da. Saiatzen gara bietakoak egon daitezzen. Aurten Mõi Mõi Orkestra Magikoa zen etortzekoa udaberrian, baina, jaialdia atzeratu egin genuenez, azkenean, ezingo dira etorri. Horretaz gain, saiatzen gara parekidetasuna bilatzen, taldeetako partaideak

gizon zein emakumeak izaten. Emakumeen presentzia bermatuta egon dadin gura dugu eta. **Kataluniatik ere etorriko dira aurten...**

Bai. Los Sara Fontan izango da, nolabait, talde gonbidatua.

**Zein eboluzio izan du jaialdiak lehen ediziotik?**

Entzuleen aldetik izan du eboluziorik handiena. Lehen urtean, normala den moduan, ez zuen inork ezagutzen; bigarrenetan, gehixeago ezagutzen zuten; eta hirugarrenean igarri da jendea jakin-mina piztuta zegoela martxoan. Bestetik, proposamen aldetik irizpideak mantendu egin ditugu, eta kalitatea ere mantendu dugula esango nuke.

**Sarrerak non eskuratu daitezke?**

Oñatiko Udalaren webgunean eta Txokolateixan. Santa Anako kontzertuetarako salneurria 7 eurokoa izango da, baina Insunzarena eta Santanatik kanpokoak doan izango dira. Emanaldi guztietarako eskuratu beharko dira sarrerak, hala ere.

**Segurtasun neurriak ere errespetatu beharko dira...**

Bai. Gehienez ere, edukieraren erdia beteko dugu toki guztietan, eta, jakina, maskararen erabilerak nahitaezkoa izango da.



Delarrima taldeak irabazi zuen iazko film laburren rallya. IMANOL SORIANO

## Datorren zapatuan egingo dute Oñatiko XI. film laburren rallya

Emanaldirik ez dute egingo Santa Anan. 'Streaming' bidez eskainiko dituzte laburrak; domekan, 17:00etan

**M.S. OÑATI**

Koronabirusak baldintzatuko du aurtengo edizioa, eta, beraz, gehienez ere sei partaide izan ahalko ditu talde bakoitzak, neurriak aldatzen ez badira. Halere, guztira hogeita hamar parte hartu ahal izango dutela azaldu du Andoni Galdos antolatzaileak, "taldeek euren artean kontakturik ez dutelako izango". Eguaztenean arte, hamalau taldek zuten izena emana.

**Baldintza ezberdinak**

08:00etan elkartu eta parte-hartzaileek elkarrekin gosaltzeko ohitura izan ohi dute; aurten, baina, ezin izango dute horrelakorik egin: "Aurten, talde bakoitzeko bi partaide soilik etorri ahal izango dira Santa Anara, eta bertan emango dizkiegu azalpenak". Hain zuzen, gaia eta film laburrean agertu beharko den objektua zein diren zehaz-

tuko dute. "Oñatiko hamar leku ezberdin ere emango dizkiegu, eta, gutxienez, horietako bitan grabatu beharko dute eszenaren bat", argitu du Galdosek.

**Gauean emanaldirik ez**

Film laburra entregatzeko moduan ere izango dira aldaketak. Parte hartzaileek 17:00etatik 19:00etara entregatu ahal izango dute lana Santa Anan –gaztelekuan ez aurten– eta *Wetransfer* plataformaren bitartez egiteko aukera ere izango dute.

Gaueko emanaldirik ez dute egingo, jende pilaketak saihestea helburu: "Zapatuan bilduko dira epaimahaikideak erabakiak hartzeko. Baina emanaldia bera domekan ikusi ahal izango da, *streaming* bidez". Hain zuzen, 17:00etan eskainiko dute, OLRren Youtubeko kanalean. Publikoaren sarian bozka emateko aukera ere ahalbidetuko dute.

## Arratsalde eta gaueko zinema ordutegiak bateratu dituzte

Etxeratze-agindua 23:00etan betetzen dela eta, arratsaldeko eta gaueko zinema emankizunak bateratu egin dituzte kultura etxeko zinema aretoan. Hala, egubakoitz, zapatu eta domekan 20:00etan eskainiko dituzte pelikulak –19:30ean eta 22:30ean beharrean–. Asteleheneko emanaldiko, haurren zinemako eta zineklubeko ordutegiak bere

horretan mantendu dituzte, bestalde. Asteburu honetan *Regreso a Hope Gap* filma eskainiko dute helduentzako, eta *Como perro y gatos: la patrulla unida* gaztetxoendako.

Azaroaren 13an, baina, ez da zinema emanaldirik egongo, Mila Modu musika talde oñatiarrak *Absurdoaren paradisua* lehen lana aurkeztuko duelako aretoan, 18:00etan eta 20:00etan. Ordutegia bateratu aurretik iragarri zuen taldeak aurkezpena ordu horretan egingo zuela.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalbarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea /  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 / 943 76 97 03

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loranendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11



Ainara Diaz de Guereñu eta Susana Gomez, Behobia-Donostia birtuala bukatu ostean.

## Behobia-Donostia, nork bere herrian eta birtualki

**ATLETISMOA** Fortuna KEko antolatzaileek aukera eman dute 20 kilometroak 'Runnea' izeneko aplikazio bidez egiteko azaroaren 2tik 8rako epean. Bi debagoiendarrek lehen aldiz hartu dute parte errealitate berrira egokitu den lasterketa historikoan

**Hasier Larrea** ARRASATE

New Yorkeko maratoniak egin dituen moldaketei jarraitu die Behobia-Donostia klasikoak, betiko lasterketari irtenbide eguneratua emateko asmoz. Osasun krisiari erantzuteko jarri diren neurri murriztaileak aintzat hartuta, proba euren bizitokiaren inguruan egiteko tresna berritzailea jarri nahi izan dute lasterketako antolatzailerekin korrikalarien eskura: GPSa duen mugikor bidez erabil daitekeen *Runnea* izeneko aplikazioa.

Astebeteko epean, 20 kilometroak gelditu gabe edo zatika egiten ari dira egitasmo birtualerako parte hartzaileak. Oztopoak jarri baino gehiago, klasikoa lehen aldiz egiteko atea ireki dizkie formatu berriak hainbat korrikalari afizionaturik.

Ainara Diaz de Guereñu oñatiarrari eta Susana Gomez bergararrari galdetu besterik ez dago. Biak bat datoz formatu birtualak lasterketan parte har-

tzeko erosotasunak ekarri dizkiela baieztatzeko orduan.

Diaz de Guereñuren hitzetan: "20 kilometroko lasterketa bat ganoraz prestatzeko astirik ez dut izaten, baina etapetan banatu ahal izateak nire betebeharrarekin kontziliatzea ahalbidetu dit. Ondorioz, hiru egun desberdinetan atera naiz, saio bakoi-tzean zazpi kilometro inguruko ibilbidea eginez".

Gomezek umore puntu bat jarri dio formatu birtualari: "New Yorken 10 kilometro eta Behobian 20 egin ditut, azaroaren 29ko Egiptoko lasterketan apuntatu naiz, eta begiz jota dauzkat Rio de Janeiro eta Paris ere. Mundu zabala ezagutuko dut, azkenean!".

**Errepidea, bidegorri bihurtuta**

Argi dago lasterketa birtualak egitea gustuko duela Arrasaten bizi den bergararrak. Korrika bere kasa duela hiru urte eta erdi baino hasi ez bazen ere, ordu eta 34 minutuan amaitu

zuen, hasi eta buka, Behobia-Donostiako distantzia, tartean bizpahiru kilometroko aldapa zeharkatuz. "Erguin auzoan bidegorria hartu eta Garagartzara joan nintzen, ondoren Gesalibarrera, bertatik buelta batzuk eman eta Markuletera itzuli, gero berriz Gesalibarrera joan... Itzulinguruka ibili naiz, 20 kilometroak osatu arte".

Ainara Diaz de Guereñu ere bere bizitokiko bidegorrien sarean oinarritu da korrika egiteko ibilbideak markatzean: "Lehenengo etapa Oñatitik Zubillagaraino egin nuen, hurrengo Torreauson egiten den lasterketaren zirkuituan zehar, eta azkena Oñatiko bidegorri inguruan egingo dut baita ere".

**FORMATU BIRTUALAK EKARRI DU BENETAKO PROBAN IZANGO EZ ZEN JENDEAREN PARTE HARTZEA**

**Senideen bultzada, lagungarri**

41 urteko oñatiarra asko motibatuta du bere aitaren inplikazioak. "Bion artean hitz egin, eta berak ere eman zuen izena. Hark oinez eta bizkor egin ditu 20 kilometroak; takada batean, gainera. Nik korrika eta motel, ostera. Baina esango nuke bera baino azkarrago noala ni", bota du Diaz de Guereñuk, barre artean. Gomezek, berriz, bi seme-alabek zaharrenarekin egiten dituen batzuetan korrikaldiak: "7 urteko alaba beti ari zait galdezka ea noiz irtengo garen biok batera. Noizean behin joaten gara elkarrekin, distantzia laburrak egitera. Santamas krosean eta Zigarrolako San Silvestre proban parte hartu badut, bi txikie eskerrak izan da".

**Emakume konprometitua**

Bai Diaz de Guereñuk eta bai Gomezek gogoko dute emakumeak erdigunean jartzen dituen lasterketetan parte hartzea. Bergararrak, esaterako, *Carrera de la mujer* izeneko dinamikan eman du izena. Espainiako zortzi hiritan birtualki garatzen ari den lasterketa multzoa da, bularreko minbiziaren aurka borrokatzea helburu duena. Oñatiarra, berriz, Lilatoiaaren zitara hutsik egiten ez duen horietakoa da. "Berezia" da bertan parte hartzea, eta sorreratik ari da Donostiako lasterketan. Torreausoko proba antolatu izan du baita.

**Aplikazio arrakastatsua**

Behin Fortuna kirol elkartearen webgunean izena eman eta gero, ariketa birtualari ekiteko *Runnea* aplikazioa deskargatu beharra dago. Korrika hastean *app*-ak berak erregistratzen du distantzia eta denbora. Korrikalariari lasterketa errealeko ze puntutan egongo litzakeen ere adierazten dio.

*Runnea app*-ak bi korrikalarien oniritzia jaso du, "Behobia-Donostia klasikoa egiten zabiltzan sentazioa transmititzea" lortzen duela argudiatuta. "Karrerako giro soina entzun dezakezu kaskoetatik; hasi baino lehen esateriak atzera-kontaketa lokutatzen dizu: '3, 2, 1... Hastera doa gure Behobia!'. Ondoren, txaloak, txistuak eta animoak entzuten dituzu tarteka, publikoa zu animatzen balego bezala".

Behobia-Donostia klasikoak ere erakutsi du gizartea garai berrietara egokitzeko gai dela.

## Adrian Merinok bere lantaldea aurkeztu du Miramonen

**FUTBOLA** Federazioko presidente izateko hautagaiak teknikari gehien babesa jaso du

**H.L. ARRASATE**

Azaroaren 23an izango dira Gipuzkoako Futbol Federazioa gidatuko duen taldea aukeratzeko hauteskundeak. Juan Luis Larrearen 33 urteko mandatua ostean, bi debagoiendarren artean erabakiko da datozen lau urteetan Federazioko presidentea nor izango den: alde batetik, *Gipuzkoa: denon joko zelaia* hautagaizako Adrian Merino aretxabaletarra dago; eta, bestetik, *Garai berriak* hautagaizako Manu Diaz bergararra.

Merino UDako zuzendaritzako kidea da gaur egun, eta Juan Luis Larreak zuzentzen zuen lantaldean aritutakoa da. Donostian egindako prentsaurrekoan adierazi du "talde gaztea eta esperientzia zabalekoa" daukala alboan. Egungo Federaziolari "ikuspegi berritzaile eta integritzailea" erantsi nahi dio *Gipuzkoa: denon joko zelaia* hautagaizak.

Haren lantaldeko kide dira, esaterako, Ramon Azkarate Mondrako presidente ohia eta Nerea Uriarte Aloña Mendiko nesken futbol koordinatzailea.

**Akusazioak ekarri**

Ustez lehia garbia izan behar zuena lokatzetan zipriztindu da azken asteotan, presidentetza erdiesteko lehiaren barruan. Adrian Merinok komunikabideetan mahai-gaineratu du Reala klubei "presioa egiten" ari zaiela Manu Diazen hautagaizak babesteko. Diazek, aldiz, egungo Federazioa seinatu du, *Garai berriak* hautagaizak hauteskundeak irabazi ez ditzen "makineria martxan" jarri duela aipatuz.

Hauteskundeetarako bi aste eta erdi gelditzen dira, baina klubetako teknikariek eman dute euren botoa jadanik, eta Gipuzkoako eta Debagoieneko boto-emale gehienak Merinoren alde azaldu dira.



Xubane Garai, Garazi Estebez eta Ainhize Barrainkua, hiru txirrindulari aretxabaletar, gorenean. O.E., X.U. ETA E.F.

# Laboral Kutxa taldean eta maila gorenean

**TXIRRINDULARITZA** Laboral Kutxa taldean bigarren denboraldia izango duen Ainhize Barrainkuarekin batera arituko dira aurten Xubane Garai eta Garazi Estevez ere. Hiru txirrindulari aretxabaletarrak gorenean ariko dira, UCI WorldTourreko lasterketetan

## Jone Olabarria ARRASATE

Gaske mailatik 23 urtez azpiko mailara igaroko da Xubane Garai (Aretxabaleta, 2002) txirrindularia datorren denboraldian, Limousin taldetik Laboral kutxa taldera. "Erronka" berria taldekide izango du Garazi Estebez (Aretxabaleta, 2002) txirrindulari debagoiendarra ere. Estebezek Gipuzkoa Ogi Berri taldean egin ditu azken lau denboraldiak, kadete eta junior mailetan, eta datorren denboralditik aurrera Laboral Kutxako 12 txirrindularien artean arituko da, 23 urtez azpiko mailan. Hala ere, pistako txirrindularitzan lehia-tzeko Gipuzkoa Ogi Berrirekin jarraituko du.

## Maila eman guran

Garaik aitortu duenez, hasierako beldurrak baztertuta, "maila emateko lanean" ari da: "Itxialdian geundenean banuen beldur edo ardura puntu bat, lasterketarik ez zegoen eta ez nekien lehiara itzultzerakoan %100 eman eta egindako lana ondo erakutsi ahalko nuen. Denboraldi berri begira talde gabe geratzeko beldurra nuen".

Beste egoera batean zegoen Estebez. Hainbat talderen eskaintzak zituen: "Proposamenak iristean presio handia sentitu nuen; ia urtebetez ezer egin gabe egon naiz, eta onena eman nahi nuen. Asko baloratu ostean, Laboral Kutxaren aldeko apustua egitea erabaki dut, une honetan gehien komeni zaidana da".

Maila aldaketak lan egiteko moduan ere jauzi "handia" ekarriko duela azaldu dute: "Laboral Kutxa bada izen bat duen taldea". Itxialdiak eragindako geldialdiak gain, denboraldi "zaila" izan dela dio Estebezek: "Bi lesio izan ditut jarraian eta ia urtebetez ezer egin ezinda egon naiz".

## Taldearen garrantzia

Ainhize Barrainkuarendako bigarren denboraldia izango da Laboral Kutxan, eta, zehaztu duenez, "ilusio handiz" hartu du bailarako txirrindulariak taldekide izango dituen albiste. Taldearen izaera azpimarratu du: "Oso giro ona dago, beti elkarri laguntzeko prest". Maila gorenean ariko dira hirurak, Laboral Kutxak UCI WorldTourrean aritzeko txartela lortuta.

GOIENA TELEBISTA  
UDAZKENEKO  
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,  
%100 EMATEN

GOIENA  
20 URTE  
ALBISTE

BESTE GIZARTE EREDU BATERAKO LANEAN

## BERDINTASUNERAKO URRATSAK

GOIENA: 20 URTE 20 ALBISTE,  
ERREPORTAJE SORTA

AZAROAREN 6AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN



goiena  
20 URTE ZUEKIN.

# "Ahal dugun bitartean, lanean jarraituko dugu"

**MIREIA GABILONDO** 'ERLAUNTZA' FILMAREN ZUZENDARIA

Izen bereko antzezlanean oinarritutako filma estreinatuko dute gaur aretoetan; Amaia antzokian asteburuan izango da, datorrenean Oñatin eta hurrengoan Aretxabaletan

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Uztailean grabatu zuten, hamalau egunetan, Fikan (Bizkaia); bi bertsio egin zituzten: euskaraz eta gazteleraz. Mireia Gabilondo bergararrak bakarka zuzendu duen bigarren film luzea da *Erlauntza*.

**Estreinatzeko gogoz?**

Pozik nago; jendeak ikusteko gogoia dut. Bakardadean denbora asko egin dut muntatzen, eta iritziak jasotzeko irrikaz nago.

**Kazetarien eta arloko profesionalen aurrean erakutsi duzue. Zer moduz?**

Bilbon eta Donostian aurkeztu dugu astean, eta, orokorrean, oso ondo hartu dute. Sorpresa txiki bat izan dela uste dut.

**Garai zaila bizi dugu; estreinaldi-tarako aproposak?**

Tokatzen zaigun garaia, ez dago besterik; akaso, aproposagoak egongo dira, baina gure erabakia izan da filma egitea eta orain estreinatzea.

**Zain egon barik, aurrera egitea da bide bakarra?**

Hori da bidea, nire ustez; gelditu behar badugu, geratuko gara, baina, bien bitartean, aurrera jarraitu beharra dago.

**Zer esango zenioke publikoari?**

Ordu eta erdi irauten duen komedia bat da, eta ikustera etortzeko. Pertsonaia batekin ez bada, beste batekin identifikatuko



Mireia Gabilondo, eguztenez Donostian egin zuten aurkezpenean. TENTAZIOA

## "PERTSONAIA BATEKIN EZ BADA, BESTEAREKIN IDENTIFIKATUKO DIRA IKUSLEAK"

zaretela seguru nago. Garaiak halakoak dira, eta komedia bat ez dago gaizki giroa gozatzeko. **Zer dela-eta okurritu zitzaizuen antzezlanaren film bilakatzea?**

Kepa Errastik idatzitako gidioan oinarrituta dagoen antzezlan

orain dela bi urte estreinatu genuen, eta antzokietan jarraitzen du oraindik ere. Orain dela urtebete, film bat egiteko proposa zela pentsatu genuen, eta gidoia moldatzen hasi ginen Kepa eta biak. Dirulaguntza eskatu genuen, baina ez genuen jaso, eta tiraderan gordeta geratu zen gidoia; baina konfinamenduan, orduan zela filma egiteko momentu aproposa erabaki genuen. Aktoreak ados zeuden, talde tekniko txiki bat osatu genuen, eta toki bakarrean grabatu genuen guztia.

**Ondo moldatzen zarete elkarrekin lanean Kepa eta biak, ezta?**

Bai, hala da; gidoia bion artean moldatu genuen, eta errodejaren egunero egon zen gurekin. Gauzak antzerako ikusten dituzunekin lan egitea polita da.

**Antzezlanaren ikusi duenarentzat izango da berrikuntzarik filmean?**

Zer edo zer ezberdina ikusiko duela esango nuke, nahiz eta istorio bera eta pertsonaia zein aktore berak izan. Egokitzapen bat egin dugu filmerako, espazio txiki berri bat agertzen da filmean, eta horrek gauzak apur bat aldatzen ditu.

**Bi bertsio grabatu dituzue. Zergatik?**

Antzerkian ere hala egin genuen. Bi bertsio original nahi genituen, gero azpituak ipini beharrean edo bestelako ekoizpen gehiago egin barik. Sekuentziak grabatzen genuen; hizkuntza batean lehenengo, eta ontzat emandakoan beste hizkuntzan grabatzen genuen segidan. Aktoreek testua bi hizkuntzatan zekiten, eta, horregatik, azkar grabatu genuen.

**Fernando Velazquezek eman dio azken dirdira musikarekin.**

Jende askok deitu zigun laguntzeko gogoz, eta horien artean Fernandok. Gure asmoa ez zen soinu banda egitea, kantu batzuk bakarrik sartzeko asmoa genuen, hasiera batean, baina Velazquez-zen proposamena onartu genuen, nola ez. Kolore politak ematen dizkio musikari, komediari laguntzen dio eta intriga pixka bat ere ematen dio... Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatu du; hortaz, luxua.

**Laster estreinatuko duzuen *Sisiforen paperak* antzezlanarekin ere buru-belarri ari zara. Zer moduz?**

Oso gustura! Hamabi aktore gara, Fernando Bernuesek zuzendu du eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera du ardatz.

## 'La trinchera infinita' filma Oscar sarien bidean doa

'El hoyo', eta 'O que arde' filmak ziren beste bi hautagaiak; 'Loreak' ere aukeratua izan zen aurrez

**A. Aranburuzabala** ARRASATE

*La trinchera infinita*—Jon Garaño, Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi— filma aurkeztuko du Espainiako Zinema Akademiak Oscar sarietara, nazioarteko film onenaren sailerako hautagai. "Ez genuen, hasiera batean, aukeratuak izatea espero. Sekulako sorpresa izan zen, eta, egia esan, sekula baino besarkada handiagoak eman genion elkarri. Sorpresa itzela", kontatu du Aitor Arregik.

Pandemiaren ondorioz, inoiz baino beranduago—apirilaren 25ean— banatuko dituzte sariak, baina Aitor Arregiren lantaldeak beste hainbat aukeraketari egin beharko die aurre galara iristeko. "Beste bi maila handi igo behar ditugu. 80 filmeko multzoan gaude orain, herrialde bakoitzak berea bidali du, eta horien artean bederatzita inguru aukeratuko dituzte otsailean; eta sari banaketarako hilabete faltan, han izango diren bost filmak aukeratzeko dituzte. Beste galaxia bat da, baina ahal dugun heinean borrokatuko gara. Gaurtik hasita, gainera, Ameriketako Estatu Batuetan ikusi ahal da filma, Netflixen. Horrek filma ezagutzera ematen lagunduko duela uste dugu".

GOIENA TELEBISTA  
UDAZKENEKO  
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,  
%100 EMATEN

## ESKORIATZAZ, JOSERRA ZUBIZARRETAREKIN

'HARIRA'  
AZAROAREN 10EAN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

GALDERA:

✉ BERRIAK@GOIENA.EUS

☎ 688 69 00 07

GALDERAK ASTELEHENEKO 21:00AK  
BAINO LEHEN BIDALI BEHARKO DA



goiena  
20 URTE ZUEKIN.



# 42. Musikegunak zikloa azaroko domeketarako

Musika klasikoa eta garaikidea ardatz hartuta, lau emanaldi izango dira; Santa Ana antzokian 19:00etan dira denak. Sarrerak –zortzi euro– eta lau ikuskizunetarako bonua –25 euro– Txokolatexan eta 'Oñati.eus' atarian daude dagoeneko eskuragarri

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Foru Aldundiaren eta Donostia-ko Hamabostaldiaren laguntzarekin antolatuta izan ditu Udalak aurreko aldietako Musikegunak. "Lehenago udal gehiagok antolatzen bazuten ere, gaur egun Oñatikoak irauten du, besteak beste, ziklo horren erreferente izateraino. Aurten lehen aldiz Udalarena da ardura osoa, eta Foru Aldundiak diruz laguntzen jarraituko du", dio Kultura zinegotzi Iñaki Olalde.

Musikegunak zikloarekin musika klasikoaren eta garaikidearen eskaintza bermatzen saiatzen direla azaldu du Olalde: "Aurten, bertako instrumentu tradizionalari, txistuari, esaterako, eta ahozkotasanari, olerkia edo bertsoa musikaz lagunduta, lekutxo bat egiten saiatu gara; betiere, konpositoreen eta artisten maila aintzat hartuta. Musika tresna eta genero aldetik orekatua izaten saiatzen gara".



German Ormazabal piano-jolea eta Garikoitz Mendizabal txistularia. G.M.

## Abonamendua ere salgai

Musika klasikoaren zaleak izaten dira zikloaren ohiko jarraitzaileak, baina, antolatzaileen esanetan, "aukera aproposa da estilo berrietara gerturatzen".

Zortzi euro da saio bakoitzeko sarrera, baina abonamendua –25 euro– jartzea ere erabaki dute. "Musikegunak ziklo moduan ulertzen dugulako, eta jarraitzaile fidelek onurak izateko".

## Egitaraua

**AZAROAK 8, DOMEKA. Metamorfosis.** Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal.

**AZAROAK 15, DOMEKA. PIAZZOLLAiberdi.** Iñaki Alberdi, Enekoitz Martinez, Alex Garrobe, eta Gonzalo Tejada.

**AZAROAK 22, DOMEKA. Amerri emanaldia.** Andoni Salamero, Mixel Ducau, Caroline Phillips eta Andoni Egaña.

**AZAROAK 29, DOMEKA. Lauburu Sax Quartet.** Raul Perez, Claudia Llauro, Laurie Curutchet eta Andrea Castaño.

## "Eskertzekoa da programazioari eustea"

GARIKOITZ MENDIZABAL  
MUSIKARIA

*Metamorfosis* emanaldia eskainiko du, domekan, German Ormazabalekin batera.

### Zelakoa izango da?

Txistu eta piano errezitara da. Txistuak eta pianoak urteetan izan duten bidearen erakusle.

### Noiztik eta zer dela-eta bien arteko elkarlana?

Aspaldiko adiskideak gara, eta erraza egiten zaigu bioi elkar ulertzea, baita arlo pertsonalean ere. Orain dela bi urte abiatu genuen ekimena; Musikasten estreinatu genuen



GARIKOITZ MENDIZABAL

iaz eta harrezkero hainbat saio egin ditugu, eta harrera ederra izaten ari da. Txistuak duen interpretatzeko potentziala ederki islatua agertzen da; alaitasuna, bertuosismoa, doinu lasaiak, denetik dago.

### Ze garrantzi ematen diozu kultur ekitaldiak antolatzen jarraitzeari?

Benetan eta bihotzez eskertu behar dugu programazioari eutsi nahi izatea. Ikusleei ere ezinbestekoak direla esango nieke, eta datozela lasai.

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira urriko irabazleak!

#### ERRIGORAKO SASKIA

Dorita Murgia Ormaetxea (Arrasate)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

David Urrutia Muñoz (Eskoriatza)  
Angel Mari Zabaleta Iturbe (Bergara)  
Mikel Olabe Leibar (Arrasate)

#### MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Eneritz Gonzalez Uribe (Aramaio)

#### ITURRIETA SAGARDOTEGIRAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Emilio Bernal Alfayate (Bergara)

#### UNZUETA SAGARDOTEGIRAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Urki Larrea Ibabe (Arrasate)

#### GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Nerea Zugasti Iñarra (Arrasate)

#### 'PURO RELAJO'

KONTZERTURAKO SARRERAK  
Blanca Legorburu Aristi (Antzuola)  
Edurne Cegiaga Mondragon (Arrasate)

#### 'FADOAK ENTZUTEN ZITUEN GIZONA' ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Bixente Elorza Gorosabel (Arrasate)

#### 'BOTADUN KATUA' HAUR ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Eneko Azula Uribesalgo (Bergara)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erantsita, bino sarrera izango dituzue. Arrikrutzeko txartelarekin. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Auzo: Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzoak dituzte hilerdiz egiteko). **Harreman dendako Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Auzoetako Erakle hipermarketuen duen dendara. **Errigorako saskia jasotzeko**, bete: GOIENAren egotzira. Sario jasotzeko: **BAZKIDEGAREN TXARTELA** erantsita edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman behar da. GOIENA Oñatiko Lizentziaduna 31. Auzoetako: 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenean: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### MAIALDE JATETXERARI ESKER

Beginatu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Azaroaren 10era arte

943 25 05 05 klubo@goiena.eus

KLUBA Jate txokoa  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



### ESKAINITZA BEREZIA!!

Azaroa eta abendua bazkideetza: 15€  
Deitu: 943 25 05 05 • klubo@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



**URTEURRENA**

## Santiago Larrea Zubia

2019ko azaroaren 5ean hil zen, 87 urte zituela.




Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian.

*Olaten jaio zinen,  
Urrexolan bataiatu,  
Hamar anai-arrebatik zaharren,  
87 urterekin Jaunak deitu.  
Zaude leku onenean,  
Gertu eta atsedenean,  
Gure bihotzean,  
Eta Jaunaren magalean.*


Esker on bertaratuko zareten guztioi.  
Oñatin, 2020ko azaroaren 6an.

**URTEURRENA**



## Elena Ecenarro Arregui

2019ko azaroaren 15ean hil zen, 71 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—  
*Gogoratzen zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2020ko azaroaren 6an.

**URTEURRENA**

## Julio Bikuña Igartua

'Txope'

2019ko azaroaren 4an hil zen, 73 urte zituela.



Bere oroimenez urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2020ko azaroaren 6an.

**OROIGARRIA**



## Felisa Ansola Andoaga

Silvestre Bolibarren alarguna

2019ko azaroaren 28an hil zen, 91 urte zituela.




*Guretzako oparirik handiena  
zure alboan egotea zelarik  
hemen gabilza orain  
zure falta sinistu ezinik.  
Zuregatik jaso deguna  
gure bihotzek ondo daukate gorderik  
eta ez pentsa sekula  
ahaztuko zaitugunik.*

Bergaran, 2020ko azaroaren 6an.

**ESKER ONA**

## Andoni Vazquez Elizburu

2020ko urriaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.



Haren emaztea: Txaro Agirreurreta.  
Alabak: Naiara eta Maria Larrañaga, Amaia eta Gorka Kerejeta.  
Bilobak: Peru, Maia eta Oxel.

—


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 6an.

**ESKER ONA**

## Jose Juan Belategi Pagaldai

2020ko azaroaren 4an hil zen, 80 urte zituela.




Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2020ko azaroaren 6an.

**OROIGARRIA**

## Arrate Lopez Aldekoa

2020ko azaroaren 2an hil zen, Karrantzan, 63 urte zituela.



*Betirako gure bihotzetan.*

*Ez zaitugu ahaztuko.*

Agirreolea-Jauregi familia.  
Antzuolan, 2020ko azaroaren 6an.

**ESKER ONA**



## Lucia Elorza Ruiz de Azua

Dionisio Arrizabalagaren alarguna

2020ko azaroaren 2an hil zen, 96 urte zituela.



Seme-alabak, bilobak eta birlobak.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 6an.

**ESKER ONA**



## Maria Elorza Arenaza

Pedro Echebarriaren alarguna

2020ko azaroaren 4an hil zen, 98 urte zituela.



Seme-alabak, bilobak eta birlobak.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko azaroaren 6an.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 6	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 7	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 8	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 9	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 10	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 11	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 12	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 6	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 7	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 8	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 9	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 10	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 11	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 12	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 6	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 7	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 8	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 9	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 10	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 11	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 12	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

**ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2020ko abenduaren 31ra arte:  
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

**BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2020 osoan:  
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**OROIGARRIA**

## Dominica Elorza Heriz

2020ko azaroaren 5ean hil zen, 96 urte zituela.



*Etxaldebarin ez zaitugu sekula ahaztuko.  
Beti arte, amama!*

Etxekoak.  
Arrasaten, 2020ko azaroaren 6an.



## Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu



*Jakin ezazue  
nahiz eta heriotz  
asegurua izan, zuek nahi  
duzuen hileta-zerbitzua  
aukeratzeko eskubide  
osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta  
loguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 41 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Hormak margotzen**

Gu Haziak Gara elkarteak Kurtzebarri eskolaren hormak margotzeko proiektuari ekin dio berriro. Dagoeneko atzeko horma margotuta dago, eta, oraingoan, aurrekoaren txanda da. Udazkenari egin diote omenaldia. Lehenengo eta seigarren mailetakoko ikasleek egin dituzte margolari lanak, aurrez marraztutako bozetoaren gainean.

**2. Ipuinekin gozatzen**

Udako oporren ostean, eta COVID-19ak eskatzen dituen protokolo guztiak beteta, hasi dituzte berriro ere Ostegun Kontalariak saioak egiten Oñatin. Urri bukaerakoa Maite Franko ipuin kontalariak egin zuen. Han elkartu ziren, talde txikietan, hainbat entzule gaztetxo, eta adi-adi entzuten zituzten Francoren abenturak.

**3. Estilo nahasketa**

Donostiatik heldutako Beñaranks eta Bombadilen reggae doinuek –argazkian– eta Hernaniko Erroka taldearen elektrofolkak girotu zuten zapatu iluntzea Oñatiko Antixena gaztetxean. Segurtasun neurri guztiak errespetatuta eta ikusleak une oro eserita, 30 lagun inguru batu ziren gaztetxearen kanpoaldean egindako emanaldietan.

**4. Txotxongiloen magia**

Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostra berezia izan da, aurrekoen aldean: laburragoa izan da, eta publiko aldetik, mugatua. Baina txotxongiloek ikusleengana heltzeko abilezia berezia dutela ikusi da, eta, magia horrekin bustita, emanaldi batzuetan sarrerak agortu egin dira. Hurrengo mostra, koronabirusaren baimenarekin, 2022an izango da.

**5. Kultura bizirik dagoen seinale**

Arrasateko herrigintzari eta bailarako musikariei arnagune bat eskaintzeko asmoz, Herrixa Bizirik! jaialdia egin zuten aurreko asteburuan Arrasateko gaztetxean. Askotariko musika estiloak entzuteko aukera egon zen. Bailarako hainbat taldek parte hartu zuten, eta halako ekimenek ematen dieten arnagunea txalotu zuten.

## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



**BERGARA Andde Lazkano Bilbao**  
Azaroaren 10ean, 3 urte. Azaroan! Bai, Andde, azaroan 3 urte! Poz-pozik ospatukou danok, bihotza! Mua!



**OÑATI Ganix Erostarbe Aramburu**  
Azaroaren 9an, urtebete. Urte askotarako, txiki, zure lehen urtebetetzean! Patxo handi-handi bat, etxeko danon, baina batez ere, Urdaxen partetik!



**OÑATI Chloe Otxotorena Mendiola**  
Azaroaren 8an, 5 urte. Zorionak, txiki! Azkenian gure printzesatuaren eguna iritsi da. Oso ondo pasatu zure hainbeste itxarondako eguna. Jarraitu zaren modukoa izaten. Muxu handi bat etxeko danen, eta bereziki, Luccan partetik. Asko maite zaitugu.



**ARRASATE Peru Bengoetxea Alegre**  
Azaroaren 8an, 4 urte. Zorionak, Peru! Oso ondo pasatu zure eguna. Lau musu handi-handiak Arrasatetik.



**BERGARA Manex Goitia Pagaldai**  
Azaroaren 7an, 7 urte. Zorionak, Manex! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Besarkada eta patxo handi bat, etxekoen partetik!



**BERGARA Ibai Fernandez Plumed**  
Azaroaren 7an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Egun on bat pasatuko dugu. Muxu handi bat, familia danaren partetik.



**ANTZUOLA Nagore Sanchez**  
Azaroaren 6an, 8 urte. Zorionak, poxpolin. Egun ona pasatu, zure familixaren partetik. Muxuak.



**ANTZUOLA Ekaitz Alonso**  
Azaroaren 6an, 5 urte. Zorionak, maixia! Jarraitxu beti bezain alai eta jatorra izaten... irribarre politx horrekin! Muxu asko aitaren, amaren eta familixa osoaren partetik!



**ARRASATE Irati Gorosabel**  
Azaroaren 6an, 9 urte. Zorionak, maixia! Oso ondo pasatu zure eguna. Disfrutatu asko! Asko maite zaitugu! Etxeko guztien partetik, muxu erraldoi bat!



**OÑATI Markel Perez Romaratezabala**  
Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak, maixia! Allau da zure eguna be! Ondo-ondo ospatu. Segi zaren moduko maitagarrixa izaten. Maixte zaitugui!



**OÑATI Ekain Gereñu Arregi**  
Azaroaren 4an, 10 urte. Zorionak, Ekain! Nolako bizkor pasatu diren 10 urte! Ondo ospatu zure eguna eta besarkada bat, familiako guztien partetik.



**OÑATI Jokin Dominguez**  
Azaroaren 4an, 5 urte. Zorionak, etxeko txikitxo! Malenen, aitaren eta amatxoren partetik, ondo-ondo pasatu!




**BERGARA Izadi Goya Urain**  
Azaroaren 4an, 9 urte. Zorion bero-bero bat, lagunena eta familiaren partetik!



**ARRASATE Garazi Azkarate Ojanguren**  
Azaroaren 4an, 12 urte. Zorionak, etxekoen partetik! Lide, amatxo, aita, lehengusu Oihan eta Hegoi, aita-amamak eta osaba-izebak.



**ARETXABALETA Mara Gil Arribas**  
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak, politx hori! Oso ondo pasatu zure eguna! Asko maite zaitugu! Muxu potolo asko!



**ARETXABALETA Malen Iñurategi Alberdi**  
Azaroaren 3an, 5 urte. Zorionak, Malentxo! Bost urte aitaoren eta amatxoren bizitza zoratu zauenetik! Muxu potolo bat, etxekoen partetik!



**ARRASATE Nahia Domingos Garay**  
Azaroaren 2an, 8 urte. Zorionak, guapisima! Etxeko sorgintxuak 8 urte bete ditu. Muxu handi bat familia osoaren, eta batez ere, Aimarren partetik!



**ARRASATE Martin Abarrategi Segura**  
Azaroaren 2an, 8 urte. Zorionak, Martin! Disfrutaukou zure dantza eta abestiekin. Patxo handi bat, familian osuaren partetik!



**ARETXABALETA Miren Urzelai**  
Azaroaren 2an, 18 urte. Zorionak, Miren! Heldu die azkenien zure 18 urte zoragarri honeik! Segi gure egunak alaitzen eta segi zure moda zaletasun hori sendo mantentzen. Muxu handi-handi bat, Miren. Asko maite zaitugu.



**ARRASATE Alain Urbetxebarria Grandia**  
Urriaren 31n, 10 urte. Zorionak, Alain! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik! Oso ondo ospatu zure eguna eta ia opari asko jasotzen duzun.



**OÑATI Arene Lasagabaster Romero**  
Urriaren 29an, 7 urte. Zorionak, Arene! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familixa danaren partetik.



**ARRASATE Marijo Simon Arranz**  
Urriaren 29an, 45 urte. Zorionak, guapa! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna, Marijo! Musu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



**ARRASATE Markel Nin Ugalde**  
Urriaren 28an, 5 urte. Zorion pila-pila bat, Markelxo! Bost belarri tirakada eta patxo erraldoi bat danon partetik! Gora zu!



**ARAMAIO Maia eta June Armendariz Eriz**  
Urriaren 24an, 8 urte. Zorionak, gure bikote mendizalea! Orain arte bezala jarraitu, zuen umore eta energia amaigabearekin gure bihotzak alaitzen! Izugarri maite zaituztegu!

# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 6

**ARETXABALETA 'Plazerak eta desirak' jardunaldia**  
Ikastaroa izango da, ikuspuntu feminista eta ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik.  
*Arkupen, 17:00etan.*

**ELGETA 'Ipuinen ordua'**  
Boluntario taldearen eskutik, 2, 3 eta 4 urteko geletako neska-mutikoendako. Amaieran, liburu baten zozketa izango da.  
*Liburutegian, 17:15ean.*

**ARRASATE 'Arrasate 20/20' erakusketa**  
Artgazki taldeko hogeitaz argazkilarik egindako lanekin osatu dute bilduma. Teknika ezberdinekin egindako 80 erretratu ikusgai hildaren 28ra arte.  
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ELGETA Zalbidarko zabortegea: elkarretaratzea**  
Zaldibar Argitu plataformak deituta. Osteen, egungo egoeraren berri emango dute.  
*Mendizaleen plazan, 19:00etan.*

**ANTZUOLA Euskaraldia: izena ematea**  
Zein rol aukeratu laguntzeko informazio-mahaia ipiniko dute.  
*Kalebarrenen, 19:15ean.*

**OÑATI Sua eta Los Sara Fontan**  
Taldea bizkaitarrak *Ordu beltzak* diskoa aurkeztuko du. Aldiz, Bartzelonako bikoteak biolin eta bateria doinuekin beteko du oholta. Sarrerak, zazpi euro.  
*Santa Anan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 7

**ANTZUOLA Euskaraldia: izena ematea**  
Zein rol aukeratu laguntzeko informazio-mahaia ipiniko dute.  
*Kalebarrenen, 12:00etan.*

**ARRASATE 'Kotondarrak' antzezlan**  
Anita Maravillas taldearen lana, umeendako. Sarrerak, bost euro.  
*Amaia antzokian, 17:00etan.*

**BERGARA Bertso saioa**  
Jone Uria, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Sarriegi bertsotan. Sarrerak, bost eurotan, leihatilan salgai, ekitaldia hasi baino ordubete lehenagotik.  
*Kartzela zaharrea, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Bizarro taldea**  
Sarrerak erosteko, bost eurotan: 685 75 67 29 edo *euskara@loramendielkartea.eus*. Edukiera mugatua.  
*Zaraia aretoan, 19:00etan.*

**BERGARA 'Gaukoak' dantza emanaldia**  
Kukai dantza taldearen azken lana, Jon Maya Sein dantzariaren barne-begirada batetik abiatzen dena. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoa, 19:00etan.*

**OÑATI Gaizka Isunza**  
Beratu jaialdiren baitan. Emanaldia debalde izango da.  
*Santa Ana antzokian, 20:00etan.*

## DOMEKA 8

**BERGARA DV txapelketako pilota partiduak**  
Edukiera mugatua.  
*Pilotalekuan, 10:00etan.*

**OÑATI 'Altxorren bila' jolasa**  
Familiendako orientazio jolasa, ibilbide irisgarrian gordetako zazpi pistak topatzeko. Aurrez eman behar da izena.  
*Arantzazuko parketxean, 11:00etan.*

**OÑATI Hakima Flissi (sarrerak agortuta)**  
Abeslari bilbotarrak erritmo urbanoetara gonbidatuko ditu entzuleak.  
*Lazarraga lorategian, 12:30ean.*

**BERGARA Bergarako txistulari bandaren kontzertua**  
Irekia, edukiera mugatuarekin.  
*Udaletxean, 13:00etan.*

**OÑATI Joseba Irazoki (sarrerak agortuta)**  
Berako musikariaren emanaldia, Beratu jaialdiaren baitan.  
*Antixenean, 18:00etan.*

**ELGETA 'Esnatu naiz' kabareta**  
Andoni Mutikoaren proiekturik pertsonalena, Domeka Kulturalak egitarauaren baitan. Sarrera debalde, baina erreserba egin behar da *Labur.eus* atarian.  
*Espaloian, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Amorante bakarlarria**  
Emanaldi akustikoa egingo du Ibon Urizarrek. Sarrerak, lau euro.  
*Zaraia aretoan, 19:00etan.*

**OÑATI Musikegunak: 'Metamorfosia'**  
Garikoitz Mendizabalek (txistua) eta German Ormazabalek (pianoa) egingo dute emanaldia. Sarrerak udal webgunean edo Txokolaitexan.  
*Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 9

**ARRASATE Carmen Balcells literatura-agenteari buruzko hitzaldia**  
Jose Domingok egingo du berba Latinoamerikako literaturaren gorakadari buruz, Goienagusiren ikasturtearen baitan.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Odola emateko deialdia**  
Herritar guztiendako.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*

**OÑATI Euskaraldia: txapak jasotzea**  
Era berean, balkoiak edo leihoak apaintzeko banderaxoak, eta poltsak erosi ahal izango dira.  
*Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.*



TIPIA

**ARETXABALETA 'Me too' antzezlan**  
Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe aktoreek feminismoaren gaineko antzezlan laburra taularatuko dute. Neomatxismoa, androzentrismoa, binarismoa... izango dituzte hizpide. Sarrerak, lau euro.  
*Gaur, egubakoitza, Zaraia aretoan, 20:30ean.*

## MARTITZENA 10

**BERGARA 'Zientzia irudikatzen' erakusketa**  
EHUren Ilustrazio Zientifikoko berezko titulazioaren lanen erakusketa, hildaren 15era arte.  
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARAMAIO 'COVID-19a eta osasuna' hitzaldia eskainiko dute Aramaion**  
Herritar talde batek gonbidatuta egingo du berba Juanjo Martinez digestio aparatuko eta orokorreko zirujauak. Edukiera mugatua.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Miñan' liburuaren aurkezpena**  
Amets Arzallusen eta Ibrahim Balderen eskutik, Zaporeak Elkarteak gonbidatuta.  
*Zaraia aretoan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Eso que tú me dás' pelikula**  
Jordi Evolek zuzendutakoa, Pau Donesen bizitzaren azken egunak kontatzen dituen.  
*Amaia antzokian, 20:00etan.*

## EGUAZTENA 11

**BERGARA 'Jazz: 1930eko eta 1940ko hamarkadak' hitzaldi musikatua**  
Jon Garcia del Val gitarristarekin, Goienagusiren ikasturtearen baitan.  
*Seminarixoa, 10:00etan.*

**ARRASATE Euskaraldia: izen-ematea**  
Nork bere rola aukeratzeko.  
*BAZen, 11:30-13:30 eta 17:00-19:00.*

**ARRASATE Sasoibide: irteera, mendira**  
Egunean bertan erabakiko dute nora joango diren.  
*Biteri plazan, 16:00etan.*

**ARRASATE 'Arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza' hitzaldia**  
Hizlariak izango dira: Eneritz Garro (Huhezi), Leire Okarantza (Fagor Taldea) eta Kike Amonarriz (Euskaltzaleen Topagunea).  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI Euskaraldia: txapak jasotzea**  
Era berean, materiala erosteko aukera egongo da.  
*Euskaldun berria gelan, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Etxeko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
*Oxirondon, 18:00etan.*

**ARRASATE Euskaraldia: izen-ematea**  
Nork bere rola aukeratzeko momentua.  
*Arbolapetan, 18:00etan.*

**OÑATI Mendiko federatu txartelak**  
2021erako lizentziak berritzeko edo berriak egiteko aukera ematen du



GARIKOITZ MENDIZABAL

**OÑATI Musikegunak: 'Metamorfosia'**

Garikoitz Mendizabalek (txistua) eta German Ormazabalek (pianoa) egingo dute emanaldia. Sarrerak salgai daude udal webgunean eta Txokolaitexan –arruntak zortzi euro eta abonamenduak 25–. *Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

Aloña Mendik, egoitzaren bulegoan bertan. Bada, aurrez txanda hartu behar da *alonomendi.mendi@gmail.com* helbidean. *Aloñaren egoitzan, 19:00etan.*

**BERGARA '1, 2, 3... probando, probando' hitzaldia**

Eneritz Zubizarretak egingo du berba, ele bitan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan. Edukiera mugatuarengatik aurrez eman behar da izena. *Laboratoriumen, 19:00etan.*

**OÑATI Eau de CAF plataformaren hitzaldia**

Palestinako egoeraren, okupazioaren, CAFen erantzukizunen eta BDZ kanpainaren inguruan hitz egingo dute. *Antixenean, 19:00etan.*

**BERGARA 'Eté 85' pelikula**

Jatorrizko bertsioan, azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoa, Bergara 20:00etan*

**EGUENA 12**

**ARRASATE Sasoibide: irteera**  
Garaia Parke Teknologikora joango dira. *Biteri plazan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Emakumeen esku, sendabelarrak' hitzaldia**  
Kris Lizarragaren hitzaldia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza

Jardunaldien baitan. Edukiera mugatuarengatik aurrez eman behar da izena: 943-76 90 03 edo *laboratorium@bergara.eus*. *Irizar jauregian, 17:30etan.*

**OÑATI Mendiko federatu txartelak**

2021erako lizentziak berritzeko edo berriak egiteko aukera. Aurrez txanda hartu behar da *alonomendi.mendi@gmail.com* helbidean. *Aloñaren egoitzan, 19:00etan.*

**OÑATI Zinekluba**

*Nunca, casi nunca, a veces, siempre* filma. Sarrerak, bost euro. Edukiera mugatua denez, garaiz joatea eskatzen da. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

**EGUBAKOITZA 13****ARETXABALETA Pintura erakusketa**

Gurutze Mujika margolariaren bilduma. *Arkupen, 11:00etan.*

**OÑATI Odol ateratzea**

Deialdi irekia, odol-emaile guztiendako. *Enpresagintzan, 17:00etan.*

**OÑATI Mila Modu taldearen diskoaren aurkezpena**

*Absurdoaren paradisua* lana aurkeztuko dute akustikoan, emanaldi bikoitza eginez: 18:00etan eta 20:00etan. Sarrerak, hiru euro. *Zinema aretoan, 18:00etan.*

**ARRASATE Euskaraldia: izen-ematea**

Nork bere rola aukeratzeko momentua. *Erdiko kalen, 18:00etan.*

**ARAMAIO Bikoizketa lehiaketa: izen-emate**

Udaletxean edo liburutegian egin behar da, hilaren 24a baino lehen. Adinaren arabera, hiru kategoria egingo dituzte: 8-12 urte, 12-20 urte eta 20 urtetik gora. *Udaletxean edo liburutegian, 18:00etan.*

**BERGARA 'Egia bat. Bergara ezkeriar eta abertzalearen historia' dokumentalaren aurkezpena**

Ahaztu Barik elkartearen eskutik, ekitaldi irekia, edukiera mugatuarekin. Martxoan atzeratutako ekitaldia. *Seminarixoan, 18:00etan eta 20:00etan.*

**ESKORIATZA Liburu aurkezpena**

Oihana Arana eskoriatzarrak Portuak delako liburua aurkeztuko du. Edukiera mugatua. *Zaldibarren, 19:00etan.*

**ARAMAIO Bertso jaialdia**

Sustrai Colina, Xabi Igoa, Maialen Lujanbio eta Ane Zuazubiskar egongo dira oholtza gainean, Euskaraldiaren baitan, bertso-eskolak gonbidatuta. Bertso eskolako kideak izango dira gai-jartzaileak. *Kultura etxean, 19:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**Erlauntza**  
Egubakoitza eta astelehena: 20:00. Domeka: 19:00.

**Koko, dragoi txikia**  
Domeka: 16:00.

**BERGARA****SEMINARIXOA**

**Akelarre**  
Egubakoitza eta astelehena: 20:30. Domeka: 19:30.

**Koko, dragoi txikia**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Regreso a Hope Gap**  
Egubakoitzean, zapatuan eta domekan: 20:00. Astelehenean: 19:30.

**Como perros y gatos**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR****COLISEO**

**Erlauntza**  
Zapatua eta domeka: 16:00. Astelehena: 19:30.

**Una pastelería en Notting Hill**  
Zapatua eta domeka: 20:00.

**Meseta**  
Zapatua: 20:00. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 19:30.

**ANTZOKIA**

**Erlauntza**  
Zapatua eta domeka: 20:00.

**Como perros y gatos**  
Zapatua: 16:00.

**GASTEIZ****BOULEVARD**

**Trolls 2**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00. Egubakoitza: 18:00. Zapatua eta domeka: 16:15, 18:30.

**Jovenes y brujas**  
Egubakoitza, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:50, 20:25. Zapatua eta domeka: 16:00, 18:15, 20:30. Martitzena: 17:50.

**Sentimental**  
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:45, 19:45. Zapatua eta domeka: 16:20, 18:20, 20:20.

**El ultimo refugio**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:45.

**No mataras**  
Eguenera: 17:15.

**La brujas**  
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:05, 19:30.

**Emma**  
Eguenera, martitzena izan ezik: 20:00.

**Akelarre**  
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**GORBEIA**

**Trasto**  
Zapatua: 16:30. Domeka: 12:00, 16:30.

**Pinocho**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

**Eso que tú me das**  
Domeka: 12:00.

**Akelarre**  
Egubakoitzetik domekara: 18:25. Astelehenetik eguenera: 17:20.

**Como perros y gatos**  
Egubakoitza: 17:30. Zapatua: 16:15. Domeka: 12:00, 16:15.

**El arco magico**  
Zapatua: 16:30. Domeka: 12:00, 16:30.

**El bosque del lince iberico**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

**Ane**  
Egubakoitza: 20:20. Zapatua eta domeka: 18:15, 20:20. Astelehenetik eguenera: 19:50.

**No mataras**  
Egubakoitzetik domekara: 20:25. Astelehenetik eguenera: 19:50.

**Trolls 2**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00. Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30. Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.

**El secreto**  
Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehenetik eguenera: 19:50.

**Stardog y turbocat**  
Zapatua: 16:20. Domeka: 12:00, 16:20.

**Jovenes y brujas**  
Egubakoitza: 17:30, 20:00. Zapatua: 18:00, 20:10. Domeka: 12:00, 16:20.

**Trasto**  
Zapatua eta domeka: 18:15, 20:20.

**Pinocho**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Pequeño gran lobo**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El bosque del lince iberico**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Vicky el vikingo**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Akelarre**  
Egubakoitzetik domekara: 18:20. Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Falling**  
Egubakoitzetik domekara: 20:10. Astelehenetik eguenera: 19:50.

**Como perros y gatos**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Ane**  
Egubakoitzetik domekara: 18:10. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Trolls**  
Egubakoitza: 16:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:15.

**Sentimental**  
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:30, 20:15. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:40, 20:00.

**Jovenes y brujas**  
Egubakoitza: 16:15, 18:10. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Emma**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenetik eguenera: 19:45.

**La brujas de Roald Dahl**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45. Domeka: 12:00, 17:15, 19:45.

**Sentimental**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30. Astelehenetik eguenera: 19:50.

**Corpus Christi**  
Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehenetik eguenera: 17:20.

**La trinchera infinita**  
Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehenetik eguenera: 19:20.

**Las brujas de Roald Dahl**  
Egubakoitza: 16:15, 20:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:15, 20:15.

**El palacio ideal**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:15. Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

**Adam**  
Egubakoitzetik domekara: 16:20, 18:20, 20:25. Astelehenetik eguenera: 17:30.



ZINEUSKADI



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

## Eutsi goiari!

Udaberriko etxeratzea gogorra izan zen. Ustekabeen harrapatu gintuen pandemiak eta bat-batean erori ginen preso, komuneko papera, ogitarako legamia eta garagardoa pilatzeko asti justuarekin. Egoera berria zen, baina, oro har, ondo eraman genuen. Elkar zelatzeko joera batzuk kenduta, etxean egoteak hurbilekoari begira jarri gintuen, komunitatea bistaratu zigun eta elkarren babesa indartu.

Bigarren olatu hau bestela dator. Oraindik ez gaude etxeratuta, baina datuen joera okerra ez da zuzentzen eta neurri gogorragoen iragarpena etengabea da. Eta dagoeneko nekatuta gaude, badaramagulako zortzi hilabete zama honekin; ilun gabiltza, negu sarrera delako eta arratsaldea moztu delako; uzkur, ez dugulako irtenbide garbirik ikusten, ez digutelako informazio zehatzik ematen eta konfiantzarik pizten. Eta, dena batera, petratzen hasi gara 2020 malapartatu honetan gauza asko ari garelako galtzen, izan diru sarrerak, aukerak edo harreman afektiboak. Ez dugulako argirik ikusten, eta ganora ere, sobranterik ez.

Hala ere, ez dezagun etsi. Ekaitz betean gaude, baina ez da betirako. Aterako dugu berritua gure onena. Eutsi goiari!

EUSKARALDIA, GERTU!

14  
EGUN FALTA  
DIRA



Beatriz Gereka boluntarioa, Oñatiko Euskaldun Berria gelan. KARMELE URIBESALGO

# Boluntarioen lana, ezinbesteko zutabe

Euskaldia hasteko azken txanpan sartuta, lan handiko bolada da boluntarioentzat. Funtsezkoa da euren lana; txapak banatzen ari dira, izena ematen laguntzen edota materiala saltzen. Beatriz Gereka oñatiarraren istorioa jaso du GOIENAK

### Karmele Uribealzo OÑATI

Astelehen eta asteazkeneko zabalitzen dute Euskaldun Berria gela. Bi aste eskas falta dira Euskaldun Berria gela, eta Beatriz Gereka eta halako boluntarioentzat lan askoko bolada da. 17:30 aldean batzen dira txanda bete behar duten bi boluntarioak. Mahaiak atondu, materiala atera, orde-

nagailua piztu eta, 18:00etan hasita, bi orduz aritzen dira lanean. Izena ematen laguntzen diete herritarrei, txapak banatzen dizkiete eta Euskaldun Berriarekin lotutako materiala ere badabil-tza saltzen.

Erretiraturata dago Gereka, eta bere denbora librearen tarte bat Euskaldun Berriarekin laguntzeko eskaintzen die. "Jende beharra

zegoen, eta, nik aukera neukanen eta euskararen mundua gustatzen zaidanez, animatu egin nintzen boluntario aritzera", azaldu du. Gereka bezala, beste dozena bat oñatiarrek ere erabaki dute euren aletxo ipintzea; parte hartzaile moduan ez ezik, boluntario gisa batuta.

Duela bi urteko Euskaldun Berriaren lan horiek egiten aritu zen

Gereka, eta aitortu du, neurri batean, esperientzia horrek lana erraztu diela. Gainera, aurten, parte hartzaile askok Internet bidez eman dute izena, eta horrek ere lan kargaren zati bat kendu die boluntarioei.

Dena den, COVID-19aren pandemiak asko mugatu du ekimena. Izan ere, ez da posible, besteak beste, ekitaldiak antolatzea. "Pena da; duela bi urte, garai honetarako, hainbat ekintza egiten ari ginen, baina aurten pentsaezina da horrelakoak antolatzea", adierazi du Gereka.

Euskaldun Berria bizitzeko beste era bat da, Gereka ustez, boluntario lanetan ibiltzea: "Gauzak beste modu batera ikusten dituzu, eta motibazioa ere areagotu egiten da". Gaineratu du lehen hitza euskaraz egitearen kontzientzia ere askoz lehenago hartzen dela boluntario lanetan ibilita. Gauzak horrela, ingurukoak xaxatzen ahalegintzen da. Gereka argi dauka boluntarioen gabe ez litzatekeela posible izango hamabost eguneko ariketa hori egitea, lan handia da eta.

### Aurten, 'belarriprest'

Aurreko edizioan *ahobizi* txapa jantzi zuen Gereka, baina aurten *belarriprest* izateko erabakia hartu du. Euskara du ama hizkuntzat, baina proba bat egin nahi izan du. "Pentsatzen dut modu horretara balitekeela bestearen saiakera handiagoa izatea", azpimarratu du.

*Ahobizi* edo *belarriprest* izan, Euskaldun Berria batzeko gonbita egin dio Gereka herritar orori. Euskaldun Berriaren bigarren edizio-rako atzera kontaketa martxan da: hamalau egun falta dira.

GOIENA TELEBISTA  
UDAZKENEKO  
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,  
%100 EMATEN

ORAIN NAHIERAN  
IKUS DEZAKEZU



GURE  
ZIRKUAREN  
AZPIKO GONAK

ZIRKUAREN MAGIA ERAKUTSIKO  
DIGUN ERREPORTAJEA



Erreportajea  
nahieran ikusteko,  
eskaneatu QR kode  
hau telefonoarekin.

goiena  
20 URTE ZUEKIN.